



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko uztailaren 17an

77 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

—Foru Legea, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko plan bereziari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (40. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (46. or.).

—Foru Legea, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (62. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko uztailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENAK

I

1978ko Espainiako Konstituzioak kirola ordenamendu juridikoari eratziki zion eta goreneko arau maila eman zion.

Lege Nagusiak, bada, politika sozial eta ekonomikoa gidatzen duten printzipioen barrenean, ezartzen du "botere publikoek osasunari eta kirolari buruzko heziketa bultzatuko dutela eta bai erraztuko ere aisialdia behar bezala erabiltzea." Konstituzioak botere publikoei egozten die, zeini bere arloan, printzipio hori gauzarazteko ardura.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoak ditu kirola sustatu eta aisia behar bezala erabiltzeko gaietan, halaxe agintzen baitu Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 44.14 artikulua.

Eskumen nagusi horrekin batera, beste gai batzuen gaineko eskumeneke ere ahalmena ematen diote Nafarroako Foru Komunitateari kirola arautu eta antolatzeko, foru lege honen bidez; hona gai horietako batzuk: ikuskizunak, haur, gazte eta zahar jendearentzako politika; gehienbat Nafarroan aritzen diren irakaskuntza, kultura, arte, ongintza eta laguntza elkarteak eta antzeko-

ak; hezkuntza; zerga araubidea; barne osasuna eta higiena, eta abar.

Foru lege honetako erregulazioak honako printzipioak ditu oinarri:

a) Kirola mesedegarria da bai gizabanakoarentzat nola gizartearentzat eta gizataldeak goratu eta haien ordezkari izateko eginkizuna du.

b) Kirola, gizabanakoaren jarduera den partez, ez da beti-batekoa; aitzitik, hainbat agerkari eta aldaera izaten ditu, gizabanakoaren premia eta iritsi-nahien arabera.

c) Gizartearen ekimenak sortzen du kirola eta gizarte jarduera den partez, fenomeno dinamiko aldakorra da, gizartearen baitan izaten diren premia eta aldaketen arabera.

d) Kirola bultzatu eta garatzeko lanean, kirolariez gain erakunde publikoek eta pribatuek egiten dute bat eta hartzen dute parte.

e) Kirolak gainera, beste araudi sektorial batzuen menpeko osagai batzuk baditu.

Foru lege honek honako helburuak ditu:

a) Kirola Nafarroako Foru Komunitatean arautzeko lege-esparru gutxienekoa osatzea. Osotarako araudi bat ezarri nahi da, irekia eta malgua, gero batean erregelamendu bidez Nafarroako gizarteak zer eskatu, horren arabera moldatzea.

b) Sistema bat eratzea Foru Komunitatean kirola bultzatu eta garatzen esku hartzen duten jende taldeak eta erakunde publiko eta pribatuak bertan kokatzeko.

c) Kirol jardueretako segurtasuna eta osasuna bultzatzea.

d) Oro har, kirol jarduerarekin lotutako edo handik eratorritako osagaiak arautzen dituzten beste arau sektorial batzuen erreferentzia egin eta haietara bidaltzea, gaian-gaian foru lege honetan

edo haren erregelamenduetan berariazko erregulazioa egitea ezertan galarazi gabe.

Foru lege honen funtsezko xedeetako bat da kirola Nafarroako herritar ororen eskubidetzat hartzea, alegia, herritar guztiek dutela eskubidea kirola ezagutu eta horretan aritzeko, libre eta nor bere borondatez, berdintasunean oinarrituta eta sexuak, adinak edo bestelako inguruabarrek bazterkeriarako arrazoia izan gabe; ezgaituak gizartean integratzeko garrantzizko bidea dela baloratuta eta gure Foru Komunitateko ingurumenarekiko begirunea sustatzen.

II

Foru lege honetako lehenbiziko tituluan espreski ematen da aditzera zer balio izaten dituen kirol jarduerak eta zer onura ekartzen dizkion gizabanako zein gizarteari. Hots, aitortzen zaio gaurko gizartean duen garrantzia eta irispidea.

Kirola herritarraren jarduera libre eta borondatezkoa da.

Foru lege honek Foru Komunitateko administrazio publikoek kirolaren arloan duten jarduna gobernatzen du, guztientzako helburu batzuk jarrita.

Administrazio publiko bakoitzak bere gaitasunaren eta eskumenen neurrian egin ditzakeen politika sektorialeak lagundu behar dute herritar guztiek aukera izan dezaten nor bere gorpuzkera, adin eta inguruabarren arabera kirol egitearen onurak bereganatzeko.

Kirol egiteko zailtasunik handienak dituzten gizataldeei arta egitea da administrazio publikoek iritsi gogo dituzten helburuetako bat, batez ere kontuan harturik gure erkidegoan zein kirol eskaintza zabala eta zein kirol jarduera handia egoten den.

Bereziki aipagarria da administrazio publikoen barrengo elkarlanak duen garrantzia aitortzen dela eta bai administrazio horien eta beste erakunde publiko eta pribatuen artekoarena ere, kirola bultzatu eta gararazteko bidetzat.

III

Bigarren tituluak Foru Komunitateko administrazio publiko bakoitzak kirol gaietan dituen eskumen arloak mugatzen ditu.

Titulu honek, bestalde, definitzen du Foru Komunitatearen administrazioko organo bakoitzak zer eskumen dituen kirol gaietan.

Arlo honetan aipagarria da ex novo sortzen dela Nafarroako Kirol Kontseilua, bitariko helburua iritsi beharrez:

a) Gizartearen islagarri den organo kualifikatua sortzea, kirol gaietako politika orokorra itxuratu eta garatzen parte hartzeko. Hartarako Foru Komunitateko administrazio publikoentzako kontsulta eta aholku eginkizunak egotzen zaizkio.

b) Gizartearen islagarri den organo kualifikatua sortzea, Nafarroan kirola garatzen parte hartzeko, administrazio publikoei iradokizunak eta proposamenak eginaz, eta bai Nafarroan kirola bultzatu eta garatzen esku hartzen duten beste edozein erakunde publiko eta pribaturi ere.

Finkatzen ere da, bestalde -lege hau lege sektoriala baita-, zer eskumen dagozkien kirol gaietan Nafarroako udal eta kontzejuei.

IV

Hirugarren tituluak, gizabanakoaren jarduera gisa kirola askotarikoa dela iritzirik, gure gizartean izaten diren hainbat kirol mota hartzen ditu aintzat. Foru legeak ez du kirol mota horien definizio teknikorik egiten, definizio pragmatikoak baizik, foru lege honek eta haren garabideko xedapenek eta administrazio publiko desberdinen politika sektorialeak ezartzen duten erregulazioan esparru-emaile eta orientabide izatea helburu.

Foru lege honek, bide berria urratuz, Foru Komunitateko goi mailako kirol jarduera ere hartzen du aintzat.

Nafarroako goi mailako kirola akuilu da oinarritzko kirol jarduerarako, eta Nafarroa Estatuan zein nazioartean ordezkatu eta sustatzeko eginkizuna izaten du eta hortaz haren garapena eta gorabidea indartzen ditu.

Goi mailako kirol jarduerak kirol piramidearen goreneko gailurra izan behar du.

Kirola sustatu eta bultzatzeko lanean, funtsezko eta oinarritzko garrantzia du informazioa zabalitzeak kirol jarduerako baldintza eta betebeharren gainean. Hortaz, Foru Komunitateko Administrazioari eginbide hori egotzen zaio: informazioa zabaltzea kirol arauak eta arau sektorialeak ingurune naturaletan egoki eta legalki kirol egiteko ezartzen dituzten baldintza-betebehar guztien gainean.

Foru lege honek kirol lehiaketak sistematizatzen ditu. Sailkapen bat ezartzen da bi helburu iristeko: kirol gaietan bat egiten duten eskumen arlo guztiekin bat etortzea, eta bide ematea kirol araudia etengabe moldatzeko unean uneko gizar-

te errealitatearen arabera, kategoria berriak ezartzeko aukera ezarririk.

Lehiaketa bat Nafarroaren eremuan ofizialtzat kalifikatzen denean, aitortzen zaio delako jarduera horri Nafarroan daukan garrantzia. Halatan, "ope legis", hauek hartzen dira Nafarroako kirol lehiaketa ez profesionaltzat: kirol modalitate batean kirol aitormenik gorena eraukitzen dutenak, kasuko kirol federazioak aitortu eta segurtatu baititu delako lehiaketaren garrantzia eta irispidea.

Nafarroako kirol selekzioen figura arautzen da: halakotzat hartzen dira edozein arlotako kirol lehiaketa edo jardueretan Foru Komunitateko ordezkari aritzen diren kirolarien taldeak.

Kirolean desegoki aritzeak kalte egiten ahal dio gizabanakoari; horregatik zenbait neurri presatzen dira kirolarien eta kirol-ikusleen segurtasuna bultzatu eta gauzarazteko. Hona hemen aipagarrienak:

a) Espreski zehazten da jendaurreko kirol ikuskizun eta jarduerak ikuskizun mota jakin bat besterik ez direla, eta beraz Jendaurreko ikuskizunak eta josteta jarduerak arautzen dituen foru legearen pean daudela, erregelamendu bidez berariazko erregulazioa egitea ezertan galarazi gabe.

Jendaurreko kirol jardueraren kontzeptua, hortaz, adiera zabalean interpretatu behar da, jendea etorrazteko moduko edozein kirol jarduera, alegia, antolatzailea publikoa nahiz pribatua izan eta zein ere forma juridikoa duen: pertsona fisikoa, merkataritza sozietatea, elkarteak, eta abar.

b) Berariaz aintzat hartzen da adingabeentzako edo gehienbat adingabeek parte hartzeko jendaurreko kirol jarduera edo ikuskizunen berezitasuna, adingabeen segurtasuna bultzatu eta ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien eskubiak errespetaraztea helburu.

c) Administrazioaren baimen espresua izateko baldintza jartzen da Foru Komunitateko Administrazioak arrisku edo inguruabar bereziak direla medio ohiz-gainekotzat jotzen dituen jendaurreko kirol jarduerak antolatzeko. Hartarako, ezinbestekoa izanen da aurrez baimena izatea, bai eta jarduera hori behar den jarduera lizentzia duen lokal batean egiten bada ere.

Administrazioaren sustatze lanaren barrenean, espreski aitortzen da, Administrazioaren eta interesatuen artean ituna egiteko aukera kirol gaietako dirulaguntzak emateko prozedura bukatzeko. Juzgatzen da bukaera konbentzionala bide egokia dela kirola bultzatu eta garatzeko ekimen pribatu eta publikoaren bategitea artikulatu eta gauzatzeko.

Foru lege honek berariazko arreta ematen dio kirolaren babes komertzialari eta enpresek kirolari laguntza emateko dauden halako bideei, ekimen pribatua ere kirol jarduerak finantzatzeko bide izan dadin sustatzeko.

V

Foru lege honetako laugarren tituluak antolamendu sistema bat itxuratzen du Nafarroan kirola bultzatu eta garatzen esku hartzen duten erakunde publiko eta pribatu guztiak bildu eta batzeko.

Aitormen ofizialaren instituzio juridikoa, Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroa erabiliz, erakunde horiek guztiak Nafarroako kirol antolamenduan sarrarazteko tresna da.

Kirol erakundeak bi talde handitan bereizten dira:

a) Kirol elkarteak.

b) Beren erabidean eta araubide juridiko orokorrean kirolaren araudiaren menpe egon ez baina hala ere Foru Komunitatean kirola bultzatu eta garatzen aritzen diren beste erakundeak. Espreski hartzen dira halakotzat kirol sozietate anonimoak, eta beste zenbait erakunderi ere aitormen generikoa ematea aurreikusten da Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan "Kirol Klub Filiala"ren izenpean sarraraziz.

Elkarteen arlo orokorrean Nafarroako kirol klubak eta kirola sustatzeko erakundeak sartzen dira kirol elkarte gisa eta haien araubidea finkatzen da.

Berariaz arautzen dira, legez eraturako elkarte gisa, kirol federazioak. Nafarroako kirol federazioen helburua da Nafarroako kirol modalitateak bultzatu eta garatzea.

Kirol federazioek, delegazioz, administrazioarenak diren eginkizun publikoak egiten dituzte eta hartarako, Foru Komunitateko Administrazioaren organo eskudunek zenbait esku-hartze eta kontrol ahalmen eratu behar dituzte, eta bai federaziook lagundu eta babesteko beste zenbait ere.

VI

Bosgarren tituluan espreski aitortzen da ze, legeria orokorraren barrenean, herritarren kirol jarduera arruntak behar izaten duen osasun laguntza sektore publikoaren aseguru-araubidearen prestazio arrunta dela.

Kirol aseguru arautzen da, eta ezartzen kirol federazioak beharturik daudela kirolari federatuari osasun laguntza eta delako kirol klasea modu

antolatuan egitetik heldu diren beste zenbait premia segurtatzeko aseguru bat kontratatzea.

Foru Komunitatean lehenbiziko aldiz, aintzat hartu eta arautzen da "kirol dopajea", bi helbururekin: kirolarien osasuna babestea eta kirol lehiaketak gidari izan behar duen joko garbiaren espiritua zaintzea.

VII

Seigarren titulua kirol instalazioen antolamenduaz ari da.

Espreki aitortzen da erabilera publikoko kirol instalazioak Nafarroan indar duten jendaurreko ikuskizunei eta josteta jardueri buruzko arauen eta ingurumena babesteko jarduera sailkatuei buruzkoen menpe daudela.

Zenbait neurri ezartzen dira erabilera publikoko kirol instalazioen erabiltzaileei segurtasuna bermatzeko.

Agintzen da Foru Komunitateko Administrazioak kirol instalazioetarako plan zuzentzaileak onetsi behar dituela, Nafarroan kirol instalazioen sare oinarrizkoa osatzea helburu, herritarrei kirol egiteko bidea errazteko.

Foru Komunitateko Administrazioak, toki erakundeak lankide, errolda bat itxuratu eta gaurkoturik edukiko du Nafarroan dauden kirol instalazioak, publiko nahiz pribatuak, jasotzeko. Tresna horren helburua da kirol instalazioen ezarpena modu koherente eta efikazean planifikatzen eta foru lege honetan jasotzen diren helburuak iristen laguntzea.

VIII

Kirola segurtasunez egiteko eta lehiaketaren arloan emaitza onak izateko, garrantzia handia du irakaskuntzako eta kirol instalazioetako zuzendari-tzaren inguruko kirolariek eta teknikariek prestakuntza egokia izateak.

Zazpigarren titulua kirol jardueren arloko prestakuntzaz ari da. Agintzen du erregelamendu bidez gara dadila kirol teknikarien titulazio ofizialei buruz Estatuan indar duen araudia.

IX

Zortzigarren tituluan kirol gaietako zehapen eta diziplina araubidea arautzen da.

Jendaurreko ikuskizunei eta josteta jardueri buruz Nafarroan indar duten arauetan agintzen den zehapen araubideak kirol jarduera eta ikuskitzunean parte hartzen duten pertsonen osotasuna

eta segurtasuna babestu asmo ditu; horregatik kirolaren arloko zehapen araubideak kirol huts-hutsaren arloko arau-hausteak hartzen ditu aintzat. Kirolaren arloko zehapen araubidea foru lege honetan tipifikatzen diren administrazio arau-hausteak egin dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei aplikatuko zaie.

Premia hauei asebidia emateko, agintzen da organo kualifikatu bat sortzeko, kirol federatuaren, kirol diziplinaren eta kirolarien eskubideen defentsaren arloan eskuduna.

I. TITULUA

Helburua eta printzipio orokorrak

1. artikulua. Helburua eta aplikazio eremua.

Foru lege honen helburua da kirola arautu, antolatu, sustatu eta koordinatzea Konstituzioak eta gainerako ordenamendu juridikoaren barnean Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion eskumenen eremuan.

2. artikulua. Oinarrizko printzipioak.

1. Kirolari interes publikoko gizarte jardueraren maila aitortzen zaio bizi kalitatea goratu eta pertsonaren prestakuntza eta garapen integrala eta norberaren ongizatea bultzatzen dituelako.

2. Kirolak elkarbizitza ona, gizarte kohesioa eta barne-lotura eta guztien garapen ekonomikoa eta ongizatea sustatzen ditu.

3. Pertsona guztiek eskubidea dute libreki eta borondatez kirol egiteko, berdintasun baldintzetan eta inolako bazterkeriarik jasan gabe.

3. artikulua. Kirol politikaren helburuak.

Foru Komunitateko administrazio publikoek, zein bere eskumenen arloan, inolako bereizkeriarik gabe sustatu eta bultzatuko dute kirola honako helburuen peko kirol politika baten bidez:

a) Jendeari kirol egiteko bidea erraztea.

Errazte bide horretan lehentasuna emanen zaie kirolerako traba diren behar bereziak dituzten pertsonari, hala nola: zahar jendea, ezinduak, etorkinak eta egoera zaiean dauden gizataldeak.

Lehentasuna emanen zaio, halaber, emakume gutxi izaten diren kirol arloetan emakumeen presentzia handitzeari.

Lehentasuna emanen zaio guztientzako kirola sustatzeari, arreta berezia jarriz aisia betetzeko jarduera fisikoetan eta kirol jardueretan, kirola modu jarraian josteta eta jolaserako eta osasuna hobetzeko egin ahal izateko.

b) Goi mailako kirola bultzatzea.

c) Kirol elkarteak sortzera eta, oro har, gizarteak parte hartzera eta kirol arloko boluntarioak egotera bultzatzea, kirol elkarteetako egituren funtzionamendu demokratiko eta parte-hartzailea zainduz.

d) Bultzatzea eta zaintzea kirol jarduerak gertaleku duen inguruneak eta inguruabarrak pertsona batzuen ezaugarri berezientzat (adina, kondizio fisikoa, psikikoa edo pertsonala) egokiak izan daitezen.

e) Bultzatzea eta begiratzea gehienik adingabeentzakoak edo adingabeek parte hartzekoak diren jendaurreko ikuskizun eta jostetak pertsonaren garapen harmonikoa eta orekatua helburuarekin egin eta haurraren edo gaztearen gorpuzkera, gaitasun eta hezkuntza premien arabera izan daitezen.

Adingabeak babestuko dira eginahalean inork helburu gehienbat ekonomiko, politiko edo haien interesen kontrakoetarako erabiltzetik.

Gorputz eta kirol hezkuntza bultzatu, ezarri eta garatuko da maila, gradu eta hezkuntza modalitate guztietan, eta kirola eskola adinean sustatuko da jostetarako edo lehiarako gorputz- eta kirol-jarduerarekin.

f) Kirol jarduera eginahalean Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan zabaltzea.

g) Plangintza bat ezarri eta bultzatzea Foru Komunitatean kirol instalazioen sare bat ezarri eta mantentzea helburu.

h) Bultzatu eta begiratzea herritarrei ematen zaizkien kirol zerbitzuak gizarteari, boluntario lanari, administrazioari eta zergei buruzko arau indardunen arabera izan daitezen.

i) Bultzatu eta sustatzea kalitate sistemak ezar daitezen herritarrentzako kirol zerbitzuetan.

j) Eginahalean saiatzeko kirol jarduerak behar bezalako osasun eta segurtasun kondizioetan egin daitezen.

Alderdi hauek zainduko dira, besteak beste: istripuak galarazi, indarkeria desagertarazi, preskak eta gaikuntza teknikoak, arriskuak gutxitu eta kirolariak diruz eta osasunez aseguratuturik egotea.

k) Bultzatu eta begiratu da inguru naturalak egoki eta orekaz erabil daitezen zenbait kirolen gertalekutzat, uneoro zainduz kirol egitea eta ingurumena babestea bateragarriak izan daitezen.

l) Kirol autoktono edo tradizionalen bultzatzea.

m) Kirolaren eta kultura eta artearen arteko harremana eta lotura bultzatzea.

n) Kirolaren babes komertziala eta enpresen lankidetzaren erraztu eta bultzatzea kirol jardueren arloan.

ñ) Kirol zerbitzuen erabiltzaileak, administrazio publikoak eta enpresak bultzatzea elkar harturik kirol jardueren finantzazioan parte har dezaten.

o) Kirol jarduera kirolaren arloko etika printzipioen arabera izan dadin bultzatzea.

p) Foru Komunitatean garrantzizko kirol gertakariak egin daitezen bultzatzea.

q) Bultzatzea kirol gaitan koordinazioa eta lankidetzaren zintzoa egon dadin administrazio publikoaren barrenean eta administrazio publikoaren eta Foru Komunitatean kirola bultzatu eta garatzen esku hartzen duten beste erakunde publiko eta pribatuaren artean.

r) Behar diren neurriak hartzea kirol gertakari guztietako parte-hartzaileak arriskuetatik babesturik daudela bermatzeko.

s) Oinarrizko kirola eskola mailetatik sustatzea beste edozein kirol jardueraren gainetik, hori baita gakoak Nafarroako kirola maila guztietan garatzea.

t) Kirola ohitura osasuntsu gisa sustatzea, eta hori sustatzen duten kirol gertakari guztiak laguntzea.

u) Ezgaitasun fisiko, psikiko, zentzumenezko edo mistoak dauzkaten pertsonen kirol egin dezaten sustatzea, gizartean guztiz sarturik egon daitezela laguntzeko.

v) Behar diren neurriak hartzea kirola eta kirolariak babesteko helburu politikoak, ekonomikoak edo bestelakoak direla-eta gertatzen den gehiegizko esplotaziotik.

4. artikulua. Lankidetzaren printzipioak.

Kirolak Nafarroan izan den antolaketa instituzionala administrazio-koordinazioaren, entitate publiko edo pribatuarekin lankidetzaren aritzearen eta horietan parte hartzearen printzipioei jarraituko zaie.

II. TITULUA**Administrazioaren antolamendua eta eskumenak****I. KAPITULUA****Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak**

5. artikulua. Nafarroako Gobernuaren eskumenak.

Hona Nafarroako Gobernuaren eskumenak:

a) Foru Komunitateko Administrazioaren kirol politikaren lerro nagusiak ezartzea.

b) Foru Komunitatean egiten diren kirol jarduerak definitu eta antolatzea, beti gizartearen premien arabera izan daitezen, gure ordenamendu juridikoaren beste ataletako arau-aldaketan arabera eta jardura horietako osagai guztien benetako eskaeren arabera.

c) Nafarroako kirol erakundeen eta Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroaren araubide orokorra onestea.

d) Nafarroan goi mailako kirola arautzea, foru lege honek agintzen duenari begira.

e) Kirol gaitetako zehapen eta diziplina araubidea arautzea kirol modalitateen berezitasunen arabera.

f) Jendaurreko kirol ikuskizunen eta jardueren araubide orokorra arautzea.

g) Erabakitzea zer baldintza bete behar dituzten Foru Komunitateko erabilera publikoko kirol instalazioek, publikoak nahiz pribatuak, egokiak izateko, eta kirol instalazioetan segurtasun arauak hertsiki betetzen diren kontrolatzea, Foru Administrazioako beste erakundeen eta toki entitateen eskumenen kalterik gabe.

h) Kirol teknikarien prestakuntza garatu eta arautzea.

i) Foru Komunitateko kirol sariak eratu eta arautzea.

j) Foru lege honek edo gainerako ordenamendu juridikoak egozten dizkion beste guztiak

6. artikulua. Foru Komunitateko kirol administrazioako eskumenak.

1. Foru Komunitateko kirol administrazioa erakunde autonomotzat eratu ahal izango da, eta hari dagokio Nafarroako Gobernuaren kirol gaitetako politika planifikatu eta betearaztea, Nafarroako Gobernuan kirol gaitetako eskumenak esleiturik

dauzkan departamentuko titularrak goragoko planifikatzaile, zuzendari eta begirale duela.

2. Hona Foru Komunitateko kirol administrazioaren eskumenak:

a) Nafarroako kirol erakundearen Erregistroa kudeatzea.

b) Baimena ematea Nafarroako kirol federazioak eratu eta haien estatutu eta erregelamenduak onets daitezen.

c) Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean dauden kirol modalitateei eta espezialitateei aitormena ematea.

d) Begiratzea kirolaren arloko arauak ezartzen dituzten baldintzak bete daitezen elkarrekin eta beste erakundeekin aitormena eman ahal izateko, foru lege honek agintzen duenari begira.

e) Eginkizun publikoak betetzen ari direnean Nafarroako kirol federazioak koordinatu eta begiratzea eta, hala behartzen bada, Nafarroako beste kirol erakunde batzuk ere bai haien jardura pribatua ezertan eragotzi gabe.

f) Nafarroako lehiaketa ofizialen antolamendua arautu, sailkatu eta gainbegiratzea.

g) Nahitaezko eskolaren adinekoren Nafarroako kirol lehiaketa ofizialak antolatzea eta antolatze baimena ematea.

h) Foru Komunitateko unibertsitateen arteko kirol jarduerak sustatu eta koordinatzea.

i) Nafarroako kirol federazioen bidez eta hala bide denean Nafarroako beste kirol erakunde bidez, Nafarroako selekzioak osatzen dituzten kirolariak izendatzea.

j) Nafarroako lehiaketa ofizialen eta Nafarroako selekzioen sinbolo eta ikur bereizgarriak onestea.

k) Nafarroako goi mailako kirolariak kalifikatzea.

l) Nafarroako goi mailako kirola gainbegiratu eta begiratzea, foru lege honek agintzen duenari begira.

m) Kirolaren arloko dopajea galarazi eta kontrolatzea, kirol federazioak, Estatuko Administrazioa eta hala bide denean beste erakunde publiko eta pribatuak lagun.

n) Ohiz gainekotzat jotako jendaurreko ikuskizun eta jarduerentzako baimena ematea.

ñ) Kirol gaitetako ikerketa zientifikoa eta kirolarien kontrol medikoa eta osasun kondizioen hobekuntza bultzatzea.

o) Kirola laguntzak eta dirulaguntzak emanaz sustatzea.

p) Kirol jarduerak interes sozialekotzat deklaratzeko tokatzen diren zerga kenkariei begira.

q) Esleitu zaizkien kirol instalazio eta zentroak antolatu eta kudeatzea, eta bai haietan egiten diren inbertsioak ere.

r) Kirol instalazioetarako plan zuzentzaileak idatzi eta kudeatzea.

s) Nafarroako kirol instalazioen errolda kudeatzea.

t) Kirol gaietako zehapen eta diziplina ahalmena erabiltzea, foru lege honetan eta haren garabideko xedapenekin bat.

u) Nafarroako Kirol Justiziako Batzordearen kideak izendatzea.

v) Foru lege honetako hirugarren artikuluan jasotzen diren helburuak iristen eta gauzatzen laguntzen duten berariazko programak onetsi eta betearaztea.

w) Foru lege honek eta haren garabideko xedapenek egozten dizkieten beste guztiak.

3. Foru Komunitateko kirol administrazioa antolatzeke eta jarduteke, kasuko erregelamenduen arauak hartuko dira aintzat.

II. KAPITULUA

Nafarroako udal eta kontzejuen eskumenak

7. artikulua. Nafarroako udal eta kontzejuen eskumenak.

Lege orokorrek egozten dizkieten autonomia eta ahalmenen barruan, eta Nafarroako toki erakundeei buruzko foru legeek agintzen dutenarekin bat, hona hemen Nafarroako udal eta kontzejuen eskumenak:

a) Kirolaren arlorako beren administrazio egitura ezartzea.

b) Kirol jarduerak bultzatzea.

c) Bertako kirol elkarteak sortzera bultzatzea.

d) Foru Komunitateko Administrazioarekin lan-kide aritzea eskola adineko umeen kirol jarduera eta guztientzako kirola bultzatzen.

e) Kirol instalazioak eraiki eta gizartearen ekimena halakoak eraikitzen bultzatzea.

f) Toki entitateen mailako kirol lehiaketak kalifikatu eta antolatzea.

g) Ordenamendu juridikoarekin bat esleitu edo delegatzen zaizkion beste guztiak.

III. KAPITULUA

Nafarroako Kirol Kontseilua

8. artikulua. Zer den eta zer eginkizun dituen.

1. Nafarroako Kirol Kontseilua Foru Komunitateko Administrazioak kontsulta egin eta aholku hartzeko organo kolegiatua da, kirolari eta Nafarroan kirola garatzeko gizartearen parte-hartzeari buruzko gaietarako.

2. Nafarroako Kirol Kontseilua honako helburuak iristeko sortzen da:

a) Kirol gaietako eztabaidagune jantzia eta gizartearen islagarria dena sortzea.

b) Gizartea bultzatzea kirol gaietako politika orokorra itxuratzen eta kirola Nafarroan garatzen parte hartzera eta elkar eragitera.

3. Nolanahi ere eta erregelamenduak esleitzen dizkion eginkizunak ezertan galarazi gabe, hona organo honen eginkizunak:

a) Kirol gaietako foru legeen aurreproiektuen eta kirol gaietako betearazte erregelamendu orokorren gaineko txostenak egitea, nahitaezkoak baina ez lotesleak.

b) Kirol gaietako proposamenak eta iradokizunak egitea Foru Komunitateko Administrazioari eta, kasu bada, haiek eskatuta, gainerako administrazio publikoei eta, oro har, Nafarroan kirola bultzatu eta garatzen esku hartzen duten entitate edo pertsonen.

9. artikulua. Antolaketa eta funtzionamendua.

1. Nafarroako Kirol Kontseilua, organikoki, Foru Komunitateko kirol administrazioari atxikia da.

2. Erregelamenduak ezarriko du Nafarroako Kirol Kontseilua nola antolatu, osatu eta aritu.

3. Nafarroako Kirol Kontseilua plurala izanen da. Betiere honakoek izanen dituzte ordezkariak bertan: Foru Komunitateko kirol eta hezkuntza administrazioa, toki erakundeak, kirol erakundeak, Nafarroako unibertsitateak, kirolariak eta kirol arloan itzal zabala duten beste pertsonak.

4. Nafarroako Kirol Kontseiluko karguak oheretako izanen dira eta xedapen indardunen arabera zor diren dietak beste dirurik ez dute sortuko.

5. Nafarroako Kirol Kontseiluak jardun dezan, berariazko aurrekontu saila ezarriko da.

III. TITULUA Kirol jarduerak

I. KAPITULUA Guztientzako kirol jarduera

10. artikulua. Kirolaren definizioa.

Kiroltzat hartuko dira helburu gisa antolaturiko edo beste nolabaiteko parte hartzearen bitartez egoera fisiko eta psikikoaren adierazpide edo hobekuntza, harreman sozialen garapena edo maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzea daukaten jarduera fisikoak.

11. artikulua. Guztientzako kirol jarduera.

1. Guztientzako kirol jardueratzat hartuko da, foru lege honek agintzen duenari begira, helburu nagusia bizitzaren kalitatea hobetzea duen kirol eiteko edozein ariketa fisiko, hartarako bidea dela gaitasun funtzional fisiko eta psikikoa eta gizarte harremanak hobetzea.

2. Guztientzako kirol jardueraren osagai nagusia josteta eta ariketa fisikoa eta ohitura osasun-garrii bultzatzea izanen da.

3. Kirol administrazioak guztientzako kirol jarduera sustatuko du, eta jarduera fisiko libre eta bat-batekoa eta jarduera antolatua erraztuko ditu; halaber, prestakuntzako, sormeneko, gizarteak parte hartzeko, oneratzeko fisikoko eta mantentzeko jarduera ahalik eta gehien eskainiko ditu, Nafarroako herritar guztiek bizi-kalitate hobea izan dezaten.

12. artikulua. Ezgaituen bizi kalitatea.

Kirol administrazioak behar diren kirol jarduerak eta gorputz hezkuntza sustatuko ditu ezgaituentzat, eta arlo horretako adituen prestakuntza sustatuko du, haien bizi kalitatea hobetzeko.

II. KAPITULUA Eskola adineko kirola

13. artikulua. Eskola-kirola.

1. Foru lege honen ondorioetarako, eskola adineko kirol jardueratzat hartuko da antolaturiko kirol-ekintza, eskola-umeek eta gazteek eskola-orduek kanpo egina baldin bada.

2. Eskola-kiroltzat hartuko da haur eta gazteek ikastetxe guztietan, publiko nahiz pribatuetan, haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta lanbide heziketako maila guztietan, eskola orduek kanpo egiten duten kirol eiteko ariketa fisiko antolatua.

14. artikulua. Eskola adineko kirola bultzatzeko programak.

1. Foru Komunitateko kirol administrazioak eskola adineko kirola bultzatzeko programak egitea sustatuko ditu, Foru Komunitateko hezkuntza administrazioa, toki erakundeak, Nafarroako kirol erakundeak eta, hala behartzen bada, beste erakunde publiko eta pribatuak lagun.

2. Hezkuntza administrazioak, eskola adineko kirola bultzatzeko programak sustatu eta antolatuko ditu, kirol administrazioa, toki erakundeak, kirol erakundeak, ikastetxeak, guraso elkarteak edo beste erakunde publiko eta pribatuak lagun.

3. Programen jomuga izanen da eskola-hezkuntza integralaren, nortasunaren garapen orekatuaren, baldintza fisikoen eta osasun ohitura prebentiboen osagarri izatea. Halaber, hezkuntza behar bereziak daukaten eskola-ikasleak integratzen aurrerikusi eta sustatu beharko dute.

4. Hezkuntza administrazioak, osasun administrazioarekin lan eginez, zainduko du ikasleek kirol jardueretan erabiltzen dituzten kirol instalazioek eskatutako baldintzak betetzen dituztela.

15. artikulua. Ikastetxeetako kirol-klubak.

1. Ikastetxeek kirol-klubak sortzen ahal dituzte ikastetxean, kirola sustatu eta garatzeko, horrela, eskola adineko umeen artean.

2. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak behar diren baldintza ekonomiko eta giza-baldintzak jarriko ditu horretarako, bai eta erregelamenduz arautu ere funtzionamenduari buruzko bestelako alderdiak.

3. Ikastetxeetako kirol-klubek lehiaketa federatuetan parte hartzen ahal dute.

16. artikulua. Osasun-kontrola

Ikastetxeetan kirolean aritzen diren guztien osasun-kontrola arautuko du Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak.

17. artikulua. Babesa eta lankidetzak.

1. Foru Komunitateko Administrazioak antola eta muga dezake Nafarroako kirol erakundeek noraino duten zilegi 16 urtez beherako kirolarien prestakuntzaren aldera eskubideak edo beste edonolako diruordainak jasotzea.

2. Udaletako kirol-programak eta eskola adineko lehiaketa ofizialak antolatzen eta gauzatzen kirol-federazioek laguntza tekniko eta kirolezkoa eman ahal izanen dute.

3. Udalek lagunduko dute, nagusiki udaletako kirol-ekipamenduak erabiltzen utziz, eskola adine-

ko kirol-programak eta eskola adineko lehiaketa ofizialak behar bezala burutzeko.

4. Foru Komunitateko administrazioa kirol-erakundeekin eta ikastetxeekin lankidetzan arituko da eskola adineko kirol-programak eta eskola adineko lehiaketa ofizialak egiteko beharrezkoak diren erabilera anitzeko kirol-instalazioak eta materiala eduki ditzaten.

III. KAPITULUA Unibertsitateko kirola

18. artikulua. Unibertsitateko kirola.

1. Unibertsitateko kiroltzat hartuko da, foru lege honek agintzen duenari begira, unibertsitate komunitateko kideek soilik egiten duten kirol eiteko ariketa fisikoa, Nafarroako unibertsitateek onetsi dituzten kirol programen arabera.

2. Legeak unibertsitateei esleitzen dizkien autonomia eta eskumenen barrenean, unibertsitatei dagokie beren eremu jakin eta propioan kirol jarduerak antolatu eta bultzatzea, bidezko iruditzen zaizkien programak eta antolamendu egitura erabiliz eta Foru Komunitateko Administrazioak unibertsitateen arteko kirol jardueren arloan dituen eskumenak ezertan galarazi gabe.

19. artikulua. Lankidetzak.

1. Foru Komunitateko kirol administrazioak zilegi izanen du kirol jarduerak bultzatzeko Nafarroako unibertsitateak lankide erabiltzea.

2. Unibertsitateen arloan eratzen diren kirol klubek edo kirol-elkartek eta kirol-taldeek, federazio mailako lehiaketa ofizialetan parte hartu nahi badute, Nafarroako Gobernuak Kirol Entitateen Erregistroan eman beharko dute izena, eta dagokien federazioan afiliatu beharko dira.

IV. KAPITULUA Goi mailako kirola

20. artikulua. Goi mailako kirola.

Goi mailako kiroltzat hartuko da, foru lege honek agintzen duenari begira, administrazio publikoek beren eskumenen arloan halakotzat jotzen duten kirol eiteko ariketa fisikoa, ariketa horrek kasuko komunitateari egiten dion onurak aintza hartuta.

21. artikulua. Nafarroaren eremuko goi mailako kirola.

1. Nafarroako goi mailako kiroltzat hartuko da Nafarroan kirola garatzeko faktore funtsezkoa izan eta Nafarroa Estatuan eta nazioartean ordeztu eta goratzen duena.

2. Nafarroako Gobernuak arautuko du zer baldintzatan emanen zaien kirolariei "Nafarroako goi maila" hori, honako irizpideen arabera:

a) Kirol eta teknika irizpideak.

b) Zer nolako ordezkari eta goresmena sortzen duten Estatuan eta nazioartean.

c) Erregelamenduak ezartzen dituen beste irizpide guztiak.

3. Kalifikazio hori bereganatzen duten kirolarier zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4. Nafarroako goi mailako kirolaren kontzeptua, ondorio hauetarako, adiera zabalean ulertu behar da: kirolari, teknikari, epaile eta kirolarekin lotura zuzena duten beste pertsonak ere barne hartuta, erregelamenduak ezartzen duen moduan.

5. Nafarroako goi mailako kirolaritzat hartuko dira, betiere, Estatuak arauen arabera goi mailakotzat deklaratu diren kirolariak, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 5. artikulua arabera nafarrak badi-ra, edo nafartasun zibila badute.

22. artikulua. Nafarroako goi mailako kirola bultzatzea.

1. Foru Komunitateko Administrazioak bultzatu eta sustatuko du Nafarroako goi mailako kirola, hala bide denean Estatuak administrazioa lagun duela.

2. Foru Komunitateko kirol administrazioak zilegi izanen du Nafarroako goi mailako kirola bultzatzea besteak beste honako neurriak hartuz:

a) Beren kirol dohain eta dohain teknikoengatik kirolerako potentzial eta proiektio handia ageri duten kirolariak atzeman eta bultzatzeko programak onestea.

b) Prestakuntza eta formazio tekniko espezializaturako programak onestea, hala bide denean Nafarroako kirol erakundeak lagun.

c) Kirola eta eginkizun akademiko, personal eta lanekoak bateratu ahal izateko neurriak hartzea.

d) Nafarroako goi maila aitortu zaien kirolarientzako programak egin eta dirulaguntzak ematea.

e) Nafarroako goi maila aitortu zaien kirolariei lan intregazio osoa errazteko programak onestea.

f) Hitzarmen juridiko-administratiboak egitea Nafarroako unibertsitateek emendiozko ikastokiak ezar ditzaten Nafarroako goi mailako kirolariei unibertsitate ikasketetan sarrera emateko, betiere

kirolari horiek beharrezko ikasketa baldintzak betetzen badituzte.

g) Nafarroako goi mailako kirolarien kontrol edo jarraipen medikoa erraztuz.

h) Erregelamendu bidez ezartzen direnak edo foru lege honek agintzen dituenak betearazteko behar direnak.

3. Foru Komunitateko Administrazio publikoek, "Nafarroako goi mailako" kalifikazio hori merezimendutzat hartzen ahalko dute bai kirolarekin lotura duten lanpostuen hauta probetan eta bai kirolarekin lotura duten lanpostuak betetzeko lehiaketetan, betiere berariazko merezimenduen balorazioa aurreikusten bada.

V. KAPITULUA

Inguru naturaletako kirola

23. artikulua. Inguru naturaletako kirola.

Foru Komunitateko kirol administrazioak, Foru Komunitateko administrazioako departamentua lagun, lurraldearen antolamendua, hirigintza eta ingurumena arautzeko eskumena baitu, eginahala egingen du informazio gaurkotua zabal dadin natur ingurunean kirol egiteko dauden debeku, murriztapen eta baldintzen gainean, eta, halaber, horiek zorrozki bete daitezen behatuko du.

VI. KAPITULUA

Kirol lehiaketak

24. artikulua. Kirol lehiaketen sailkapena.

Foru Komunitateko lurraldean egiten diren kirol lehiaketak, foru lege honek agintzen duenez, honela sailkatzen dira:

a) Eremuari dagokionez: nazioartekoak, nazionalak, autonomien artekoak, Nafarroa barnekoak eta lokalak.

b) Izaerari dagokionez: ofizialak ala ez ofizialak, profesionalak ala ez profesionalak.

c) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste kategoriak, kontuan harturik gizartearen premiak zein diren, zer aldaketa izan diren ordenamendu juridikoaren beste arloetan, eta kirol jardueraren kide diren beste osagaien benetako eskaera zein den.

25. artikulua. Nafarroa barneko kirol lehiaketa ofizialak.

1. Foru Komunitateko kirol administrazioak halakotzat kalifikatzen dituenak izanen dira Nafarroa barneko kirol lehiaketa ofizialak, kontuan harturik lehiaketak zer osagai dituen, non eta noiz

gertatzen den, Nafarroako gizartea noraino islatzen edo sustatzen duen, eta erregelamendu bidez ezartzen diren beste irizpide guztiak.

2. Nafarroa barneko kirol lehiaketa ofizialak kalifikatzeko irizpideak erregelamendu bidez ezarriko dira.

3. Betiere hauek hartuko dira Nafarroa barneko kirol lehiaketa ez profesionaltzat:

a) Nafarroako kirol federazio baten erregulazio teknikoaren eta antolamenduaren pean egiten direnak, kasuko kirol modalitatean Nafarroako txapeldun titulua edo antzeko kirol aitormen gorena eskuratzeko bide ematen dutenak.

b) Nafarroako unibertsitate txapeldunaren titulua edo antzeko kirol aitormen gorengoa eskuratzeko bide ematen dutenak Nafarroako unibertsitateen arteko kirol lehiaketen arloan.

4. Nafarroa barneko kirol lehiaketa ofizialetan parte hartu nahi duenak hartarako gaitasuna ematen duen lizentzia edo dokumentua eduki behar du, erregelamendu bidez ezartzen diren modu eta baldintzetan.

26. artikulua. Nafarroa barneko kirol lehiaketa ofizialen izena eta ikur bereizgarriak.

1. Nafarroa barneko kirol lehiaketa ofizialetan zilegi izanen da ikur bereizgarritzat Nafarroako armarria eta bandera erabiltzea.

2. Ez da zilegi izanen edozein eremutako kirol lehiaketa ez ofizialen izena eta ikur bereizgarriak Nafarroa barneko kirol lehiaketa ofizialetan erabiltzen direnak berak izatea, ez eta haiekin nahasgarri izateko bezain antzekoak.

27. artikulua. Lehiaketako bermeak.

1. Kirol-lehiaketa ofizial guztietan behar diren neurriak hartuko dira ondokoak bermatzeko:

a) Kirol-praktikak berekin dakartzan arriskueta-tik babestea, bai osasunaren arloan eta bai erantzukizun zibilaren arloan ere.

b) Legezkoak ez diren praktikak kontrolatzea eta haien aurka borrokatzea, kirolarien errendimendua areagotzeko.

c) Diziplina-araubidea lege honetan eta hura garatzeko xedapenetan ezarritako baldintzetan aplikatzeko behar diren bideak.

d) Parte-hartzaile aktibo nahiz pasiboen edozein bortxazko agerpeni aurrea hartzeko behar den segurtasuna.

e) Kirol-jardueran aritzeko kontratu bat eskatzea, erantzukizun zibila betetzeko, jarduerak hirugarrenentzat arriskurik sortzen duen guztietan.

VII. KAPITULUA Nafarroako selekzioak

28. artikulua. Nafarroako selekzioak.

1. Nafarroako selekziotzat hartuko dira, foru lege honek agintzen duenari begira, ordenamendu juridiko indardunaren barrenean, edonolako kirol jarduera edo lehiaketetan Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkari aritzeko izendatzen diren kirolari taldeak.

2. Nafarroako selekzioetarako deitzen bazaie, kirolari federatuak loturik daude agertzera, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

3. Nafarroako kirol erakunde federatuak behar turik daude beren kirolariak lagatzera Nafarroako selekzioak osatzeko, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

4. Foru Komunitateko Administrazioak kirolariak bultzatuko ditu Nafarroako selekzioetan parte hartzera.

5. Nafarroako selekzioek zilegi izanen dute ikur bereizgarritzat Nafarroako armarrria eta bandera erabiltzea.

6. Ez da zilegi izanen Nafarroako kirol erakundeetako kiroltaldeen ikur bereizgarriak Nafarroako selekzioek erabiltzen dituztenak berak izatea edo nahasgarri izateko bezain antzekoak.

VIII. KAPITULUA Jendaurreko kirol ikuskizun eta jarduerak

29. artikulua. Kasurako araudi orokor eta sektoriala.

1. Oro har, eta foru lege honek berariaz arautzen dituenak ezertan galarazi gabe, jendaurreko ikuskizunei eta josteta jarduerari buruz Nafarroan indar duten arauak gobernatzen dituzte jendaurreko kirol ikuskizun eta jarduerak.

Hartarako, zilegi izanen da erregelamendu bidez ezartzea zer baldintza eta eginbehar bete behar dituzten nahitaez jendaurreko kirol ikuskizun eta jarduerak.

Erregulazio honek honakoak uki ditzake:

- a) Tipologia.
- b) Kirol eta teknika baldintzak.
- c) Segurtasun eta higiene baldintzak.
- d) Arriskuen asegurua.

e) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste guztiak.

2. Jendaurreko kirol jardueraren kontzeptua, foru lege honek agintzen duenari begira, adiera zabalean interpretatuko da, jende etorrera libreko edozein kirol jarduera, alegia.

30. artikulua. Adingabeentzako jendaurreko kirol jarduerak.

1. Adingabeentzako kirol jarduera jendaurreko-tzat hartuko dira, foru lege honek agintzen duenari begira, gehienbat adingabeentzakoak edo adingabeek parte hartzekoak direnak.

Adingabeak dira Estatuan gai horretan indar duten arauak halakotzat hartzen dituztenak.

2. Nafarroako Gobernuak, gaiaren gaineko araudi orokorra aplikatzea ezertan galarazi gabe, arautuko du Nafarroan adingabeentzako kirol jarduera jendaurrekoak egiteko araubidea.

3. Arautze lan horretan honakoak sartu ahalko dira:

- a) Kirol jardueren tipologia.
- b) Kirol jarduera gertatzen den eremu, zentro edo lokaletako kondizio fisiko-ambientalak eta osasun higienekoak.
- c) Kirol jarduera hotsematen duten langileen baldintzak eta betebeharrak.
- d) Jardueraren teknika eta kirol kondizioak, adingabearen heziketaren eragile izan daitezen saiatu eta bultzatzeko.

e) Ordenamendu juridikoak adingabeei aitortzen dizkien eskubideak bete daitezen segurtatzeko bultza egiten duten beste baldintza guztiak.

31. artikulua. Administrazioaren baimen berezia.

1. Zilegi izanen da jendaurreko kirol ikuskizun eta jarduera batzuk erregelamendu bidez ohiz gainekotzat kalifikatzea, delako kirol ikuskizun eta jarduerak izan ditzakeen berariazko arriskuak, gizartean izaten duen oihartzuna, gertaleku duen ingurunea eta antzeko beste ohiz gaineko inguruabarrak kontuan harturik.

2. Foru Komunitateko kirol administrazioari dagokio ohiz gainekotzat jotako jendaurreko kirol ikuskizun eta jarduerari baimena ematea.

3. Betiere hauek hartzen dira ohiz gaineko kirol jardueratzat:

a) Gehienik adingabeentzakoak edo adingabeek parte hartzekoak diren jendaurreko kirol ikuski-

zun eta jarduerak, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

b) Beste autonomia erkidego bateko lehiaketa ofizialak, Foru Komunitateko lurraldean egiten direnean.

32. artikulua. Jendaurreko kirol ikuskizun eta jarduera arriskutsuak.

Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du Foru Komunitateko lurraldean oro har debekatzea pertsonen osasunarentzat arrisku larria dakarten jendaurreko kirol ikuskizun eta jarduerak.

IX. KAPITULUA

Kirol jardueren sustapena

33. artikulua. Kirol jardueren sustapena.

Foru Komunitateko administrazioak honako bideen bitartez bultzatuko du kirola:

a) Laguntza eta dirulaguntzetarako araubide bat ezarri.

Kirol gaietako dirulaguntzak arautzeko oinarrietan zilegi izanen da aurreikustea dirulaguntza emateko prozedura bukatzeko Administrazioaren eta interesatuen arteko ituna erabiltzea.

Kirol gaietako dirulaguntzak arautzeko oinarrietan zilegi izanen da toki erakundeentzat aparteko tratamendua aurreikustea, kontuan harturik kasuko toki erakundeek baliabide aprobetxamendua plangintza orekatua duten, haien kokaera geografikoa, populazioa eta antzeko ezaugarriak.

Foru Komunitateko kirol administrazioak zilegi izanen du Nafarroako kirol federazioei eta Nafarroako unibertsitatei dirulaguntzak ematea. Hartarako, dirulaguntza horien oinarrietan ezarri bezalako lankidetzat itun edo hitzarmenak erabili dira.

b) Kirolaren babes komertziala nola sustatu.

Publizitate gastuen aldera diru kopuruak pagatzen direnean, eta gastu horiek Foru Komunitateko kirol administrazioak interes sozialekotasun deklaratu dituen jarduerak helburu dituzten babes komertzialeko kontratuek sortutakoak badira, zilegi izanen da diru horrekin kuotan kenketa egitea, Sozietateen gaineko Zerga eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen dituzten Nafarroako arauak agindu bezalako moduan eta portzentajea.

c) Interes orokorreko jardueretan lankidetzat hitzarmenak sustatzea.

Fundazioen eta babes jardueren zerga araubideari buruzko Nafarroako araukin bat, interes

orokorreko jardueretan hitzarmenengatik pagatu diren diru kopuruak, Nafarroako Gobernuak interes sozialekotasun deklaratu dituen jarduerak helburu badituzte, eskubidea emanen dute kuotan kenketa egiteko, Nafarroan Sozietateen gaineko Zerga eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen dituzten arauak agindu bezalako moduan eta portzentajea.

IV. TITULUA

Nafarroako kirol erakundeak

I. KAPITULUA

Nafarroako kirol klubak

34. artikulua. Kontzeptua.

Kirol klubtzat hartzen dira, foru lege honek agintzen duenari begira, irabazi asmorik gabeko elkarte pribatuak, nortasun juridikoa eta egintzarako ahalmena eduki eta helburutzat kirol jarduerak sustatzea eta egitea dutenak.

35. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Elkarte-eskubidearen gaineko araudiak agintzen duena ezertan galarazi gabe, kirol klubak beren estatutuen eta barne araubideko araudi berariazkoen arabera, eta beren gobernu organoek hartutako erabaki baliozkoen arabera gobernatuko dira beren erabide, aitormen ofizial, desegite, antolamendu eta jardunbideari dagokion guztian.

2. Kirol klubak Nafarroako kirol federazioetan sartzen badira, sartzeko horrek federazioaren estatutu eta araudiak onartzea dakar berekin.

36. artikulua. Aitormena.

1. Kirol klubei Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzean emanen zaie aitormena foru lege honek agintzen duenari begira.

2. Kirol klubek, hartarako, eskatu beharko dute Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea erregelamendu bidez ezartzen den modu eta epean.

3. Kirol klub bat eratzean honako baldintzak bete beharko dira foru lege honek agintzen duenaren arabera aitormena emanen bazaio:

a) Klubaren sorrerako akta, erregelamenduak gutxienez ezartzen duen kide sortzaile kopuruak sinatua, zeinean jasoko baita kide horiek elkarte bat sortu nahi dutela kirol jarduerak sustatu eta egiteko, eta beren borondatez men egiten diotela kirolaren arloko araudiari.

b) Kideek klubaren estatutuak onestea. Elkarrean estatutuek erregelamendu bidez ezartzen diren gaiak arautu beharko dituzte.

37. artikulua. Barne egitura eta jarduna.

1. Batzar orokorra eta presidentea izanen dira kirol klub enbarnu organo beharrezkoak.

2. Elkartaren estatutuek beren gobernu organoen erabidea, osaera, deialdi egiteko modua eta jardunbidea arautuko dituzte eta zuzendari eta kideen erantzukizun araubidea, foru lege honen garabideko xedapenekin bat.

38. artikulua. Interes publikoaren deklarazioa eta zerga araubidea.

Erregelamendu bidez ezarriko da zer baldintza eta prozedura bete behar dituzten interes publikokotzat deklaratu diren Nafarroako kirol klubek Fundazio eta babes komertzialari buruzko Nafarroako arauetan aurreikusten den araubide berezian sartzeko; erregelamendu bidez finkatuko ere dira elkarte horiek Sozietateen gaineko zerga eman beharrezkin lotura duten beste kontu guztiak.

II. KAPITULUA**Nafarroako Kirol Klub filialak****39. artikulua.** Kontzeptua.

1. Zilegi izanen da nortasun juridiko propioa, egintzarako ahalmen osoa eta helburutzat besteak beste kirola sustatzea duten erakunde publiko eta pribatuak edo haiek antolatzaile eta hotsemaile pertsona fisikoak kirolean aritzeko bide ematen dutenak Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzea, foru lege honen eta haren garabideko xedapenen berariazko onurak beretu nahi badituzte.

2. Erakunde horiek, "kirol klub filiala" delako deiturarekin sartuko dira Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan, ondolik erakundearen izen orokorra datorrela.

40. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan kirol klub filiala deiturapean sartzen diren erakundeak beren gaineko araudi berariazkoaren arabera gobernatuko dira, foru lege honetatik aplikatzeko zaizkien arauak aplikatzea ezertan galarazi gabe.

2. Erakunde horiek, aitormen ofizialari, kirolarien antolamendu eta jardunbideari eta kirol jarduerari dagozkien kontu guztietan foru lege honen eta haren garabideko xedapenen arabera gobernatuko dira.

3. Erakundeak Nafarroako kirol federazioetan kirol klub filial gisa sartzeko berez dakar federa-

zioetako estatutu eta araudiei aitormena eman eta men egitea.

41. artikulua. Aitormena.

1. Kasuko erakundeek, foru lege honek agintzen duenari begira, Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzean hartuko dute aitormena.

2. Erakundeek, hartarako, erregelamendu bidez ezartzen den epe eta moduan eskatu beharko dute Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzea.

3. Erakunde bat Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan kirol klub filial gisa inskribatzeko, beti beharko da erakunde horretako organo eskudunak sinatutako erabakia, zeinean jasotzen baita erakundeak erregistroan inskribatu nahi duela foru lege honek agintzen duenerako eta espreski eta bere borondatez men egiten diola kirolaren arloko araudiari, gaiaren arabera aplikatzekoa den guztian.

III. KAPITULUA**Nafarroako kirol federazioak****42. artikulua.** Kontzeptua.

1. Nafarroako kirol federazioak, foru lege honek agintzen duenari begira, elkarte gisako eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak dira, helburu nagusitzat Foru Komunitateko lurraldean aitormena duten kirol jarduerak sustatu eta gartztea dutenak.

2. Kirol federazioetan kirol klubak, kirol klub filialak, kirolariak, teknikariak, juezak edo jokozainak eta, hala bide denean, kasuko kirol modalitateak bultzatu, egin edo gartzten laguntzen duten beste talde guztiak sartzen dira.

3. Nafarroako kirol federazioek nortasun juridiko propioa eta bere helburuak iristeko egintza ahalmen osoa dute.

4. Nafarroako kirol federazioek, berezko egin-kizunez gain, administrazio kutsuko eginkizun publikoak ere hartzen dituzte delegazioz, eta kasu horretan Foru Komunitateko Administrazioaren lankide aritzen.

5. Foru Komunitatearen esparruan, kapitulu honetan agintzen denaren arabera eraturako elkarteei baizik ez zaie emanen Nafarroako kirol federazioaren izena.

43. artikulua. Eratzeko baimena.

1. Nafarroako kirol federazio bat osatzearen helburua kirol modalitate berria izan daiteke edo

Foru Komunitatearen lurraldean lehendik aitormena zuen kirol modalitatea.

2. Nafarroako kirol federazio bat eratzeko aurrez Foru Komunitateko kirol administrazioaren baimena beharko da.

3. Honako irizpideak hartuko dira aintzat kirol modalitate berriak helburu dituzten kirol federazioak eratzeko administrazio baimena eman ala ukatzeko:

a) Delako kirolak nortasun berezia izatea Foru Komunitatean lehendik aitormena zuten kirol modalitateen alderako.

b) Delako kirola gobernatzeko, kirol komunitatearen gehiengoak onartutako arau tekniko batzuk egotea.

c) Delako kirol modalitateak Estatuan, autonomia erkidegoetan edo nazioartean aitormena izatea.

d) Delako kirol modalitateak Foru Komunitatean benetan erro egina eta ohikoa izatea.

e) Proposatzen den kirol federazioa diruz eta antolamenduz bideragarria izatea.

f) Delako kirolaren interes orokorra.

g) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste irizpide eta baldintzak.

4. Honako irizpideak hartuko dira aintzat administrazio baimena eman ala ukatzeko Foru Komunitatean lehendik aitormena zuten kirol modalitateak helburu dituzten kirol federazioei:

a) Delako kirol jarduerak Foru Komunitatean benetan erro egina eta ohikoa izatea.

b) Proposatzen den kirol federazioa diruz eta antolamenduz bideragarria izatea.

c) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste irizpide eta baldintzak.

5. Administrazio baimena erakundearen sustatzaileek eskatuko dute, batzorde kudeatzaile gisa eraturik, erregelamendu bidez ezartzen den modu eta epean.

6. Kirol federazioa eratzeko baimen-eskaera espreski ebazteko dagoen luzeneko epea iragan eta halako ebazpenik jakinarazi ez bada, ukatu dela ulertuko da.

7. Foru Komunitateko administrazioak zilegi izanen du kirol jarduerak edo kirol modalitateak bultzatzea lehendik eratutako Nafarroako kirol federazio batean integratzera.

44. artikulua. Aitormena.

1. Nafarroako kirol federazioek, foru lege honek agintzen duenari begira, Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzean hartuko dute aitormena.

2. Hartarako Nafarroako kirol federazioek erregelamendu bidez ezartzen den epe eta moduan eskatu beharko dute Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzea.

3. Nafarroako kirol federazio bat eratzeko, honako baldintzak bete beharko dira:

a) Aurrez Foru Komunitateko kirol administrazioaren baimena izatea.

b) Sorrerako akta eta elkartearen estatutuak, betiere erregelamenduak gutxieneko kopurutzat ezartzen duen Nafarroako kirol klubek sinatuak.

Zilegi izanen da kirol jarduera desberdinen berezitasunak eta ezaugarriak aintzat hartzea, finkatzeko zenbat klubek sinatu behar dituzten sorrerako akta eta estatutuak. Kirol klub horiek betiere helbidea Nafarroan daukatenak eta kasuko kirolaren arloan aritutakoak izan behar dute.

Federazioaren estatutuak erregelamendu bidez ezartzen denaren araberrakoak eta gai horien gainekoak izanen dira.

c) Foru Komunitateko kirol administrazioak federazioaren estatutuak onestea.

45. artikulua. Inskripzioa.

1. Kirol federazio bat Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan hasieraz inskribatzea eta ondorioz erakunde horri aitormena ematea bi urtez behin-behinekoak izanen dira.

2. Kirol federazio bat Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan behin-behinekoz inskribatzeko administrazio-ebazpenak delako kirol modalitateari Foru Komunitateko lurraldean aitormena ematea ekarriko du berekin, lehendik ez bazuen.

3. Bi urte iraganik, Foru Komunitateko kirol administrazioak eman ala ukatuko dio behin betiko aitormena kasuko kirol federazioari eta kasuko kirol modalitateari, lehendik ez bazuen.

46. artikulua. Aitormena kentzea.

1. Foru Komunitateko kirol administrazioak zilegi izanen du kirol federazio bati aitormena kentzea, federazioa eratzeko baimenaren oinarri ziren inguruabarrak desagertzen badira edo erakundea eratzeko arrazoi ziren helburuak betetzen ez badira.

2. Nafarroako kirol federazio bati aitormena kentzearen ondorioz:

a) Indargabetuko zaio, ofizioz, Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroko inskripzioa.

b) Foru lege honek agintzen duenaren arabera federazioak dituen eskubide eta eginkizun guztiak galduko ditu.

c) Kasuko Nafarroako kirol federazioa nahitaez desegin beharrean egonen da.

47. artikulua. Kirol modalitate eta espezialitateen aitormena.

1. Honako irizpideok hartuko dira aintzat Foru Komunitateko lurraldean kirol bat kirol modalitate edo espezialitatez kalifikatzeko:

a) Delako kirol jarduerak nortasun berezia izatea Foru Komunitateko lurraldean aitormena duten kirol modalitateen aldean.

b) Kirol jarduera hori gobernatzeko arau tekniko batzuk egotea, kirol komunitate gehienak onartuak.

c) Autonomia erkidegoetan, Estatuan edo nazioartean kasuko kirol modalitate edo espezialitateak aitormen ofiziala izatea.

d) Delako kirola Foru Komunitatean benetan erro egina eta ohikoa izatea.

e) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste irizpide eta baldintzak.

2. Foru Komunitateko kirol administrazioari dagokio jarduera bat kirol modalitatez kalifikatzea eta, kirol federazioak lagun, finkatzea zer espezialitate edo diziplina osagai dituen.

3. Foru Komunitateko kirol administrazioak zilegi izanen du kirol modalitate, espezialitate edo diziplinaren kalifikazioa kentzea, aitormen horren oinarri ziren baldintzak desagertzen badira.

48. artikulua. Araubide juridikoa.

Nafarroako kirol federazioak foru lege honen eta haren garabideko xedapenen arabera gobernatzen dira, beren berariazko estatutu eta erregelamendu behar bezala onetsitakoen arabera, eta beren gobernu organoek hartutako erabaki baliozkoen arabera.

49. artikulua. Eginkizunak.

1. Hona Nafarroako kirol federazioen eginkizunak:

a) Kasuko kirol modalitateak oro har sustatzea, bai lehia-kirolari dagokionez eta bai guztientzako kirolari dagokionez.

b) Kasuko kirol modalitateak teknikoki arautu eta antolatzea.

Eginkizun hori Nafarroako kirol federazioei dagokie soilik Nafarroako beste kirol erakundearen alderako.

c) Erregelamendu bidez egozten zaizkien beste eginkizun guztiak.

2. Nafarroako kirol federazioek, berezko eginkizunez gain, administrazio eiteko eginkizun publiko hauek ere erabiliko dituzte delegazioz, Foru Komunitateko kirol administrazioa koordinatzaile eta begirale dutela eta hortaz administrazio publikoaren lankide direla:

a) Beren kirol modalitatearen esparru orokorra antolatzea eta Nafarroa barneko lehiaketa ofizial ez profesionalei baimena ematea.

b) Beren kirol modalitateetan Nafarroa barneko lehiaketa ofizial ez profesionaletarako baimenak edo gaitasun agiriak ematea.

c) Erabakitzea zein teknikarik eta kirolarik osatuko dituzten bere modalitateko Nafarroako kirol selekzioak, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

d) Erabakitzea bere modalitateko Nafarroako kirol selekzioek kirol jarduera edo lehiaketetan parte hartu behar duten ala ez.

e) Foru lege honen eta haren garabideko xedapenen arabera kirolaren arloko diziplina ahalmena erabiltzea.

f) Nafarroako Kirol Justiziaren erabakiak bete-arazi eta bete daitezen begiratzea.

g) Foru Komunitateko kirol administrazioaren lankide aritzea kiroleko dopajea galarazi, kontrolatu eta zehatzen eta kiroleko indarkeria galarazi eta kontrolatzen.

h) Foru Komunitateko kirol administrazioaren lankide aritzea federazioetako kide diren pertsona fisiko edo juridikoei ematen zaizkien dirulaguntza ofizialak kontrolatzen, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

i) Federazioetako hauteskundeak kontrolatzea.

j) Gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna sustatzea, Nafarroako administrazio publikoekin bat, sexueta batek besteak baino ordezkari gutxiago duen kiroletan.

k) Delegazioz egozten zaizkion beste eginkizun guztiak.

3. Ez da zilegi izanen Nafarroako kirol federazioek eginkizun publikorik besteri delegatzea Foru

Komunitateko administrazioaren baimen espresurik izan gabe.

4. Kasurako zilegi diren beste helegiteak galarazi gabe, Nafarroako kirol federazioen egintzen kontra zilegi izanen da administrazio bideko helegitea jartzea Nafarroako Kirol Justiziako Batzordean, foru lege honetan eta haren garabideko xedapenetan agintzen denaren arabera.

50. artikulua. Garabide konbentzionala.

Foru Komunitateko kirol administrazioak zilegi izanen du Nafarroako kirol federazioekin elkarlanean hitzarmen juridiko administrazioak eratzea federazio horien eginkizunak egoki garatzeko eta, oro har, foru lege honetan jasotzen diren printzipioak gauzatzeko.

51. artikulua. Begirale lana.

Zilegi izanen da Foru Komunitateko kirol administrazioa Nafarroako kirol federazioen gainean begirale lana egitea, besteak beste ahalmen hauen bitartez:

a) Administrazio eiteko eginkizun publikoak beretzat erreklamatzeko.

b) Administrazio eiteko eginkizun publikoen delegazioa kentzea.

Hartara, zilegi izanen da eginkizun horien erabilera zuzenean Foru Komunitateko kirol administrazioak hartzea edo behin-behinekoz Nafarroako beste kirol erakunde batzuei delegatzea.

c) Federazioetako liburuak eta dokumentuak ikuskatzea.

d) Kirol federazioko gobernu eta ordezkari organoak dei egitea eginkizun publiko delegatuei buruzko edozein kontu eztabaidatu eta ebazteko.

e) Kirol federazioko batzar orokorra egiteko dei egitea presidentearen kontrako zentsura mozioa eta, hala gertatzen bada, kirol federazioko zuzendaritza batzordeko beste kideen kontrako mozioak ere eztabaidatzeko, atzematen bada haren edo haien eginkizunak erabiltzean ageriko eta bistako botere abusua edo desbideratzea izan dela edo hautematen bada haren edo haien kudeatze lanaren ondorioz kirol federazioari dagozkion eginkizun publikoak argiro utzirik eta geldirik egon direla.

Ofizialki sustatutako zentsura mozioak aurrera egiten badu, berehala dei egiten da kirol federazioko presidentea hautatzeko hauteskundeetarako.

f) Aholkulariak, ikusleak edo administrazioaileak izendatzea kasuko kirol federazioko gobernu eta ordezkari organoetan.

g) Nafarroako kirol selekzioei jardura edo lehiaketa ofizialetan parte hartzea debekatzea.

52. artikulua. Behin-behineko neurriak.

1. Foru Komunitateko kirol administrazioak zilegi izanen du, prozedura hasi ondoren nahiz hasi aurretik, honako neurri behin-behinekoak hartzea, batera nahiz banaka:

a) Presidentearen eta federazioko zuzendaritza organoetako beste kideen kargua etetea haien kontra diziplina espedienteak abiatzen bada kirolaren arloko diziplina gaitan arau-hauste larriak edo oso larriak ustez egin izanagatik edo atzematen bada haien kudeatze lanaren ondorioz kirol federazioari dagozkion eginkizun publikoak argiro utzirik eta geldirik egon direla.

b) Kudeatze batzorde bat izendatzea, gehienik federazioko kidez osatua, aurreko letran agindu bezala presidenteari kargua aurreneurritz eten, aurreko artikuluan agintzen denaren arabera ofizialki eragindako zentsura mozio batek aurrera egin, edo kirol federazioko presidenteari bere eginkizunak etengabe betetzea galarazten dion beste edozein arrazoi gertatzen denean, betiere hala komeni dela juzgatzen bada.

c) Nafarroako kirol federazioei dagozkien eginkizun publiko delegatuak egoki egin daitezkeen segurtatzeko beharrezko direla juzgatzen den beste neurri behin-behineko guztiak hartzea.

2. Aipatu egintza horiek ez dira inola ere zehapenekoak izanen, diziplina espedienteak abiatzeko aukera ezertan galarazi gabe.

53. artikulua. Egitura eta jardunbidea.

1. Kirol federazioek beren egitura organikoa eta beren jardunbidea arautuko dute estatutu eta erregelamenduetan, foru lege honetan eta haren garabideko xedapenetan agintzen denaren arabera.

Federazioaren egitura organikoa eta jardunbidea betiere ordezkari eta parte-hartze demokratikoaren arabera izanen dira.

2. Erregelamendu bidez ezarriko da zer gai eta alderdi diren nahitaez federazio estatutuek arautu beharrekoak.

3. Nafarroako kirol federazioetan, batzar orokorra eta federazioko presidentea dira nahitaezko gobernu eta ordezkari organoak, hauteskudez osatu beharrekoak; zilegi izanen da estatutuetan

beste organo batzuk aurreikustea gobernu eta ordezkari organoen osagarri eta lagungarri.

Batzar orokorrean federazioa osatzen duten estamentu guztiek eskubidea izanen dute ordezkariak izateko, eta osoko bilkura nahiz batzorde delegatuak izanen dira haren bilera motak.

Kirol federazioen barnean zilegi izanen da batzar orokorraren batzorde delegatuak osatzea, kirol modalitateko edo, halakorik bada, espezialitateko bana, foru lege honen garabideko xedapenetan ezartzen den erregulazioaren arabera.

4. Nafarroako kirol federazioetako gobernu eta ordezkari organoen osaera, eginkizunak, agintaldia eta hauteskunde prozedurak erregelamendu bidez arautuko dira.

5. Kontuan harturik zein prozesu berezia eta bakana den kirol federazio baten hasierako eraketa, zilegi izanen da hauteskunde erregelamenduan, lehenbiziko batzar orokorraren osaera eta lehenbiziko presidentearen hautaera finkatuko baititu, berriaz arautzea zer baldintza behar diren hautesle eta ondorioz hautagai izan eta kirol federazioko gobernu eta ordezkari organoetan sartzeko.

Hauteskunde erregelamendua, hartara, kirol federazioaren sustatzaileak ordezkatzeko eratu den kudeatze batzordeak itxuratuko du.

Hauteskunde erregelamendua Foru Komunitateko kirol administrazioak gainbegiratu eta onetsiko du eta betiere hauteskunde prozesua ordezkari eta parte-hartze demokratikoaren printzipioen menpe egon dadin begiratu du.

54. artikulua. Federazioaren lizentzia.

1. Pertsona fisiko nahiz juridikoek, Nafarroako kirol federazioetan sartzeko, kasuko federazio lizentzia eskuratu beharko dute, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

2. Federazioko lizentziak eman eta berritzea modu arautuan eginen da, foru lege honen garabideko xedapenek agintzen duten epean eta gutxieneko edukiarekin.

3. Erregelamendu bidez ezartzen den epea iragan eta federazioko lizentzia eskuratzeko eskera ebatzi ez bada, eman dela ulertuko da.

4. Federazioko lizentziek foru lege honek edo haren garabideko xedapenek nahitaezkoztat ezartzen dituzten aseguru estaldurak eraukiko dizkiote federatuari.

5. Kirol bakoitzak sortzen dituen arriskuen berezitasuna gogoan, zilegi izanen da erregelamendu bidez nahitaezko osasun azterketa egin

beharra ezartzea, kirolean aritzeko egokitasuna edo gaitasuna neurtzekoak. Erregelamendu bidez ezarriko da osasun azterketa horiek zer baldintza izanen dituzten eta zer arlo ukituko.

55. artikulua. Publizitatea.

1. Kirol federazioetako estatutuak eta haien aldaketak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, Foru Komunitateko kirol administrazioak onetsi ondoren.

2. Nafarroako kirol federazioek iragarri beharko dute federazioko estatutuak onetsi edo aldatzeko erabakia, gutxienez Foru Komunitateko bi egunkaritan. Betiere Foru Komunitateko kirol administrazioak onetsi ondoren iragarriko da hori.

3. Nafarroako kirol federazioek beren estatutu edo federazio erregelamenduen kopia eman beharko diete hura eskatzen duten pertsona fisiko nahiz juridiko guztiei.

4. Nafarroako kirol federazioek behar adina zabaldu eta jendarteratuko dute inguruan beren helburu eta jardueren berri.

56. artikulua. Kirol federatuaren antolamendua.

1. Kirol modalitate bakoitza federazio bakar batek antolatu eta gobernatuko du Nafarroan, salbu eta gorputzeko, gogozko, zentzumenezko edo askotariko minusbalioa dutenen kirol jardueraren kasuan.

2. Nafarroako kirol federazioek zilegi izanen dute elkarlanerako hitzarmenak ezartzea beste lurralde bateko kirol federazioekin autonomia erki-degoen arteko lehiaketa ofizialak antolatzeko, aurrez Foru Komunitateko kirol administrazioaren baimena eskuraturik eta bestelako baimenak eskatu beharra galarazi gabe.

3. Foru Komunitateko administrazioak Nafarroako kirol federazioak bultzatuko ditu jende eta material baliabideak elkarren artean eta batera erabiltzera, beren eginkizunak egoki eta efikaz bete ditzaten sustatzeko.

4. Foru Komunitateko administrazio publikoek bultzatuko dituzte kirolariak kirol federazioetan sartzera, kirol jarduera egokia eta laguntza eta babes hobea sustatzeko.

57. artikulua. Diru, ondare eta dokumentuen gaineko araubidea.

1. Nafarroako kirol federazioek beren aurrekontu eta ondare propioak izanen dituzte.

2. Nafarroako kirol federazioek beren kontabilitatea antolatzeko kontabilitate plan orokor molda-

tua izanen dute jarraibide, erakunde hauentzat propio ezarria, hurrengo lerrokadan agintzen dena ezertan galarazi gabe.

Foru Komunitateko kirol administrazioak aginduko du kasuko arauak zein momentutan izanen diren nahitaez aplikatu beharrekoak, foru lege honek agintzen duenari begira, gogoan harturik zein diren Nafarroako kirol federazioen ondare balioa, jardueren bolumena, antolakuntzarako egitura edo gizarte inguruabarrak.

3. Foru Komunitateko kirol administrazioak zilegi izanen du Nafarroako kirol federazioak denak nahiz federazio jakin batzuk behartzea, gogoan harturik zein diren haien ondare balioa, jardueren bolumena, antolakuntzarako egitura edo gizarte inguruabarrak, beren kontabilitatea kanpoko auditoria baten menpe edo beren jardunbidea kudeaketa-auditoria baten edo beste egiaztabide baten menpe jartzera eta zilegi izanen ere du auditoria horietan zer gai aztertu behar diren agintzea, arau orokorrek kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa kontrolatzeko agintzen dituzten beste kontrolak ezertan galarazi gabe.

4. Nafarroako kirol federazio batek desegiten denean ondarerik badu, ondare garbi hori federazioko eginkizunen antzeko jarduerak egiteko erabiliko da. Foru Komunitateko kirol administrazioak begiratuko du hala egin dadin.

5. Nafarroako kirol federazioek zilegi izanen dute jarduera industrial, komertzial edo zerbitzu ematekoetan aritzea betiere baldin horren onura bere elkartearen helbururako erabiltzen badute eta jarduera hori haien jarduera material nagusia ez bada.

6. Nafarroako kirol federazioek ez dute zilegi izanen aurrekontu defizitdunak onestea. Hala ere, Foru Komunitateko kirol administrazioak, zilegi izanen du salbuespenez halako aurrekontu defizitdun bati baimena ematea.

7. Nafarroako kirol federazioek zilegi dute beren ondasun higiezinak kargatu eta besterentzea, dirua mailegatzea eta zor-tituluak edo hainbanako ondare zatiko tituluak jaulkitzea, horrela kirol federazioaren ondarea edo elkartearen helburua ezin lehengoratzeko moduan tratatzen ez bada.

Hartarako, betiere, nahitaezkoa izanen da Foru Komunitateko kirol administrazioaren baimeana, kargatu edo besterendu nahi diren ondasun higiezin horiek partez nahiz osorik Foru Komunitateko funtsekin finantzatu badira.

8. Erregelamendu bidez arautuko da artikuluko honetan ezartzen diren mugek zer irispide izanen

duten eta zer osagai material eta prozedurazkok egon behar duten nahitaez Nafarroako kirol federazioen dokumentuen gaineko araubidean.

58. artikulua. Onura publikoaren deklarazioa eta zerga araubidea.

1. Nafarroako kirol federazioei dagozkien, onura publikoko erakundeak diren partez, ordenamendu juridikoak halakotzat deklaratzeko dituen erakunde-
ei ematen dizkien abantailak.

2. Nafarroako kirol federazioek Nafarroan Fundazioen eta babes komertzialaren zerga araubideari buruz indar duten arauak agintzen duten zerga araubidea izanen dute.

3. Erregelamendu bidez ezarriko da zer baldintza eta prozedura bete behar dituzten Nafarroako kirol federazioek Nafarroan Fundazioen eta babes komertzialaren zerga araubideari buruz indar duten arauak agintzen duten zerga araubide berezian sartu ahal izateko. Bertan argituko ere dira erakunde hauek Sozietateen gaineko Zerga eman beharrekin lotura duten kontu guztiak.

IV. KAPITULUA

Nafarroako kirola sustatzeko erakundeak

59. artikulua. Kontzeptua.

Kirola sustatzeko erakundetzat hartuko dira, foru lege honek agintzen duenari begira, irabazi asmorik gabeko elkarte pribatu nortasun juridikoa eta egintzarako ahalmena dutenak, Nafarroako kirol erakundez osatuak, baldin haien helburua Nafarroan kirol modalitatearen aitormena ez duten kirol jarduerak oro har sustatzea eta kirol lehiaketak antolatzea bada.

60. artikulua. Araubide juridikoa.

Elkarte-eskubidea arautzeko legeetan agintzen dena ezertan galarazi gabe, kirola sustatzeko erakundeak beren estatutuen, barne araubideko erregelamendu berariazkoen eta beren gobernu organoek hartutako erabaki baliozkoen arabera gobernatuko dira beren erabideari, aitormen ofizialari, desegiteari, antolamenduari eta jardunbideari dagozkion kontu guztietan.

61. artikulua. Aitormena.

1. Kirola sustatzeko erakundeei, foru lege honek agintzen duenari begira, Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzean emanen zaie aitormena.

2. Kirola sustatzeko erakundeek, hartarako, erregelamendu bidez ezartzen den epe eta moduan eskatu beharko dute Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzea.

3. Kirola sustatzeko erakunde bat eratzeko, foru lege honek agintzen duenari begira aitormena emanen bazaio, honako baldintzak bete behar dira:

a) Sorrerako akta, erregelamenduak agindu bezala egina eta bertan gutxienez ezartzen den kirol erakunde kopuruak sinatua, zeinean jasoko baita erakunde horiek elkarte bat sortu nahi dutela Nafarroan lehendik kirol modalitatearen aitormena ez zuten kirol jarduerak oro har sustatzea edo kirol lehiaketak antolatzea helburu eta beren borondatez men egiten diotela kirolaren arloko araudiari.

b) Kideek kirola sustatzeko erakundearen estatutuei emandako onespina. Elkartearen estatutuek erregelamendu bidez ezartzen diren gaiak arautu beharko dituzte.

V. KAPITULUA

Kirol sozietate anonimoak

62. artikulua. Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan sartzeari.

1. Nafarroan helbidea duten kirol sozietate anonimoek, foru lege honetatik eta haren garabideko xedapenetatik heldu diren berariazko onurak beretu nahi badituzte, Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu beharko dute.

2. Erregelamendu bidez ezarriko da zer prozedura eta zer baldintza bete behar diren inskribatzeko.

3. Nafarroan helbidea duten kirol sozietate anonimoak Estatuan gai horren gainean indar duten berariazko arauen arabera gobernatuko dira, foru lege honetatik aplikatzeko zaizkien arauak aplikatzea ezertan galarazi gabe.

VI. KAPITULUA

Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroa

63. artikulua. Helburua.

1. Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroak helburu hauek izanen ditu:

a) Nafarroan helbidea duten eta titulu honetan zehazten diren kirol erakundeak inskribatzea.

b) Beste erakunde batzuk ere inskribatzea, erregelamendu bidez ezartzen den moduan, kontuan harturik gizarteak zer premia dituen, ordenamendu juridikoko beste ataletan zer aldaketa izan diren eta kirol jardueraren osagai guztiek benetan zer behar eta eskatzen duten.

2. Erregelamendu bidez finkatuko da Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroak zer egitura eta zer sarrera eta jardura araubide izanen dituen.

3. Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroko inskripzioak publikoak izanen dira. Erregelamendu bidez finkatuko da zer bide erabiliko diren publikotasun hori gauzatzeko.

64. artikulua. Inskripzioa.

1. Honako egitateak inskribatu beharko dira Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan:

a) Kirol klubak, kirol federazioak eta kirola sustatzeko erakundeak eratzea.

b) Erregistrora "klub filial"aren izenpean sartzan diren erakundeek inskripzioa eskatzeko erabakia.

c) Kirol klubak, kirol federazioen eta kirola sustatzeko erakundeen estatutu eta erregelamenduak onestea eta aldatzea.

d) Kirol klubak, kirol federazioen eta kirola sustatzeko erakundeen gobernu eta ordezkari organoetako kideak izendatu eta kargubetzea.

e) Kirol klubak, kirol federazioak eta kirola sustatzeko erakundeak desegin eta haien kontuen likidazioa egitea.

f) Erregelamendu bidez ezartzen diren egintza eta gorabeherak.

2. Erregistroan inskribatzeak ez du datu okerririk onutzen ez eta ordenamendu juridikoaren arabera baliogabe den egintzarik balioztatzen.

3. Foru lege honek agintzen duenari begira, ez da zilegi izanen Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan sartzeko erabiltzen den izena lehendik erregistratuta dauden beste kirol erakunde batena bera izatea edo nahasgarria izateko bezain antzekoa.

65. artikulua. Onurak eta betebeharrak.

1. Erakunde bat Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzeak berez dakar foru lege honek agintzen duenerako erakunde horri kirol erakundearen aitormen ofiziala ematea.

2. Ezinbesteko baldintza izanen da Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan inskribaturik egotea foru lege honek eta haren garabideko xedapenek kirol erakundeen alde ezartzen dituzten onurak hartu ahal izateko.

3. Zilegi izanen da honakoetarako ezinbesteko baldintzatzat jartzea Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan inskribaturik egotea:

a) Foru Komunitateko Administrazioaren laguntzak eskatu edo hark sustatutako kirol programetan parte hartzeko.

b) Nafarroa barneko kirol lehiaketa ofizialetan parte hartzeko.

4. Foru Komunitateko kirol administrazioak aholkua eta informazioa emanen du kirol erakundeak eratu eta jardutea errazteko.

5. Erregistratu diren kirol erakundeek honako eginbeharrak izanen dituzte, erregelamendu bidez beste eginbehar batzuk ezartzea galarazi gabe:

a) Beren tipologiari dagozkion baldintza eta helburu propioei eustea.

b) Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroko datuetan aldaketarik izaten bada, haien berri ematea.

c) Hartarako jartzen zaien epean erantzuna ematea Foru Komunitateko kirol administrazioak egiten dituen informazio eskaerei, erregistroko datuak eguneraturik edukitzeko eta beren tipologiari dagozkion baldintza eta helburuak betetzen direla frogatzeko.

Eginbehar horiek edo erregelamendu bidez ezartzen direnak betetzen ez badira, zilegi izanen da erakunde horrek Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan daukan inskripzioa ezeztatzea eta ondorioz inskripzioak ematen dituen onurak galtzea, Foru Komunitateko Elkarleen Erregistro Orokorrean inskribatzea galarazi gabe, hala bide denean.

V. TITULUA

Kirolarien osasun laguntza eta babesa

I. KAPITULUA

Osasun laguntza eta arriskuen aseguruak

66. artikulua. Kirol jarduera orokorraren ondoriozko osasun laguntza.

Herritarraren kirol jarduera orokorraren ondoriozko osasun laguntza sektore publikoaren osasun aseguruako araubidearen prestazio arrunta da.

67. artikulua. Aseguruak.

1. Aseguru bereziak ezartzea zilegi delarik ere, Nafarroako kirol federazioek aseguru bat kontratatu beharko dute kasuko pertsona federatuari osasun laguntza eman eta, kirol jarduera federatuaren ondorioz delako kirolaria hil edo galera anatomiko nahiz funtzionalik izaten badu, kalteordaina izan dezan segurtatzeko.

Foru Komunitateko Administrazioak zilegi izanen du kirol jarduera federatuaren ondoriozko osasun laguntza finantzatzea, dela kirolarien adina aintzat hartuta, dela kirol jardueraren interes soziala edo antzeko arrazoi bereziengatik, aurrez programazio espresua eginik eta aurrekontuetan berariazko diru kopurua ezaririk.

2. Arriskuen berezitasuna gogoan, dela kirol ikuskizun edo jardueraren izaera eta ezaugarriengatik, dela kirol horrek gertaleku duen ingurunearen ezaugarriengatik edo antzeko arrazoi bereziengatik, jendaurreko kirol ikuskizun eta jardueren antolatzaileak beharturik egonen dira, erregelamendu bidez ezartzen den moduan, erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzea arlo horretako bere arriskuak, eta hala bide denean kirolarienak, aseguratzeko.

3. Foru Komunitateko Administrazioak finantzatu ahal izanen ditu erantzukizun zibileko aseguru horiek arazo ekonomikoak, frogatu ahal direnak, baldin badaude eta erregelamenduz ezarriko diren beste baldintza batzuk betetzen badira.

II. KAPITULUA

Kiroleko dopajea

68. artikulua. Lege esparru orokorra.

1. Foru Komunitateko Administrazioa Estatuaren Administrazioarekin eta Espainiako kirol federazioekin lankide arituko da kiroleko dopajea galarazi, kontrolatu eta erreprimitzeko neurriak hartu eta aplikatzen, Estatuko arauekin bat federazioei tokatzen zaizkien eskumenen barrenean.

2. Foru Komunitateko Administrazioak arautuko du zein lege esparrutan eginen den kirol dopajea kontrolatu, galarazi eta erreprimitzeko lana, Foru Komunitateko kirol lehiaketa ofizialetan.

69. artikulua. Kirol dopajerako sustantzia eta metodoen zerrenda.

Nafarroako kirol lehiaketa ofizialetan Kirol Kontseilu Gorenak Estatuaren eremurako onetsi duen kirolarien gaitasuna artifizialki handitu edo lehiaketan emaitzak aldatzeko diren sustantzia, talde farmakologiko debekatu eta erregelamenduz kontrako metodoen zerrenda aplikatuko da.

70. artikulua. Nahitaezkotasuna.

1. Nafarroako kirol lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kirolari guztiak beharturik egonen dira dopajea galarazteko kontrolak egitera partida, lehiaketa eta probetan eta bai handik kanpora ere erregelamendu bidez ezartzen diren kasu eta baldintzetan.

2. Foru Komunitateko kirol administrazioak, Nafarroako kirol erakundeak lagun, finkatuko du Nafarroan zein kirol lehiaketa ofizialetan izanen den nahitaezkoa kirol dopajea galarazteko kontrola.

71. artikulua. Kirol dopajea galarazi eta kontrolatzeko neurriak.

Foru Komunitateko kirol administrazioa egina hanean saiatuko da Nafarroan kirol dopajea galarazi eta kontrolatzen, hartarako besteak beste, honako neurriok hartuz:

a) Hezkuntza programak eta informazio kanpainak egitea kirol dopajeak osasunari dakartzkion kalteak agertzera emateko.

b) Debeku diren dopaje sustantzia eta metodoen zerrenda zabaltzeko informazio kanpainak egitea.

c) Dopajea galarazteko kontrolak egiteko laguntza programak egin eta dirulaguntzak ematea.

d) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste guztiak edo foru lege honek aurreikusten duen erregulazioa betearaztekoak.

III. KAPITULUA Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa

72. artikulua. Egitura organikoa.

1. Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa Nafarroako Gobernuaren administrazio unitatea da.

2. Erregelamendu bidez ezarriko da zer egitura organiko, zer eginkizun eta zer jardun-araubide izanen dituen.

3. Foru Komunitateko administrazioak zentrorako egitura juridikoa ezarriko du.

73. artikulua. Eginkizunak.

1. Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroak honako eginkizunak izanen ditu, Foru Komunitateko osasun administrazioari dagozkion eskumenak ezertan galarazi gabe:

a) Foru Komunitateko administrazioari kirol medikuntzaren arloan aholku ematea.

b) Programak planifikatu, koordinatu eta gauzaraztea kirola behar bezalako osasun eta segurtasun baldintzetan egin dadin bultzatu eta sustatzeko.

c) Foru Komunitateko kirol administrazioak antolatzen dituen goi mailako kirola sustatzeko

programetan parte hartzen duten kirolariei kontrol eta jarraipen medikoa egitea.

d) Kirol dopajea galarazi, kontrolatu eta erreprimitzeko programetan parte hartu eta laguntzea.

e) Kirol medikuntzaren arloan zerbitzuak ematea.

f) Kirol medikuntzaren arloko ikerketa eta prestakuntza sustatu eta bultzatzea.

g) Kirolean egoki aritzeak, ohitura osasunarentzat mesedegarria den partez, duen garrantzia jendarteratzea.

h) Foru Komunitateko administrazioari aholku ematea kirolaren arloko titulazioaren eta prestakuntzaren gainean.

i) Foru Komunitateko administrazioak kirol teknikarien titulazio ofizialen arloan ematen dizkion eginkizun guztiak.

j) Kirolaren arloko prestakuntza programak planifikatu, koordinatu eta hala behartzen bada betearaztea.

k) Kirolaren arloko ikerketa sustatu eta bultzatzea.

l) Kirolaren arloko aurrerapen zientifiko eta teknikoak eta ikerlanak zabaltzea.

m) Kirolaren arloko dokumentazio zerbitzuak ematea.

n) Erregelamenduak esleitu edo Foru Komunitateko kirol administrazioak egozten dizkion beste guztiak.

2. Nafarroako Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa Nafarroako Kirol Ikerketen Zentroarekin eta Foru Komunitateko osasun administrazioarekin koordinaturik arituko da, Foru Komunitateko administrazioaren giza eta gauza baliabideei ahalik eta etekinik hoberena ateratzeko.

IV. KAPITULUA Kirol jardueretako indarkeriaren prebentzioa

74. artikulua. Kirolean indarkeriari aurrea hartzeko ekintzak.

1. Foru Komunitateko administrazioak edo haren organo delegatuak Foru Komunitatean kirol jardueren ondorioz gerta daitezkeen indarkeriazko ekintza edo adierazpenei aurrea hartzen lan egingen du, eta jarrera olinpikoak bultzatuko ditu beti.

2. Foru Komunitateko administrazioak era guztietako ekintzak gauzatuko ditu, besteak beste:

a) Kirol jardueretako indarkeriaren zergatiei eta ondorioei buruzko azterlanak egitea.

b) Gizartea, oro har, eta kirol entitateetako kideak, bereziki, prestatu eta jabearazteko ekin-tzak bultzatu eta zabaltzea.

c) Erregelamenduz ezartzen direnak.

VI. TITULUA Kirol instalazioak

I. KAPITULUA

Erabilera publikoko kirol instalazioak

75. artikulua. Kasurako arau orokor eta sektorialak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko erabilera publikoko kirol instalazioak, oro har, eta foru lege honek ezartzen duen berariazko erregulazioa ezertan galarazi gabe, Nafarroan indar duten jendaurreko ikuskizunei eta josteta jardueri buruzko arauen eta ingurumena babesteko jarduera sailkatuei buruzko arauen menpe egonen dira.

Hartarako, zilegi izanen da erregelamendu bidez erabilera publikoko kirol instalazioek nahitaez bete beharreko baldintza eta betebeharrak ezartzea.

Erregulazioa honakoen gainekoa izan daiteke:

a) Tipologia.

b) Kirol eta teknika baldintzak.

c) Osasun eta higiene baldintzak.

d) Mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna eta trabarik gabeko zirkulazioa.

e) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste guztiak.

2. Erabilera publikoko kirol instalazioaren kontzeptua, foru lege honek agintzen duenari begira, adiera zabalean ulertuko da, jende etorrera libreko kirol instalazio guztiak hartzeraino, titulartasun publiko ala pribatukoak izan.

Hartarako, beren ezaugarrien berengatik kirol egiteko erabiltzen diren lokal, dotazio edo eremuak hartzen dira kirol instalaziotzat, idorpekoak izan ala ez.

76. artikulua. Sarbide debekua.

1. Arau orokorrek agintzen dutena ezertan galarazi gabe, kirolarien eta kirolzaleen segurtasuna eta babesa bultzatzeko, honako gauzak sartu nahi dituzten pertsonak debeku izanen dute erabilera publikoko kirol instalazioetako jendaurreko kirol ikuskizun eta jardueretara sartzea:

a) Edukiz edo esanguraz indarkeriara bultzatzeko moduko diren pankarta, sinbolo, enblema edo lemak.

b) Armak edo armatako erabiltzeko moduko objektuak.

c) Bengalak edo su artifizialak.

d) Erregelamenduz ezartzen diren beste objektu edo tresna guztiak.

2. Nolanahi ere, debeku izanen da erabilera publikoko kirol instalazioetan aurreko lerrokadan aipatu diren objektuak erakutsi edo erabiltzea, eta instalazioaren titularrak beharurik daude berehala desagerraraztera.

77. artikulua. Arriskuei nola aurrea hartu.

1. Erabilera publikoko kirol instalazioen titularrak erantzukizun zibileko aseguru bat izan behar dute instalazioa erabiltzean izan daitezkeen kalte eta galerak aseguratzeke.

Titulartasun publikoko instalazioetan zilegi izanen da erantzukizun zibileko aseguru horren partez kalte eta galerak aseguratzeke beste sistema bat erabiltzea.

2. Erregelamendu bidez finkatuko da poliza horiek erantzukizun zibileko zein estaldura sistemak izanen dituzten.

3. Erabilera publikoko kirol instalazioetan toki ikusgarri eta nabarmen batean honakoei buruzko informazioa paratuko da:

a) Instalazioaren titularra nor den eta, hala bide denean, bertan egiten den kirol jardueraren antolatzailea nor den, instalazioaren titularra ez beste norbait denean.

b) Instalazioa zabaltzeko baimena.

c) Debeku dela instalazioan egiten diren jendaurreko kirol ikuskizun eta jardueretara inor aurreko artikuluan aipatu tresna eta objektuak aldean dituela sartzea.

d) Erabiltzaileen segurtasunari eta instalazioaren higieneari eragiten dieten barne jardunbideko arauak.

e) Instalazioko kirol ekipamendua, mugigarria nahiz finkoa, desegoki erabiltzeak zer arrisku sor ditzakeen.

f) Zer kirol zerbitzu eskaintzen diren eta, hala bide denean, zer tarifa edo kuota dituzten.

g) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste kontu guztiak.

4. Foru Komunitateko erabilera publikoko kirol instalazioetan epez epe bertako kirol ekipamendua, mugigarria nahiz finkoa, errebisatu beharko da. Instalazioaren titularrak konprobatuko du ekipamendu hori erabat ongi dagoela eta kasuko arau sektorialek agintzen dituzten segurtasun baldintza teknikoak betetzen dituela.

78. artikulua. Kirol instalazioak zabaltzea.

Ez da zilegi izanen erabilera publikoko kirol instalazioak zabaltzeko udal lizentzia ematea ez bada frogatu kapitulu honetan eta haren garabideko xedapenetan ezarri diren baldintzak betetzen direla, beste baldintza batzuk eskatzea ezertan galarazi gabe.

II. KAPITULUA

Kirol instalazioen plangintza

79. artikulua. Kirol instalazioen plan zuzentzaileak.

1. Foru Komunitateko Administrazioak egokitzat hartzen dituen erakundeen lankidetzarekin prestatuko ditu kirol instalazioen plan zuzentzaileak eta jarduketan programak, bai sektorekoak eta lurraldekoak bai orokorrak, Nafarroan kirol instalazioen eta azpiegituren sare bat orientatu eta sustatzeko, batetik, eta biztanleen kirol jarduera bultzatu eta haren kalitatea hobetzeko helburuarekin.

2. Plan zuzentzaileak Nafarroako Gobernuak onetsi eta Nafarroako Parlamentura igorriko ditu tramitatu eta onesteko.

3. Plan horien exekuzioaren txostenak Parlamentura igorriko dira, erakunde hau jakinaren gainean egon dadin.

4. Plan zuzentzaileek honakoak bilduko dituzte: jarduketa azterlanak eta planak, horiek betetzeko epeak, eta behar dituzten giza, teknika eta aurrekontu balia bideak.

5. Nafarroako Gobernuak Foru Komunitatearen interes orokorrerako presakotzat eta beharrezkotzat jotzen dituen kirol instalazioak eraikitzea eta haietarako jarduketak egitea sustatu ahal izanen du.

80. artikulua. Funtsezko printzipioak.

Foru Komunitateko kirol instalazioetarako plan zuzentzaileak itxuratzerakoan, honako printzipioak hartuko dira aintzat:

a) Instalazio horiek kirol arloko errentagarritasunik handiena eman, erabilerarik hoberena izan eta ahalik eta erabiltzaile kopuru handienak.

b) Kirol jarduera garatzeko bide ematen duten kirol instalazioak eraikitzeari lehentasuna ematea,

ikastetxeekin eta izaera sozialeko beste halako zentroekin koordinaturik.

c) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste guztiak, foru lege honetan ezartzen diren helburuekin bat.

81. artikulua. Edukia.

1. Foru Komunitatean kirol instalazioetarako plan zuzentzaile bat onetsi aurretik, aztertu eta diagnostikatuko dira Nafarroan dauden kirol instalazioak, non diren, nolakoak diren, nola dauden eta zertarako erabiltzen diren aintzat hartuta.

2. Foru Komunitateko kirol instalazioetarako plan zuzentzaileek honako edukia izanen dute gutxienez:

a) Zer helburu eta xede iritsi nahi diren.

b) Zer kirol instalazio edo ekintza sustatu nahi diren, nolakoak izanen diren, zer kokaleku eman nahi zaien eta zer eremu ukitu nahi den zehazturik.

c) Zein formula eta iturri erabili nahi diren plana betearazi eta finantzatzeko.

d) Zer balorazio irizpiderekin erabakiko den toki entitateek egin beharreko instalazioak edo ekintzak kasuko plan zuzentzaileak aurreikusten dituenetan sartu behar diren ala ez.

3. Foru Komunitateko kirol administrazioak zilegi izanen du Nafarroako toki entitateekin itunak egitea kasuko plan zuzentzaileak aurreikusten dituenak gauzarazteko.

4. Foru Komunitateko Administrazioak kofinantzatu dituen kirol instalazioak Administrazioaren esku egonen dira kirol jarduera bereziak edo udalez gaindiko interesdunak egiteko, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

82. artikulua. Nafarroako kirol instalazioen errolda.

1. Foru Komunitateko kirol administrazioak, toki entitateak lankide, errolda bat itxuratu eta gaurkoturik edukiko du Foru Komunitatean dauden kirol instalazio publiko nahiz pribatuak jasotzeko.

2. Kirol instalazioen titular diren erakunde publiko nahiz pribatuak eta pertsona fisikoak beharturik daude errolda hori itxuratzeko behar diren datuak ematera.

VII. TITULUA Titulazioak eta prestakuntza

83. artikulua. Erregulazioa.

1. Nafarroako Gobernuak, gai honetan indar duten arau orokorrekin bat, antolatu eta arautuko ditu kirol teknikari izateko titulazio ofiziala eskuratzeko ikasketak.

2. Erregelamendu bidez ezarriko da zer eginkizun eta eskumen dagozkion arlo horretan Foru Komunitateko kirol administrazioari eta Foru Komunitateko hezkuntza administrazioari.

Hartarako, gai hauei dagozkien guztiak arautuko dira:

- a) Irakaslana arautzeko curriculum nola proposatu eta onetsi.
- b) Kasuko titulu ofizialak emateko prozedura.
- c) Kasuko titulu ofizialak erregistratzeko prozedura.
- d) Zer organok eta zer prozeduraren bidez emanen duen kasuko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeak ireki eta jarduteko baimena.
- e) Ikastetxeak erregistratzeko prozedura.
- f) Ikuskatze araubidea eta organoak.

84. artikulua. Prestakuntza nola sustatu.

1. Foru Komunitateko administrazioak kirol jardueraren arloko prestakuntza sustatuko du, helburu hauek gogoan:

- a) Kirol jarduerak eta kirol zerbitzuak behar bezalako osasun eta segurtasun baldintzetan egin eta eman daitezzen saiatzea.
- b) Saiatzea kirol jarduera eta kirol zerbitzuak gizarteak behar duenaren arabera izan daitezzen, eta bai beste lege arloetan izandako aldaketan eta gai horretako aurrerapen zientifiko eta teknikoaren arabera ere.

2. Arlo horretan, Foru Komunitateko Administrazioak erregelamendu bidez ezartzen diren kreditazio edo gaitasun agiri administratiboak emanen ditu.

85. artikulua. Titulazioaren nahitaezkoa.

1. Nafarroako lurraldean kirol irakaskuntzan, kirol zuzendaritza teknikoan, entrenamenduan, animazioan eta erregelamendu bidez ezartzen diren kirol izaera tekniko antzeko beste arlo batzuetan aritzeko, ezinbestekoa izanen da horretan aritzen direnek kasuko titulazioaren jabe izatea, kirol gaitetan indar duten arauekin bat.

Foru lege honen garabideko xedapenen bidez, zehazki mugatuko da arloan-arloan titulazioak noraino izanen diren nahitaezkoak.

2. Foru Komunitateko administrazioek, zein bere eskumenen barrenean, begiratuko dute artikuluko honetan ezartzen diren obligazioak bete daitezzen.

VIII. TITULUA Kirolaren arloko zehapen eta diziplina araubidea

I. KAPITULUA Kirolaren arloko zehapen araubidea.

86. artikulua. Eremua.

1. Kirolaren arloko zehapen araubideak kapitulu honetan tipifikatzen diren administrazio arau-hausteak hartzen ditu, Nafarroako Foru Komunitatean egindakoak direnean.

2. Nafarroan egindako jendaurreko kirol ikuskitze eta jarduerari eta Nafarroako erabilera publikoko kirol instalazioei, Nafarroan indar duten jendaurreko ikuskitze eta josteta jarduerari buruzko arauetan agintzen den zehapen araubidea aplikatuko zaie.

3. Nafarroako erabilera publikoko kirol instalazioei ingurumena babesteko jarduera sailkatuei buruz Nafarroan indar duten arauetan agintzen den zehapen araubidea aplikatuko zaie.

87. artikulua. Zehapen ahalmena erabiltzea.

1. Kirol gaitetako zehapen ahalmena edozein pertsona fisiko nahiz juridikoren gainean erabiltzea Foru Komunitateko kirol administrazioari dagokio titulu honetan tipifikatzen diren administrazio arau-hausteak egiteagatik.

2. Arau-hauste horientzat, atzipez, erruz edo utzikeria hutsez haien erantzule ateratzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoen hartuko dute zehapena.

88. artikulua. Arau-hausteak.

1. Kirol gaitetako arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

2. Zilegi izanen da erregelamenduko xedapenetan zehaztea zein portaera doazen foru lege honek agintzen duenaren kontra eta graduazio bat ezartzea foru lege honetako zehapen taulan, baina ezarritako arau-hauste eta zehapen sisteman berrikuntzarik sartu gabe.

3. Zehapen ahalmena duten organoek zehapen espediente bat tramitatu bitartean delitu edo

hutsegite izan daitezkeen jokaeren berri jakiten badute, hala emanen diote aditzera Ministerio Fisikalari eta utzi eginen diote zehapen prozedurari harik eta epaileek, hala bide bada, kasuaren gainean iritzia eman arte.

89. artikulua. Kirolaren arloko arau-hauste oso larriak.

Hona kirol gaietako arau-hauste oso larriak:

a) Kirol lehiaketak ofizialak balira bezala antolatzea, kirolarien segurtasuna eta osotasuna arriskuan jartzen bada.

b) Eite horretako arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea.

90. artikulua. Kirol gaietako arau-hauste larriak.

Hona kirol gaietako arau-hauste larriak:

a) Aitormen ofiziala kendu ondoren kasuko kirol federazio bat desegin beharraren inguruko eginbideak ez betetzea.

b) Kirol jarduerak ofizialak balira bezala antolatzeari, hartarako Nafarroako kirol federazioen edo Foru Komunitateko administrazioaren baimenik izan gabe.

c) Nafarroako kirol federazioek edo hala bide denean beste kirol erakundeek delegaturik dituzten eginkizun publikoak bidegabeki beretu edo erabiltzea.

d) administrazio eginkizunak Foru Komunitateko administrazioak erreklamatu edo haien delegazioa ezeztatu dituztenean egitea.

e) Nafarroako goi mailako kirolarietako foru lege honetan edo haren garabideko xedapenetan ezarritako diren eginbideak ez betetzea.

f) Nafarroako kirol selekzioei dagozkien eginkizunak bidegabeki beretzea.

g) Kirol gaietako ikuskatzaileei bidea tratu edo edozein egintza eragozteko.

h) Eite horretako arau-hauste arinak behin baino gehiagotan egitea.

91. artikulua. Kirol gaietako arau-hauste arinak.

Hona kirol gaietako arau-hauste arinak:

a) Nafarroa barneko lehiaketa ofizialen eta Nafarroako kirol selekzioen sinbolo eta ikur bereizgarriak bidegabeki erabiltzea.

b) Erabiltzen diren sinbolo eta ikur bereizgarriak Nafarroa barneko lehiaketa ofizialen eta

Nafarroako kirol selekzioenekin nahasgarri izateko bezain antzekoak izatea.

c) Nafarroako kirol instalazioen errolda itxuratu eta gaurkotzeko behar diren datuak eman nahi eza.

d) Foru lege honek eta haren garabideko xedapenek kirol jardueren eremurako ezartzen duten beste edozein eginbide edo obligazio ez betetzea, larria edo oso larria ez denean.

92. artikulua. Kirol gaietako arau-hauste oso larrien zehapenak.

1. Kirol gaietako arau-hauste oso larriengatik honako zehapenak jar daitezke:

a) Urte batetik bostera arteko epe batean kirol lehiaketa ofizialak antolatu edo haietan parte hartzeko debekua.

b) 500.001 pezetatik 5.000.000ra arteko isuna.

2. Isuna osagarritzko zehapena izan daiteke.

3. Arau-haustearen erantzule den pertsona fisiko nahiz juridikoa Nafarroako kirol federazio bateko kide bada, honakoak jartzen ahal zaizkio osagarritzko zehapentzat:

a) Federazioko lizentzia denboraldi batetik bostera arteko aldiaren etetea.

b) Federazioko lizentzia alde bat kentzea.

c) Urte batetik bostera arteko aldiaren federazio-ko kargu eta eginkizunetan aritzeko debekua.

d) Federazioetako kargu eta eginkizunetan aritzeko behin betiko debekua.

Osagarritzko zehapenetan, salbuespenez baidarik ez da zilegi izan federazioko kargu eta eginkizunetan aritzea alde bat debekatzeko edo federazioko lizentzia alde bat kentzeko, larritasun handiko arau-hausteak behin baino gehiagotan egiteagatik.

93. artikulua. Kirol gaietako arau-hauste larrien zehapenak.

1. Kirol gaietako arau-hauste larriengatik honako zehapenak jar daitezke:

a) Hilabetetik urtebetera arteko aldiaren kirol lehiaketa ofizialak antolatu edo haietan parte hartzeko debekua.

b) 100.001 pezetatik 500.000ra arteko isuna.

2. Isuna zehapen osagarria izan daiteke.

3. Arau-haustearen erantzule den pertsona fisiko nahiz juridikoa Nafarroako kirol federazio

bateko kidea bada, honakoetako bat jartzen ahal zaio osagarritzko zehapentzat:

a) Hilabetetik denboraldi batera arteko aldiaren federazioko lizentzia etetea.

b) Hilabetetik urtebetera federazioko kargu eta eginkizunetan aritzeko debekua.

94. artikulua. Kirol gaietako arau-hauste arienen zehapenak.

1. Kirol gaietako arau-hauste arinengatik honako zehapenak jar daitezke:

a) Gehienez hilabetean kirol lehiaketa ofizialak antolatu edo haietan parte hartzeko debekua.

b) 10.000 pezetatik 100.000 pezetara arteko isuna.

c) Ohartarazpena

d) Jendaurreko erasia.

e) Buruz buruko erasia.

2. Isuna osagarritzko zehapena izan daiteke.

95. artikulua. Proporzionaltasun irizpideak.

1. Zehapenak jartzeko kontuan hartuko da arau-haustea egin zenean zer inguruabar biltzen ziren, batez ere hauek:

a) Zenbat jenderi erasan dion arau-haustea eta zenbateko arriskuak sortu dituen.

b) Arau-haustearen irispide soziala.

c) Nafarroaren irudia eta interesei zenbateko kaltea egin dien.

d) Aurretik ohartarazpen ofizialik egin zitzean.

e) Arau-haustea jakinaren gainean egin den.

f) Erantzuleak teknikoki zenbateraino zuen jobakideko xehetasunen berri, bere lanbidearen arabera edo kirol jardueren arloarekin duen loturaren arabera.

2. Hauek hartuko dira betiere inguruabar larri-garritzat:

a) Arau-haustea berriz egin izatea.

Foru lege honek agintzen duenari begira, arau-haustea berriz egin dela juzgatuko da arau-hausteen erantzuleei lehendik ezarri bazitzaie administrazio bideko zehapen irmoa, larritasun maila bereko edo handiagoko arau-hauste batengatik edo larritasun gutxiagoko bi arau-hausterengatik.

Arau-haustea berriz egin dela juzgatzeko epea lehenbiziko arau-haustea egiten denetik urtebetekoa izanen da.

b) Prezioa.

3. Arau-hauslea bere buruz damutzea inguruabar aringarritzat hartuko da.

96. artikulua. arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.

1. Titulu honetan arautzen diren arau-hauste eta zehapenek honako epeetan preskribituko dute:

a) Arau-hauste arinek eta haiei dagozkien zehapenek, bi hilabeteren buruan.

b) Arau-hauste larriek eta haiei dagozkien zehapenek urtebetearen buruan.

c) Arau-hauste oso larriek eta haiei dagozkien zehapenek, bi urteren buruan.

2. Arau-hausteen preskripzio epea arau-haustea egin den egunetik hasiko da kontatzen.

Jarduera jarraitu baten ondorio diren arau-haustean, preskripzio epea kontatzen hasteko eguna jarduera hori bukatzen dena izanen da edo arau-haustea gauzatzeko azken egintzarena.

3. Zehapenen preskripzio epea zehapena ezartzen duen ebazpena irmotu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

4. Zehapen prozedura hasteak eten eginen du preskripzio epea, baina prozedura hori hilabete baino gehiagoan geldirik egoten bada, prozedura horren peko pertsona edo erakundeari ezin egotzeko moduko arrazoi batengatik, berriz hasiko da kontatzen preskripzio epea.

97. artikulua. Prozedura.

Kirol gaietako zehapen ahalmena erabili baino lehen, administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako administrazio Prozedurari buruzko arauen arabera prozedura batek tramitatuta beharko du.

98. artikulua. Behin-behineko neurriak.

1. Guztientzako administrazio Prozedurari buruzko arauak agintzen dutenez, zehapen prozedura hasi ondoren edo hasi baino lehen, espediente hasteko eskumena duen organoak zilegi izanen du, arrazoiturik izanez gero, behar diren behin-behineko neurriak hartzea, zertarako eta gero batean eman litekeen ebazpena efikaza izatea, prozedurak fin ona egitea, arau-haustearen ondorioek ez irautea eta betiere legeak agindutakoa betetzea segurtatzeko.

2. Behin-behineko neurri horiek ez dira sekular zehapenezkoak izanen eta hauetakoren bat izan daitezke:

a) Fiantza bat eskatzea

- b) Jarduera aldi baterako etetea.
- c) Prozedura sortzen duten egitateekin lotura zuzena duten objektuak bahitzea.
- d) Beharrezko direla juzgatzen den beste neurri guztiak.

II. KAPITULUA

Kirol gaietako ikuskaritza

99. artikulua. Eginkizunak.

Foru Komunitateko kirol administrazioak kirolaren arloko ikuskapenak eginen ditu, eta hartarako foru lege honetan eta haren garabideko xedapenetan agintzen dena bete dadin begiratu.

100. artikulua. Jarraipen eta ikuskapen egiteko ahalmena.

1. Foru Komunitateko administrazioak zilegi izanen du bere teknikariak gaitzea kirolaren arloko ikuskapen lana egiteko.

2. Beren eginkizun horretan ikuskatzaileak agintaritzaren ordezkari arituko dira eta hortaz arau indardunek halakoei ematen dizkieten babes eta ahalmenak izanen dituzte.

3. Ikuskatzaileek zilegi izanen dute:

a) Erabilera publikoko kirol instalazioen titularreri informazioa eskatzea, edo jendaurreko kirol ikuskizun eta jardueren antolatzaileei.

b) Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatu diren kirol erakundeeri informazioa eskatzea.

c) Foru Komunitatearen administrazioan gai horretan eskudun diren beste organoei eskatzea esku hartu edo aholku eman dezatela.

d) Beste administrazio eta erakunde publikoen laguntza eskatzea.

4. Jendaurreko kirol ikuskizun eta jardueren antolatzaileak, erabilera publikoko kirol instalazioen titularrak, kirol erakundearen legezko ordezkariak eta kirolaren arloan aritzen den edozein pertsona beharturik daude kirolaren arloko ikuskatzaileei bide ematera behar diren instalazio eta dokumentuak eskuratu eta aztertzeke, eta behar duten laguntza guztia ematera.

III. KAPITULUA

Kirolaren arloko diziplina araubidea

101. artikulua. Eremua.

Kirolaren arloko diziplina araubidea honako arau-hausteei aplikatuko zaie:

a) Kirol federazioen eginkizun eta jardueren arloan kiroleko jokabide arauen kontra egindako arau-haustek.

b) Nafarroa barneko kirol lehiaketa ofizialetan joko arauen kontra egindako arau-haustek.

102. artikulua. Kirolaren arloko diziplina ahalmenaren erabilera.

1. Kirolaren arloko diziplina ahalmenaren titular bidezkoek ahalmen horren menpe jarritako pertsona edo erakundeak ikertu eta hala bide denean zehatu edo zuzentzeko eskumena izanen dute.

2. Honakoei dagokie kirolaren arloko diziplina ahalmena erabiltzea:

a) Nafarroako kirol federazioei, beren egitura organikoko kide guztien gainean eta oro har kasuko kirol lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten pertsona eta erakunde guztien gainean.

Nafarroako kirol federazioek, kirolaren arloko diziplina ahalmena erabiltzeko, foru lege honetan eta haren garabideko xedapenetan, bere estatu-tuetako arauetan eta kirolari buruzko gainerako legerian agindutakoa hartuko dute aintzat.

b) Erregelamenduz ezartzen diren organoei, eskola adineko kirol lehiaketa ofizialetan, unibertsitateen arteko lehiaketa ofizialetan, lehiaketa ofizial profesionaletan eta hala bide denean Nafarroa barneko beste lehiaketa ofizialetan, haietan parte hartzen dutenen gainean.

c) Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari, orain arte aipatu pertsona eta erakunde guztien gainean eta oro har Nafarroako kirol antolamendu osoaren gainean.

Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeak, kirolaren arloko diziplina ahalmena erabiltzeko, foru lege honetan eta haren garabideko xedapenetan eta gainerako ordenamendu juridikoan agindutakoa hartuko du aintzat.

3. Kirolaren arloko diziplina ahalmenaz kanpotzat jotzen da juezek edo jokozainek partidak, probak edo lehiaketak hotsemateko ahalmena, kasuko kirol modalitate edo jarduerako arau teknikoak aplikatze hutsaren bidezkoa.

4. Kirolaren arloko diziplinaren kontrako arau-hauste diren egintzengatik atzipez, erruz edo utzikeria hutsez haien erantzule ateratzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoek hartuko dute zehapena.

103. artikulua. Kirol klubien eta kirola sustatzeko erakundearen barrengo diziplina araubidea.

1. Nafarroako kirol klubek eta kirola sustatzeko erakundeek zehaztu behar dute beren estatutu eta erregelamenduetan zein diziiplina araubide aplikatuko zaien beren kideei, kirolariei eta oro har beren egitura organikoko pertsoneri.

2. Barrengo diziiplina araubideak, foru lege honek agintzen duenari begira, arau-hausteak eta zehapenak hartzen ditu, eta bai diziiplina esparru orokorra ere, kasuko kirol erakundeetako kideen arteko eta bai kide horien eta erakundearen arteko harreman, eskubide eta betebeharren ondorioz sortua.

3. Nafarroako kirol federazio batean kidetutako kirol klubek edo kirola sustatzeko erakundeek zilegi izanen dute estatutueta aukera ematea beren barrengo diziiplina araubidea aplikatuz ezarritako zehapenen kontra federazioko diziiplina organoetan helegitea egiteko, baldin kasuko kirol federazioaren estatutuek aukera hori aintzat hartzen badute.

4. Ez da zilegi izanen Nafarroako Kirol Justiziako Batzordean administrazio bideko helegitea jartzea barrengo diziiplina araubidea aplikatuz ezarritako zehapenen kontra.

104. artikulua. Beste arlo batzuekiko lehia.

1. Kirolaren arloko diziiplina araubidea erantzunbehar zibil edo penaletik bereiz ari da, eta bai barrengo lan edo sozietate harremanen ondoriozko araubidetik ere bereiz.

2. Diziiplina organo eskudunek ofizioz eman beharko diote aditzera Ministerio Fiskalari arlo honetan egindako arau-hausteetatik zeintzuk izan litezkeen delitu edo hutsegite penal, eta geldirik utziko dute beren diziiplina prozedura harik eta epaileek, hala bide bada, horren gaineko iritzia eman arte.

3. Gertaera batek berak foru lege honen edo beste arau sektorial baten arabera erantzunbehar administratiboa eta aldi berean kirolaren arloko diziiplina erantzunbeharra sortzen baditu, kiroleko diziiplina organoek kasuko administrazio agintariei emanen diete aditzera zer aurrekari jakin dituzten, nahiz eta hala bide bada haiek ere kirolaren arloko diziiplina prozedura tramitatzen segitu.

4. Kirolaren arloko diziiplina organoak administrazio erantzunbehar hutsa sor dezakeen gertaerarik jakiten badu, tramitatzetik gelditu eta besterik gabe kasurako esku duen agintaritzari pasatuko dizkio jakin dituenak.

105. artikulua. Diziiplina xedapenen baldintzak.

1. Nafarroako kirol federazioetako estatutu edo erregelamenduetan honakoak sartuko dira kirolaren arloko diziplinari dagokionez, eta foru lege honetan eta haren garabideko xedapenetan agintzen direnen arabera:

a) Arau-hauste sistema tipifikatu bat, larritasunaren arabera mailakatua.

b) Zehapen sistema tipifikatu bat, honako printzipioetan oinarritua: proportzionaltasuna, gertaera beragatik birritako zehapenik eza, eta arauhauslearen mesedetako arauen atzera-indarra. Sistema horrek zehaztuko ere du zein arrazoik edo inguruabarrek egiten duten erantzunbeharra ezeztatu, arindu edo larriagotu, eta zein diren preskripzio epeak.

c) Zer diziiplina prozedura egonen diren zehapenak tramitatu eta bide denean ezartzeko, eta zer helegite jar daitezkeen.

d) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste guztiak.

2. Foru Komunitateko administrazioak kasuko diziiplina erregelamenduak onetsiko ditu eskola adineko lehiaketa ofizialetarako, unibertsitateen arteko lehiaketa ofizialetarako, lehiaketa ofizial profesioletarako eta bide denean Nafarroa barneko beste lehiaketa ofizialetarako.

106. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Kirolaren arloko diziiplina arau-hausteak ari-nak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

2. Kirol jokabideko arau orokorren kontrako arau-hauste dira federazioko jarduera normala ezindu edo tratatzen duten egintzak edo egintza ezak, kontuan hartu gabe ea partida, proba edo lehiaketa ari zirela egin diren ala ez.

3. Joko arauen kontrako arau-hauste dira lehiaketa normal egitea ezindu edo tratatzen duten egintzak edo egintza ezak.

4. Foru Komunitateko administrazioak zilegi izanen du zehaztea titulu honetan jasotzen diren kirol jokabideko arau orokorren eta joko arauen kontrako arau-hauste horiek zein diren, errazago identifikatu ahal izateko.

5. Zilegi izanen da Nafarroako kirol federazioetako estatutu eta erregelamenduetan:

a) Zehaztea zein diren titulu honetan edo administrazioaren xedapenetan aipatzen diren kirol jokabideko arau orokorren kontrako arau-hausteak, arau-hauste horiek identifikatzen erra-

zago izan dadin, ezarritako arau-hauste sisteman berrikuntzarik sartu gabe.

b) Zehaztea zein diren titulu honetan edo Foru Komunitateko administrazioaren xedapenetan aipatzen diren joko arauen kontrako arau-haustekak, arau-hauste horiek identifikatzen errazago izan dadin, eta beste jokabide batzuk ere joko arauen kontrako arau-haustetzat tipifikatzea kasuko kirol modalitateko ezaugarrien arabera.

107. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

1. Honakoak hartuko dira kirol jokabideko arau orokorren kontrako arau-hauste oso larritzat:

a) Agerian eta behin eta berriz ez betetzea kirol federazioen estatutu edo erregelamenduetako arauak edo gobernu eta ordezkari organoen erabakiak.

b) Federazioetako presidente eta zuzendaritzakideek sistematiko eta behin eta berriz ez egitea federazioetako organo kolegiatuen bileretarako deia legeak agindu epe eta moduan.

c) Federazioetako presidente eta zuzendaritzakideek agerian eta behin eta berriz ez betetzea foru lege honetan eta haren garabideko xedapenetan ezartzen zaizkien eginbide eta betebeharrak, edo Foru Komunitateko administrazioarekin hartutako konpromisoak.

d) Federazioetako presidente eta zuzendaritzakideek larriki eta bidegabeki beren buruen probetxu hutserako erabiltzea kirol federazioaren baliabideak.

e) Kirol federazioetako diziplina edo hauteskunde organoetako kideek agerian eta behin eta berriz ez betetzea beren karguko eginbideak.

f) Federazioetako hauteskunde prozesuak traba edo galarazi beharrezko jokaerak.

g) Federazioetako hauteskunde prozesuetan buru diren organoek emandako erabakiak ez betearaztea.

h) Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeak federazioetako hauteskunde gaitan hartutako erabakiak ez betetzea.

i) Behar adinako arrazoirik ez dela, federazioen lizentzia ez ematea edo ematen berandatzeari, betiere gaitzez egina bada.

j) Nazioarteko erakundeek zehapena jarri dieten herrietako lehiaketa ofizialetan parte hartzea, Estatuaren administrazioak jarri duen debeku moduan arabera.

k) Eite honetako arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea.

2. Honakoak hartzen dira joko arauen arau-hauste oso larritzat:

a) Indarkeria erabiltzera bultzatzen duten adierazpenak eta egintzak, agerikoak eta jendaurrekoak.

b) Juez, kirolari, teknikari, kirol agintari eta ikusleen kontrako erasoak, intimidazioak edo koakzioak, larriak eta kaltegarriak direnean.

c) Aginte abusu oso larriak.

d) Partida, proba edo lehiaketa ofizial bat larriki traba edo ezintzen duten talde egintzak edo istilu publikoak.

e) Kirol jardueraren duintasuna eta itxura maskaltzen duten egintza ageriko eta publikoak egitea, bereziki larriak direnean.

f) Nafarroako Kirol Justiziako Batzordearen erabakiak ez betetzea.

g) Partida, proba edo lehiaketa baten emaitza kirolaz kanpoko bidetik bortxatzeko egintzak.

h) Kirol dopajeko sustantzia edo metodo debekatuak erabiltzea edo erabiltzera bultzatzea, kirolarien osasunerako biziki kaltegarritzat jotzen direnean, erregelamendu bidez ezartzen den zehaztapenaren arabera.

i) Organo eskudunek nahitaezkozkat ezarritako dopaje kontrolak egin nahi eza, eta kirol dopajeko jarduerak eta metodoak kontrolatzea traba edo ezindu egiten duten egintzak edo egintza ezak.

j) Behar adinako arrazoirik ez dela, lehiaketetan parte hartzeko lizentziak edo gaitasun agiriak ez ematea edo ematen berandatzeari, betiere gaitzez egiten bada.

k) Eite bereko hutsegite larriak behin baino gehiagotan egitea.

108. artikulua. Arau-hauste larriak.

1. Hauek hartuko dira kirol jokabideko arau orokorren kontrako arau-hauste larritzat:

a) Kirol federazioetako estatutu edo erregelamenduetako arauak edo gobernu eta ordezkari organoen erabakiak ez betetzea.

b) Behar adinako arrazoirik ez dela, federazioetako presidente eta zuzendaritzakideek ez deitzea federazioen organo kolegiatuen bilera legeak agindu epe eta moduan.

c) Federazioetako presidente eta zuzendaritzakideek larriki ez betetzea foru lege honetan eta haren garabideko xedapenetan ezartzen zaizkien eginbide eta betebeharrak, edo Foru Komunitateko administrazioarekin hartutako konpromisoak.

d) Kirol federazioetako diziplina edo hauteskunde organoetako kideek larriki ez betetzea beren karguko eginbideak.

e) Behar adinako arrazoirik ez dela, federazio-ko lizentzia ez ematea edo ematen berandatzeta.

f) Behar adinako arrazoirik ez dela, Nafarroako kirol selekzioen deialdietara ez agertzea.

g) Eite honetako hutsegite arinak behin baino gehiagotan egitea.

2. Hauek hartuko dira joko arauen arau-hauste larritzat:

a) Epaile, kirolari, teknikari, kirol agintari eta ikusleen kontrako erasoak, intimidazioak edo koakzioak, arau-hauste oso larria ez direnean.

b) Epaile, kirolari, teknikari, kirol agintari, federaziokide eta ikusleen kontrako irainak, arau-hauste oso larria ez direnean.

c) Aginte abusuak.

d) Partida, proba edo lehiaketaren aurrerabide normala tratatu baina erabat ezintzen ez duten talde egintzak edo istilu publikoak, arau-hauste oso larria ez direnean.

e) Garbiro kirol jardueretan behar den duintasun eta itxuraren kontrako diren egintza ageriko eta publikoak.

f) Kirol materiala edo ekipamendua manipulatu edo aldatzea kasuko kirol modalitate edo jarduerako arau teknikoaren kontra.

g) Kirol dopajeko sustantzia edo metodo debekatuak hornitzea, erabiltzea edo erabiltzera bultzatu eta laguntza ematea.

h) Federazioko diziplina organoetako erabakiak ez betearaztea.

i) Behar adinako arrazoirik ez dela, lehiaketetan parte hartzeko lizentziak ez ematea edo ematen berandatzeta.

j) Eite bereko arau-hauste arinak behin baino gehiagotan egitea.

109. artikulua. Arau-hauste arinak.

1. Kirol jokabidearen arau orokorren kontrako arau-hauste arintzat hartuko dira foru lege honi eta haren garabideko xedapenei ageriz kontra egiten dieten jokabideak, larritzat edo oso larritzat hartzekoak ez direnean.

2. Joko arauen kontrako arau-hauste arintzat hartuko dira juez, jokozain, teknikari, kirol agintari eta ikusleei ozarki edo desegoki ohartarazpenak egitea, non eta arau-hauste larriak ez diren.

3. Kirol arloko epaile eta gainerako agintariengandik, beren eginkizunak betetzen ari direla, jasotako aginduak eta jarraibideak betetzerakoan jarrera pasiboa hartzea.

4. Diziplina edo hauteskunde organoetako kideek beren eginkizunak ez betetzea edo uztea, ez betetze arina baldin bada.

110. artikulua. Kirol jokabidearen arau orokorren kontrako arau-hausteen zehapenak:

1. Kirol jokabidearen arau orokorren kontrako arau-hauste oso larriak egiteagatik honako zehapenak jartzen ahal dira:

a) Isuna, kasuko diziplina arauan zenbatetsia egonen dena, foru lege honetako 105. artikulua agintzen duenaren arabera.

b) Federazioko kargu eta eginkizunetan aritze-ko debekua, urtebetetik bost urtera bitarteko aldian.

c) Federazioko kargu eta eginkizunetan aritze-ko behin betiko debekua.

d) Federazioko lizentzia etetea, denboraldi batetik bostera arteko aldian.

e) Federazioko lizentzia behin betiko kentzea.

2. Federazioko kargu eta eginkizunetan aritzea behin betiko debekatu edo federazioko lizentzia behin betiko kentzearen zehapenak salbuespenez baizik ez dira zilegi izanen, eite bereko eta larritasun bereziko arau-hausteak behin baino gehiagotan egiteagatik.

111. artikulua. Joko arauen kontrako arau-hauste oso larrien zehapenak.

Joko arauen kontrako arau-hauste oso larriak egiteagatik zilegi izanen da aurreko artikuluan jarritako zehapenak ezartzea edo ondoren aipatzen diren zehapen berariazkoak, kasuko diziplina arauan zenbatesita egonen direnak, foru lege honetako 105. artikulua agintzen duenaren arabera:

a) Kiroldegia ixtea, hiru partidutan gutxienez eta denboraldi batean gehienez.

b) Kategoriaz jaitsaraztea.

c) Egiten ari den kirol lehiaketa edo proba jakinetik behin betiko kanporatzea.

d) Egiten ari den kirol lehiaketa edo proba jakinetik behin-behingo kanporatzea.

e) partida, proba edo lehiaketa ofizialak terreneo neutralean edo atea itxita egitea.

f) Puntuak, partidak edo sailkapen-tokiak gal-tzea, jardunaldi edo proba bat baino gehiagokoa denean.

g) Partida, proba, lehiaketa eta entrenamen-
duak egiten ari direla kiroldegietara sartzeko debekua, urtebetetik bost urtera bitarteko al-dian.

112. artikulua. Kirol jokabideko arau orokorren kontrako arau-hauste larrien zehapenak.

Kirol jokabideko arau orokorren kontrako arau-hauste larriengatik honako zehapenak jartzen ahal dira:

a) Isuna, kasuko diziplina arauan zenbatesita egonen dena, foru lege honetako 105. artikulua-
k agintzen duenaren arabera.

b) Federazioko lizentzia etetea hilabetetik den-
boraldi batera arteko al-dian.

c) Federazioko kargu eta eginkizunetan aritze-
ko debekua hilabetetik urtebetera arteko al-dian.

113. artikulua. Joko arauen kontrako arau-hauste larrien zehapenak.

Joko arauen kontrako arau-hauste larriengatik aurreko artikuluan aipatu zehapenak jartzen ahal dira edo ondoren esaten diren zehapen berariaz-
koak, kasuko diziplina arauan tipifikatuta egonen direnak, foru lege honetako 105. artikulua-
k agintzen duenaren arabera:

a) Kiroldegia bi partidurako, gehienez, ixtea.

b) Egiten ari den kirol lehiaketa edo proba jaki-
netik behin betiko kanporatzea.

c) Partida, proba edo lehiaketa ofizialak terre-
no neutralean edo atea itxita egitea.

d) Puntuak, partidak edo sailkapen-tokiak gal-
tzea.

e) Partida, proba, lehiaketa eta entrenamen-
duak egiten ari direla kiroldegietara sartzeko debekua, hilabetetik urtebetera bitarteko al-dian.

f) Jendaurreko erasia.

g) Buruz buruko erasia.

114. artikulua. Kirol jokabideko arau orokorren kontrako arau-hauste arinen zehapenak.

Kirol jokabideko arau orokorren kontrako arau-hausteengatik honako zehapenak jartzen ahal dira:

a) Isuna, kasuko diziplina arauan tipifikatuta egonen dena, foru lege honetako 105. artikulua-
k agintzen duenaren arabera:

b) Jendaurreko erasia.

c) Buruz buruko erasia.

115. artikulua. Joko arauen kontrako arau-hauste arinen zehapenak.

Joko arauen kontrako arau-hauste arinengatik, aurreko artikuluan aipatu zehapenak jartzen ahal dira edo bestela, berariazko zehapentzat, egiten ari den kirol lehiaketa edo proba jakinetik behin behingoz kanporatzea. Betiere zehapena kuantifi-
katuta ageriko da kasuko diziplina arauan, foru lege honetako 105. artikulua-
k agintzen duenaren arabera.

116. artikulua. Zehapenen araubidea eta gra-
duazioa.

1. Foru Komunitateko administrazioak zilegi izanen du aurreko artikuluetan ezarritako zehapen taulan graduazioak ezartzea.

2. Federazioetako estatutu eta erregelamen-
duetan jaso beharko dira aurreko artikuluetan ezarritako zehapen taularen graduazioak, Foru Komunitateko administrazioak agintzen duenari men eginaz.

3. Federazioetako estatutu eta erregelamen-
duetan isun diren zehapenentarako ezartzen den graduazioak foru lege honen garabideko xedape-
netan ezartzen diren gehienezko zenbatekoak begiratu beharko ditu betiere eta hartarako, ez da kontuan hartuko azken buruko emaitza kirol eiteko elementuengatik (partidak, egunak, hilabeteak, denboraldiak edo antzeko kontzeptuak) gutxiago-
ko zenbatekoak batzearen ondoriozkoa den ala kontzeptu bakarrarengatik ezarri den.

4. Zilegi izanen da isuna, oro har, zehapen nagusia izateaz gain, osagarritzak ere izatea.

5. Kirol klub edo erakundeek erantzunbehar solidarioa izanen dute beren kirolari, kirol teknikari edo laguntzaileei joko arauen kontrako arau-haus-
teengatik zehapen nagusi nahiz osagarritzat ezar-
tzen zaizkien diru bidezko zehapenen gainean, nahiz eta erakunde horiek zilegi izanen duten pagatutako diru kopuruak kobratzea pertsona horiei, delako kirolari, kirol teknikari edo laguntzai-
leek beren zerbitzuengatik lansaria jasotzen badu-
te.

117. artikulua. Proporzionaltasun irizpideak.

1. Zehapenak ezartzeko, kontuan hartuko da zer inguruabar gertatzen ziren arau-haustea egin zen momentuan; hauek bereziki:

a) Arau-haustea nolakoa den.

b) Arau-hausteak zer irispide duen kirolaren arloan.

c) Arau-hausteak zer ondorio dituen.

d) Aurrez ohartarazpen ofizialik egin zitzea.

e) Arau-haustea jakinaren gainean egin den.

f) Arau-hausleak teknikoki zenbateraino zekien jobakideko xehetasunen berri, haren lanbidearen arabera edo kirol jardueren arloarekin duen loturaren arabera.

g) Arau-hauslea kirolaren arloko erantzunbehar bereziak izatea.

2. Hauek hartuko dira betiere inguruabar larri-garriztat:

a) Arau-haustea berriz egin izatea.

Foru lege honek agintzen duenari begira, arau-haustea berriz egin dela juzgatuko da arau-hausleei lehendik ezarri bazitzaie kirol bideko zehapen irmoa, larritasun maila bereko edo handiagoko arau-hauste batengatik edo larritasun gutxiagoko bi edo gehiago arau-hausterengatik.

Arau-haustea berriz egin dela juzgatzeko epea lehenbiziko arau-haustea egiten denetik urtebetekoa izanen da.

b) Prezioa.

3. Hauek hartuko dira betiere inguruabar arin-garriztat:

a) Arau-hausleari bere buruz damutzea egingakoa.

b) Arau-haustearen aurretik behar adinako probokazioa egon izana.

118. artikulua. Betearazteko epea.

1. Kirol jokabideko arau orokorren edo joko arauen kontrako arau-hausteengatik jarritako kirolaren arloko diziplina zehapenak berehala betearaztekoak dira.

2. Berehala betearaztekoak badira ere, zehapen horien kontrako helegiteak ebazteko eskudun den organoak zilegi izanen du ofizioz edo parte interesatu batek espreski hala eskatuta zehapenaren betearazpena etetea helegitea tramitatzen ari den bitartean. Helegitea jartze hutsak ez du helegindako egintza betearaztea etengo.

119. artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.

1. Titulu honetan arautzen diren arau-hauste eta zehapenek honako preskripzio epeak izanen dituzte:

a) Arau-hauste arinek eta haien zehapenek, hiru hilabeteren buruan.

b) Arau-hauste larriek eta haien zehapenek, sei hilabeteren buruan.

c) Arau-hauste oso larriek eta haien zehapenek urtebeteren buruan.

2. Arau-hausteen preskripzio epea arau-haustea egin den egunetik hasiko da kontatzen.

Jarduera jarraitu baten ondorio diren arau-hausteetan, preskripzio epea kontatzen hasteko eguna jarduera hori bukatzen dena izanen da edo arau-haustea gauzatu duen azken egintzarena.

3. Zehapenen preskripzio epea zehapena ezartzen duen ebazpena irmotu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

4. Zehapen prozedura hasteak eten eginen du preskripzio epea, baina prozedura hori hilabete baina gehiagoan geldirik egoten bada prozedura horren peko pertsonari edo erakundeari ezin egozteko moduko arrazoi batengatik, berriz hasiko da kontatzen preskripzio epea.

120. artikulua. Kirolaren arloko diziplina erantzukizuna itzaltzeko arrazoiak.

Hauek hartuko dira betiere kirolaren arloko diziplina erantzukizuna itzaltzeko arrazoitzat:

a) Pertsona salatua edo zehatua hiltzea.

b) Salatu edo zehatutako kirol erakundea itzaltzea.

c) Zehapena betetzea.

d) Arau-hausteek edo ezarritako zehapenek preskribitzea.

e) Zehapena kentzea.

121. artikulua. Diziplina espedientearen beharra.

Kirolaren arloko diziplina zehapenak ezartzeko bide bakarra izanen da titulu honetan eta haren garabideko xedapenetan ezarritako prozeduren araberrako espedientearen eratzeta.

122. artikulua. Ohiz gaineko prozedura.

1. Joko arauen kontrako arau-hausteen zehapenak ezartzeko ohiz gaineko prozedura aplikatuko da arau-hauste horiek diziplina organoek berehala esku hartzea eskatzen badute, partida, proba edo lehiaketaren aurrerabide normala segurtatzeagatik.

2. Ohiz gaineko prozeduraren helburua da delako partida, proba edo lehiaketaren aurrerabide normala segurtatzea eta interesatuen entzu-

naldiaren tramitea eta erreklamazio eskubidea segurtatzea.

3. Hartarako ezartzen diren epeek sumarietate eta efikaziaren printzipioak izan behar dituzte gidari. Ustezko arau-hausleak, betiere, eskubidea izanen du interesatuaren entzunaldirako tramite laburtua iraungi baino lehen zer akusazio egiten zaion jakiteko, alegazioak egiteko eta frogak proposatzeko.

123. artikulua. Prozedura arrunta.

1. Kirol jokabideko arau orokorren eta joko arauen kontrako arau-hausteengatik zehapenak ezartzeko prozedura arrunta erabiliko da baldin arau-hauste horiek ez badute eskatzen diziplina organoek berehala esku hartzerik delako partida, proba edo lehiaketaren aurrerabide normala segurtatzeko.

2. Prozedura arrunta foru lege honek eta haren garabideko xedapenek agintzen dutenaren arabera izanen da eta, oro har, administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako administrazio Prozedurari buruzko arauetan ezartzen diren zehapen ahalmen eta zehapen prozeduraren arabera.

124. artikulua. Behin-behineko neurriak.

1. Prozedura hasi ondoren nahiz hasi aurretik, diziplina espedienteak eratzeko eskudun den organoak zilegi izanen du bidezko iruditzen zaizkion behin-behineko neurriak erabakitzea, zertarako eta gero batean eman litekeen ebazpena efikaz izatea, prozedurak fin ona egitea, arau-haustearen ondorioek ez irautea eta, hala bide denean, jokoan diren interes kolektiboak eskatzen dutena segurtatzeko.

2. Behin-behineko neurri horiek, ez baitira inoiz zehapenezkoak izanen, honakoetako bat izan daitezke:

- a) Fiantza bat eskatzea.
- b) Jarduera aldi baterako etetea.
- c) Lizentzia aldi baterako etetea.
- d) Nafarroako kirol federazioetako zuzendaritza karguak aldi baterako etetea.
- e) Prozedura sortzen duten egitateekin lotura zuzena duten objektuak bahitzea.
- f) Beharrezko direla juzgatzen den beste neurri guztiak.

IX. TITULUA **Kirol justizia**

I. KAPITULUA **Nafarroako Kirol Justiziako Batzordea**

125. artikulua. Zer den.

1. Nafarroako Kirol Justiziako Batzordea Foru Komunitatean kirol justiziaren arloko gorengo organoa da.

2. Nafarroako Kirol Justiziako Batzordea Foru Komunitateko kirol administrazioari atxikia egonen da organikoki baina zeharo beregain arituko da bere eginkizunetan eta bere eskumenpeko gaietan berak erabakiko du, administrazioko azken instantzia gisa.

126. artikulua. Eskumenak.

1. Hona Nafarroako Kirol Justiziako Batzordearen eginkizunak:

a) Kirol federazioen edo hala bide denean beste kirol erakunde batzuen erabakien kontra jartzten diren helegiteak tramitatu eta ebaztea, erabaki horiek erakunde horiek delegaturik dituzten eginkizun publikoak erabiliz hartuak direnean.

b) Kirolaren arloko diziplina ahalmena duten organoek hartutako erabakien kontrako helegiteak aztertu eta ebaztea.

c) Nafarroako kirol federazioetako organoek gobernu eta ordezkaritza organoak hautatzearen gaietan hartzen dituzten erabakien kontrako helegiteak aztertu eta ebaztea.

d) Kirol diziplinaren arloan kirol federazioen artean edo haien diziplina organoen artean sortzen diren gatazkak aztertu eta ebaztea.

e) Kirolaren arloko diziplina espedienteak tramitatu eta ebaztea eta bai dela ofizioz dela Foru Komunitateko administrazioak hala eskatuta aurretik aipatu gaien gainean nahi dituen kontu guztiak aztertzea.

f) Arbitrajearen bidez ebaztea, hala bide denean, kirol federazioen barrenean sortzen diren auzi eta liskarrak.

g) Kirolarien eskubideak defendatzea erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

h) Ordenamendu juridikoarekin bat egotzen edo delegatzen zaizkion beste eskumen guztiak.

2. Nafarroako Kirol Justiziako Batzordearen ebazpenek agortzen dute administrazio bidea, eta zilegi izanen da haien kontra administrazioarekiko auzien jurisdikzioan helegiteak jartzea.

127. artikulua. Batzordekideak eta jardunbidea.

1. Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeko kideak zuzenbideko lizentziatuak izanen dira, kirolaren arlo eta zuzenbidean esperientzia aitortua dutenak.

2. Batzordeak idazkari bat izanen du lagun, hizpidea bai baina botorik izanen ez duena. Foru Komunitateko kirol administrazioak izendatuko du idazkaria bere funtzionarioetatik kirolaren arloan eta zuzenbidean esperientzia aitortua duenen bat hautatuta.

3. Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordearen osaera eta jardunbidea erregelamendu bidez ezarriko da.

4. Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordeko kideen karguak ohorezkoak izanen dira eta xedapen indardunen arabera zor diren dietak beste diru ordainik ez dute sortuko.

II. KAPITULUA Arbitrajea

128. artikulua. Federazioaren eremua.

1. Federazioetako estatutu eta erregelamenduek arbitrajearen sistema ezarri eta arautuko dute berek xedatu beharreko gaiei buruz federazioen barrenean eta bai federazioetako kideen artean sortzen diren auzi-liskarrak auzitegira jo gabe ebazteko.

2. Gai horren gaineko lege orokorrek agindu bezalako modu eta baldintzetan, erregelamendu bidez ezarriko da eremu honetako arbitraje araubidea.

3. Erregelamenduzko arau horiek alderdi hauek jaso beharko dituzte:

a) Arbitrajearen xede izan daitezkeen gaien zerrenda.

b) Ukitutako pertsonen arbitraje modu horiek onartzeko moduak.

c) Arbitraje modu horiek aplikatzeko prozedura, betiere kontradikzio eta berdintasun printzipioak errespetatuz.

d) Arazoak konpontzeaz arduratuko diren organo edo pertsonak eta horiek izendatzeko prozedura.

e) Laudoak betearazteko bideak.

4. Arbitraje sistemai men egitea betiere borondatezkoa izanen da eta debeku izanen da inolako erabaki edo arauen bidez kirol federazioetako per-

tsona edo erakundeak behartzea beren gatazkak arbitro bidezko formulekin konpontzera.

129. artikulua. Arbitrajea sustatzea.

Foru Komunitateko administrazioak arbitrajea sustatuko du kirol gaietako gatazkak konpontzeko bidetzat.

Xedapen iragankorrak

Lehenbizikoa. Kirol erakundeen estatutu eta erregelamenduen moldaketak.

1. Nafarroako kirol klubak, kirol klub filialak, kirol federazioen eta kirola sustatzeko erakundeen estatutu eta erregelamenduak foru lege honek ezartzen duen erregulazioaren arabera moldatuko dira behar den neurrian, legearen garabideko xedapenek ezartzen dituzten epeetan.

2. Aipatu erregelamendu garapena egiten ez den bitartean, segituko dira aplikatzen kirol erakundeen estatutu eta erregelamenduetako xedapenetatik foru lege honetan ezartzen den erregulazioari kontra egiten ez diotenak eta indarrik gabe utziko dira hari kontra egiten dioten guztiak.

Bigarrena. Erabilera publikoko kirol instalazioak.

Foru Komunitateko administrazioak eta toki-entitateek urtebeteko epea izanen dute foru lege honek indarra hartzen duenetik aitzina, arkitektura-oztopoei buruz xedatutakora egokitu ditzaten euren kirol-instalazioak.

Hirugarrena. Diziplina espedienteak.

Foru lege honek indar hartzen duen egunean lehendik tramitatzen ari ziren diziplina espedienteak segituko dira aurreko arauen arabera tramitatzen, hau da, berariaz urriaren 13ko 305/1998 Foru Dekretua, Nafarroako kirol arloko diziplina arautzekoa, nahiz eta zilegi izanen den foru lege honetan agindutako zehapen araubidea aplikatzea espedientatuak hobe duenean.

Laugarrena. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatzeko xedapenak ematen ez dituen bitartean, foru lege honek indar hartzen duenean indar duten foru xedapenak aplikatuko dira, hari kontra egiten ez dioten guztian.

Xedapen indargabetzailea

Bakarra. Indargabetze orokorra.

Indargabetzen dira foru lege honi kontra egiten dioten maila bereko nahiz apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehendabizikoa. Zehapenak nola errebisatu eta eguneratu.

1. Zilegi izanen da kirol gaietako administrazio arau-haustek egitearen zehapenak, foru lege honetako I. kapituluko VIII. tituluaz ezartzen direnak, Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuei buruzko legeetan errebisatu eta eguneratzea edo kontsumoko prezioen indizea edo erakunde ofizial eskudunak haren ordetako onesten duen bizitzako kostuaren indizea aplikatuz.

2. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du kirol gaietako administrazio arau-haustek egitearen zehapenak, foru lege honetako III. kapituluko VIII.

tituluaz ezartzen direnak, errebisatu eta eguneratzea.

Bigarrena. Nafarroako liga profesionalak.

1. Foru Komunitateko administrazioak zilegi izanen du Nafarroako liga profesionalari eskumen eskusiboak esleitzea Nafarroako beste elkarte batzuen gaineratik eta eginkizun publikoak delegatzea Nafarroako kirol lehiaketa profesionalen arloan.

2. Hartarako, zilegi izanen da foru lege honetan Nafarroako kirol federazioetarako egiten diren erregulazio eta erreferentziak Nafarroako liga profesionalari ere aplikatzea, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

Hirugarrena. Garabidea.

Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Laugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera hartuko du indarra.

Foru Legea, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko plan bereziari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko plan bereziari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko uztailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako plan bereziari buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENEA

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak (Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa) bere 61. artikuluan agintzen du Nafarroako Gobernuak, hartarako gaitasuna ematen dion Foru Lege bat oinarri, inbertsio planak ezarriko dituela toki entitateekin lankidetzan aritzeko tresnatzat, eta plan horien helburu nagusia izanen dela Nafarroako lurralde osoan segurtatzea nahitaezko udal zerbitzuak egon daitezen.

Hori betetzeko, bada, zenbait arau onetsi dira bata bestearen ondotik; haietako berriena 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legea da, orain garatzen eta betearazten ari dena.

Tresna horiei esker, kontsignatutako kapital transferentzien partiketa objektiboa lortu da, nahiz eta aurrekontuaren gutxiegitasunak ezindu duen eskatutako inbertsio guztiak asetzea. Plan horiek betearazteak agerian utzi du zenbait eremuren egoera, beren kokaera geografikoagatik edo populazio gutxi eta barreiatua izateagatik edo bestegatik, makurtu dela, haien inbertsioak ezin izan baitira sartu hiru urteko planetan, beste herrietan lehentasun handiagoko obrak zeudelako, edo haien finantzen egoera oso larria zelako. Inbertsioetarako dirutzak arrazionalki igotzeak ere ez luke egoera hau konponduko.

Aipa dezagun, adibidez, Presio Handiko Urhorniduraren Plan Zuzentzailearen kasua, irispide handikoa delako. Plan hori 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean ageri zen, zeinaren finantzazio arrunta, kapital transferentzien bidez-

koa, inbertsio kostuaren 100eko 90era iristen den. Parte-hartze portzentajea handia bada ere, defizita egoten da halako azpiegituretan Nafarroako zenbait puntutan, batez ere kasuko toki entitateak hartarako finantzazioa bere gain hartu ezin eta ez direlako atxikitzen.

Bestalde, toki programazioko inbertsioei dago-kenez, toki entitate guztiek aurkeztutako eskar-rak hautatu eta lehenesteko formulak aukera ematen du konprobatzeko badi-rela zenbait obra, entitate bakoitzak erabiltzen duen defizit kontzeptuaren arabera laburrera begira beharrezkotzat hartuak baina hala ere inbertsio planetan sartzen ez direnak, zeren aplikatzen diren gainerako aldagaiek, inbertsioak biztanleko duen errentagarritasuna ere barne, nabarmen gutxitzen dutelako obra hautatu eta lehenesteko koefizientea.

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 34. artikulua (Nafarroako toki administrazioari buruzkoa) agintzen du ekintza publikoaren sektoreak arautzeko Foru Komunitateko legeetan zilegi izanen dela araubide bereziak ezartzea zenbait udal-entzatat, baldin beren kokaera geografikoagatik, jarduera nagusiagatik, ondare historikoagatik edo beste edozein berezitasunengatik komeni bada haien antolamenduan edo finantzazio sisteman tratamendu banakatua ematea.

Lortutako esperientzia ikusita, honelako azpiegitura oinarrikoak finantzatu, hautatu eta lehenesteko irizpideak moldatu behar dira, berdin direnek elkarrekin lehiatzeko aukera izateko moduan.

Nafarroako lurraldearen antolamenduan eta hiri sistemaz egin diren ikerketek agertu dute badi-rela garapen sozioekonomiko txikiagoko zenbait udal, eta horren ondorioz heldu zaizkiela gainbera demografikoa, populazioaren zahartzea, euskarri produktibo atzeratua, garapen ekonomikoaren eta dotazioen maila apala eta beste hainbat aldagai esanguratsu.

Kontzeptu horiek parametro harturik, bada, herri zerrenda bat ateratzen da, Nafarroako eremu deprimitutzat jotzeko modukoena; horiei eman nahi zaie finantza tratamendu berezia eta horiek dira foru lege honen helburu.

Oinarriko azpiegiturez hornitzera bultzatzeko asmoan, ezin ahaztu da eginahalean lortu behar dela baliabideen aprobeitxamendurik handiena. Hortaz, eta erdietsi behar den efikazia helburu,

baliteke zenbait ekintzatarako toki entitateen borondatezko elkarteak sortu behar izatea.

Nafarroako eremu deprimituek dituzten premia gero eta handiagoak asetzeko, araubide berezi bat ezarri behar da 2003. urtera arte, indarrean den hiru urteko plana osatzeko, eremu horiek oinarritzko azpiegituretan izaten duten defizita berdintzeko funts eta finantzazio sistema banakatua ezarri, aukera emango diena horko herritarrei gainerako nafarrek eskura izaten dituzten oinarritzko zerbitzuak haiek ere izateko.

Aurreko gutzia gogoan, lagundu behar zaie toki entitate horiei inbertsio behinenak egiteko: Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzailea, ura banatzeko eta saneamendurako sare lokalak eta zoladurak ere barne, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planerako eskaerak oinarri hartuta eta funtsak aplikatzeko arau honek erasaten dien entitateetarako erdietsi diren hautatu eta lehenesteko irizpideak aintzat hartuta.

Finantzazioari dagokionez, Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzaileari 100eko 10 emanen zaio 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planaren Foru Legeak agintzen duenaren osagarri; toki programazioko obretarako eutsi egiten zaio arau hori aplikatuta tokatzen den finantzazioari.

Foru Lege honen ondoriozko dotazioak osagarriak dira 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak agintzen dituenen aldean; biek batera osatzen dute toki ogasunek kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoan Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondotik toki entitateek jaso behar duten kapital transferentzien bidezko aportazioa.

Azkenik, arau honek toki azpiegituren sistemarekiko duen osagarritasuna aitorturik, uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak eta bera garatzeko araudiak agintzen duen prozedura erabiliko da foru lege honek espreski aurreikusten ez dituen ekintzetarako.

1. artikulua. Foru Lege honen helburua da 2001-2003rako plan berezi bat ezartzea toki azpiegituren gaietarakoa, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak agintzen duenaren osagarri. Planak eranskinean ageri diren herriak izanen ditu helburu, foru lege honek agintzen dituenetarako horiek hartzen baitira eremu deprimitutzat.

2. artikulua. Finantzatu beharreko inbertsioak honakoak izanen dira, hurrenez hurren eta inbertsio mota bakoitzari funtsak aplikatuz, behin aurre-

koa osatu ondoren: Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzailea eta 2001-2003rako hiru urteko planean sartu ez diren zoladurari buruzko toki programazioko lanak, baldin eta delako planean sartu ziren ura banatzeko eta saneamendurako sare lokaletarako inbertsioekin lotuta badaude, ura banatzeko eta saneamendurako sare lokalen lanak eta bai, halakorik bada, lan horiek erasandako kale-zoladurako lanak, bi inbertsio motak eskatu badira, eta azkenik zoladura lanak 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeko 2. eta 3. artikuluek zehazten duten moduan.

3. artikulua. Plan berezi honi egiten zaizkion aportazioak, Nafarroako aurrekontu orokorretik kapital transferentziak egitearen bidezkoak, urte bat baino gehiagotan egiten dira, honela:

APORTAZIOAK	2001	2002	2003	Guztira
(Pezetak milakoak)	350.000	650.000	650.000	1.650.000

4. artikulua. Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzailea gauzatu eta betearazteko, aintzat hartuko da 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak eta haren garapeneko araudiek agintzen dutena.

5. artikulua. Toki programazioko lanak hautatu eta lehenesteko, aintzat hartuko da foru lege honek aipatzen dituen toki entitateek 2001-2003rako hiru urteko planaren formazio prozesuan aurkeztutako eskaerek izan duten hautatze eta leheneste koefizientea. Zehaztu diren klaseko lanetatik laburrera begira beharrezkotzat kalifikatu direnak baizik ez dira aintzat hartuko, azpiegituretan bakoitzak duen defizitaren arabera.

6. artikulua. Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzaileko lanetarako aportazioa 100eko 10ekoa izanen da, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko Foru Legeak inbertsio horietarako aurreikusten dituen aportazioen osagarri.

7. artikulua. Toki programazioko lanetarako aportazio araubidea 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko Foru Legeko 9. eta harekin bat datozen artikuluek agintzen dutena izanen da.

8. artikulua. Foru Lege honetan jasotzen den Plan Berezia sortu, garatu, kudeatu eta betearazteko prozedura, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak eta lege hori garatzeko erregelamendua onesten duen azaroaren 20ko 36/2000 Foru

Dekretuak ezartzen dutena izanen da, arau hone-tan aurreikusten diren berezitasunen arabera mol-datua.

9. artikulua. 1. Ekitaldi ekonomiko batean era-biltzen ez diren baliabideak, hurrengo ekitaldikoei erantsiko zaizkie.

Kreditu bat erantsi eta eranste horri baimena eman zaion ekitaldi ekonomikoan aplikatzen ez bada, hurrengo ekitaldiko aurrekontuetako gastu egoerari erantsiko zaio, ekitaldi horretan aplikatze-ko.

2. Eraitzen kontuetako aurrerapenak aurreko ekitaldietako lanen kostu soberakinak berdintzeko erabiliko dira eta bai, hala behartzen bada, lan berriak egiteko ere, 2, 4 eta 5. artikuluetan agin-tzen diren modu eta baldintzetan.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Presio Handiko Ur-hornidura-ren Plan Zuzentzaileko inbertsioak, foru lege honek aipatzen dituenak, toki entitate bat baino gehiagok elkar hartuta egitea beharrezkoa bada, hartarako elkartea sortzea izanen da baldintza; elkarte bakoitzak arau honen eranskinean ageri diren herriek osatua beharko du eta zilegi izanen da beste entitate batzuk ere elkartekide izatea, betiere populazioaren gehiengoa beste herri horietakoa bada.

Bigarrena. Aldatzen da 2001. ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legeko 18. artikulua, eta honela uzten:

“1. Toki Ogasunek Nafarroako Ogasun Publi-koaren tributuetan parte hartzeko fondoaren zen-batekoa, 2001eko ekitaldirako, 27.013.811.000 pezetako izanen da.

2. 2001eko ekitaldirako esleitutako parte-har-tzearen zenbatekoa honela banatuko da:

I. Transferentzia arruntak: 16.916.502.000 pezeta.

II. Kapital transferentziak: 7.046.261.000 peze-ta

III. Bestelako Laguntzak.

A) Iruñeko Udalari, Iruñaren hiriburutasunaren agiriaren aldera: 2.138.691.000 pezeta.

B) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazio-ari: 30.000.000 pezeta.

C) Nafarroako udalentsako diru konpentsa-zioa: 882.357.000 pezeta; haietatik 172.940.000 pezeta zenbait udali emanen zaizkie “gastu apli-katuaren arabera ponderatutako biztanlea” delako aldagaiaren alderako konpentsazio gisa, eta 709.417.000 pezeta 4001etik 40.000 biztanlera bitarteko populazioa duten udalei, finantza efizien-tziaren arabera.

3. Kapital transferentziei dagozkien zenbate-koa banatzeko, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko Foru Legeak eta 2001-2003rako plan bereziaren Foru Legeak toki azpie-gituren gaietan agintzen dutena hartuko da ain-tzat.”

Hirugarrena. Nafarroako Gobernuak 2002. urtean, plan berezi berriaren onespina bultzatu baino lehenago, eremu deprimituetan sarturiko toki entitateen zerrenda berri bat zehazten duen ikerketa sozioekonomiko berri bat egingen du.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-an argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

ERANSKINA

Entitatearen kodea	Toki entitateak	Entitatearen kodea	Toki entitateak
2	ABARTZUZA	81	DONAMARIA
3	ABAURREGAINA	82	ETXALAR
4	ABAURREPEA	87	ELGORRIAGA
8	AGUILAR KODESKOA	90	ERATSUN
11	ALLIN	91	ERGOIENA
	AMILLAO		LIZARRAGA
	ARAMENDIA		DORRAO
	ARBEITZA		UNANU
	ARTABIA	92	ERROIBAR
	ETXABARRI		AINZIOA
	EULTZ		ZILBETI
	GALDIO		ERRO
	LARRION		ESNOTZ
	MUNETEA		AURIZBERRI
	ZUBIELKI		LINTZOAIN
13	AMESKOABARREN		MEZKIRITZ
	ARTATZA		ORONDRITZ
	BAKEDAO		BIZKARRETA-GERENDIAIN
	BARINDAO	93	EZKAROZE
	EKALA	94	ESLABA
	GOLLAO	95	ESPARTZA
	SAN MARTIN-AMESKOA	99	ETAIU
	ZUDAIRI	102	EZKURRA
19	AGOITZ	103	EZPOROGI
21	ARANARATXE		AIESA
24	ARANO	110	GALIPENTZU
26	ARAS	111	GALOZE
28	ARTZIBAR		IZIZE
	ARRIETA		ITZALLE
	ARTOZKI		USKARTZE
	AZPARREN	112	GARAIOA
	LAKABE	113	GARDE
	NAGORE	115	GARRALDA
	SARAGUETA	116	GENEVILLA
	URITZ	118	GOÑERRI
	HIRIBERRI-ARTZIBAR		AIZPUN
31	ARESO		AZANTZA
33	ARIA		GOÑI
34	ARIBE		AMUNARRITZ
43	AZUELO		URDOTZ
52	BERASKOAIN	119	GORZA
55	BETELU		GORZA
58	AURITZ		IGARI
59	BURGI	120	GESALATZ
63	CABREDO		ARGIÑAO
71	GAZTELUBERRI		ESTENOTZ

Entitatearen kodea	Toki entitateak	Entitatearen kodea	Toki entitateak
	GARISOAIN		MURELU-LONGIDA
	GENBE		BILLABETA
	IRURRE	162	MARAÑON
	ITURGOIEN	170	MIRAFUENTES
	IZURTZU	175	MUES
	LERATE	181	NABASKOZE
	MUETZ		AIZPURGI
	MUNIAN-GESALATZ		NABASKOZE
	BIDAURRE		USTAIZE
121	GIRGILLAO	182	NAZAR
	ETXARREN-GIRGILLAO	185	OTSAGABIA
	GIRGILLAO	187	OITZ
124	IBARGOITI	190	OLEXUA
	ABINTZAO	192	OLORITZ
	IDOTZIN		ETXAGUE
	IZKO		MENDIBIL
	GETZE-IBARGOITI		OLORITZ
128	IZABA		SOLTXAGA
132	ITZAGAONDOA	195	ORBAITZETA
	ARDATZ-ITZAGAONDOA	196	ORBARA
133	ITZALTZU	197	ORISOAIN
134	JAURRIETA	198	ORONTZE
135	XABIER	199	OROTZ-BETELU
137	LABAIEN	203	PETILLA DE ARAGÓN
139	LANA	204	PIEDRAMILLERA
	GALBARRA	209	ERROMANTZATUA
	GASTIAIN		ARBONTZE
	NARKUE		BIOTZARI
	BILORIA		DOMEÑU
141	LAPOBLACION		MURILLO-BERROIA
	LAPOBLACION	210	ERRONKARI
	MEANO	211	ORREAGA
143	LARRAGOA	213	SALDIAS
146	LEATXE	214	JAITZ
147	LEGARDA	217	SAN MARTIN UNX
150	LEOTZ	222	SARTZE
	ARTARIAIN		IBILTZIETA
	IRATXETA		SARTZE
	LEOTZ	225	SORLADA
	OLETA	230	TORRALBA DEL RIO
151	LERGA		OTIÑANO
154	LEZAUN		TORRALBA DEL RIO
156	LIZOAIN	235	UXUE
158	LONGIDA	237	UNTZITIBAR
	AOS		ALTZORRITZ
	ARTAXO		ARTAITZ
	EKAI		

Entitatearen kodea	Toki entitateak	Entitatearen kodea	Toki entitateak
	ZENBORAIN	247	UZTARROZE
	NAXURIETA	248	LUZAIDE
	UNTZITI	252	BIDANKOZE
	ZABALTZETA	255	VILLAMAYOR DE MONJARDÍN
238	UNTZUE	256	HIRIBERRI-AEZKOA
241	URRAULGOITI	261	ESA
	AIETXU	262	ZABALTZA
	IMIRIZALDU		ARRAITZA
	IRUROZKI		UBANI
	ONGOTZ		ZABALTZA
243	URROTZ		ZABALTZA
244	URROTZ	263	ZUBIETA
245	URZAINKI	264	ZUGARRAMURDI

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko uztailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduna arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena

SARRERA

I. Telekomunikazioen arloa liberalizatzeko prozesuak eta ikus-entzunezkoen arloko teknologia-aren aurrerabide handiak nabarmen handitu dute soinuen eta telebista seinaleen irrati-hedapenerako zerbitzuen eskaintza, Estatuan nola autonomia erkidegoetan. Hortaz, ezinbestekoa da behar diren neurriak hartzea sortzen joanen diren premiak asetzeko, teknologia berriak erabiltzeak ezin gehiagoko inportantzia baitu bai ekonomia eta gizartearen arloan eta bai kulturaren eta aisiarenean, kontuan hartuta gaur egun komunikabideek gizarte osoan berebiziko eragina dutela. Beharrezkoa da beraz, komunikabide horien jarduera arautzea Nafarroako gizartearen aniztasunari babesteko.

II. Ikus-entzunezkoen sektoreak gaur duen araubide juridikoak urtarrilaren 10eko 4/1980 Legea du abiaburu, Irrati eta Telebistako Estatuaren gainekoa, zeinak soinuen eta telebista seinalen irrati-hedapenari Estatuaren titulartasuneko zerbitzu publiko funtsezkoen itxura eman zion,

Konstituzioko 128.2 artikulua agintzen zuen bezala.

Ondoren, eta aipatutako legea garatzeko, zenbait lege eman dira, haietako asko partez nahiz osorik indargabetuak. Hona aipagarrienetako batzuk: Telebistako hirugarren kanala arautzen duen abenduaren 26ko 46/1983 Legea (esku ematen dio Gobernuari behar diren neurriak hartzeko Estatuaren titulartasuneko hirugarren kanal bat abiarazteko eta hura kontzesio-araubidean emateko autonomia erkidego bakoitzaren lurralde esparruan); 10/1998 Legea, maiatzaren 3koa, Telebista pribatuaren gainekoa (ezartzen du telebistaren zerbitzu publiko funtsezkoa besteren bidez kudeatuko dela, sozietate anonimoen kontu utzirik, administrazio-kontzesioaren araubidean); 37/1995 Legea, abenduaren 12koa, Satellite bidezko telekomunikazioei buruzkoa (ezartzen du zer araubide berariazko izanen duen zerbitzu horrek, publikotasuna galtzen baitu nazioarteko itun eta hitzarmenen arabera komunikazio-sateliteak erabiltzen direnean); 41/1995 Legea, abenduaren 22koa, Lurreko uhinen bidezko toki telebistari buruzkoa (aurreikusten du toki esparruko kanalak udalek zuzenean kudeatzea edo besteren bidez, administrazio-kontzesioaren araubidean kudeatzea, bai eta autonomia erkidegoek eskumena dutela kate-emisioak baimentzeko); 42/1995 Legea, abenduaren 22koa, Kable bidezko telekomunikazioen gainekoa, eta 66/1997 Legea, abenduaren 30ekoa, Zerga, administrazio eta gizarte arloko neurrien gainekoa, zeinak bere 44. xedapen gehigarrian arautzen baitu soinuen irrati-hedapen digital lurrekoaren eta telebista digital lurrekoaren araubide juridikoa.

Lege testu horiek, maila apalagoko beste osagarriko batzuek eta zenbait lege berariazkoak (azaroaren 11ko 34/1988 Legea, kasu, Publizitateari buruzko Lege Orokorra), ezartzen dute soinuen eta telebista seinaleen irrati-hedapena gizarte komunikabideak direla, alderdi teknikoak

ezertan eragotzi gabe, horiek honako testuetan arauturik baitaude, besteak beste: apirilaren 24ko Telekomunikazioei buruzko 11/1998 Lege Orokorra, zeinak, hala ere, ez duen indargabetzen aurreko 31/1987 Legea, abenduaren 18koa, Telekomunikazioak antolatzea, soinuen eta telebista seinaleen irrati-hedapenari dagokionez.

III. Nafarroako Foru Komunitatean, Espainiako Konstituzioak VIII. tituluko III. kapituluko 149.1-27 artikuluan agintzen duenaren arabera eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoko 55.1 artikuluan agintzen duenarekin bat, (zeinean ezartzen baita Nafarroari dagokiola soinuen eta telebista seinaleen irrati-hedapenaren araubideari buruzko legegintza garapena egin eta betearaztea, Irrati eta telebistaren estatutu juridikoa arautzeko Legeak ezarri bezalako kasu eta moduetan, honako foru lege hau ematen da, helburua delarik Nafarroako Foru Komunitatean ikus-entzunezko jardueraren araubide juridikoa arautzea, zein ere hedapen bide tekniko eta kudeaketa modu erabiltzen den.

Foru Lege honek uztailaren 12ko 25/1994 Legeak agintzen duena hartzen du abiapuntu, zeinak arautzen baitu nola eratziki Espainiako ordenamendu juridikoari 89/552/EEE Zuzentaraua, estatu erkideek telebista seinaleen irrati-hedapeneko jardueraren gainean hartzen dituzten lege, erregelamendu eta administrazio xedapenak koordinatu beharraren gainekoa, ekainaren 7ko 22/1999 Legeak aldatua. Zuzentarau horrek Europako Kontseiluan 1989ko maiatzaren 5ean izenpetu zen mugaz gaineko telebistari buruzko Europako Hitzarmena du aurrekari, eta bertan esaten denez, telebista, egoera normaletan, zerbitzu bat da, zeinaren zirkulazio askea adierazpen askatasunaren oinarri orokorrenaren berariazko adierazpidea baita.

IV. Foru lege honek egitura hau du: zazpi kapitulu, lau xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

1. I. kapituluak, "Xedapen Orokorrez" ari dela, Legeak zer helburu dituen biltzen du, zer lurralde esparrutan aplikatzen den eta ikus-entzunezko jarduerak zer programazio irizpide bete behar dituen.

Lehenbizi, foru lege hau Nafarroako Foru Komunitateko lurraldeaz barneko soinuen eta telebista seinaleen irrati-hedapenen zerbitzuei aplikatuko zaie, zein ere zabalpen bide erabiltzen duten; horren barrenean zabalagoko estaldura duten komunikabideek berariaz Nafarroako lurraldera mugatuta egiten dituzten emisioak ere sar-

tzen dira. Soinuen irrati-hedapen eta telebista zerbitzu hauei ere aplikatuko zaie: Nafarroako Foru Komunitateak berak zuzenean edo bere autonomia esparruan titulu gaitasun-emailea eman dien operadoreek egiten dituztenak.

Bigarrenik, Nafarroako Foru Komunitateko ikus-entzunezko jarduerak pertsonen eskubide eta askatasunekiko begirunearen eta Konstituzio-ko printzipioen arabera beharko du, eta zehazkiago, Nafarroako Foru Komunitatearen nortasuna, instituzioak eta sinboloak errespetatu beharko ditu.

2. II. kapituluaren gaia da telebistako zenbait programaren sustapena eta banaketa.

Ekainaren 7ko 22/1999 Legeak autonomia erkidegoek beren ikus-entzunezkoen ekoizpena sustatzeko eskumena dutela dio. Horri begira, oro har ezartzen da foru lege honek finkaturiko esparruan telebistako zerbitzu publikoa ematen duten entitateen urteko emisio denboraren ehuneko 10 Nafarroako lanen hedapenerako erreserbatuko dela.

Horrez gain, erreserbako denbora horren ehuneko 10eko erreserba ezartzen da Nafarroako ekoizle independenteen lanak emititzeko, eta lan horietako gehienak azken bost urtean eginikoak izan beharko dira.

Bestalde, lehenago aipatutako zuzentaruarekin bat, emisio denboratik kanpo daude albiste emanaldiak, kirol transmisioak, lehiaketak edo jokoak, publizitatea, zerbitzu interaktiboak eta teletestukoak eta jendearentzako zuzeneko eskaintzak, produktuak salerosi, errentan hartu edo zerbitzuak emateko.

3. III. kapituluak telebistako publizitatea eta telebistako patrozinoak hartzen ditu gai eta bai bata zein besteak erregulatzeko arauak ematen. Horrela bada, Publizitateari buruzko Lege Orokorra agintzen duenaz gainera, finkatzen da zein kasutan joko den telebista bidezko publizitatea bidegabekotzat, eta bai debeketzen ere zenbait publizitate helburu, hala nola zigarroei eta gainerako tabako gaiei buruzkoa.

Edari alkoholikoen publizitatea irizpide hertsien azpian ezartzen da, eta zehazten da zein pertsona mota ezin hartuko dituen helburu (adingabekoa), zein mezu izanzen diren debeku (arrakasta, errendimenduaren hobekuntza eta abar) eta zein xede ez diren bilatuko.

Zenbait arau finkatzen ere dira erregulatzeko zenbat denbora eman daitekeen publiziterako eta telesalmentarako, eta telebista patrozinoaren arauak ere ematen ditu.

4. IV. kapituluak adingabeak telebista programazioaren osotasunean nola babestu hartzen du gai, haien garapen fisiko, mental eta moral egokia babestu beharrez; V. kapituluak ikusleek telebista-programazioa aurrez jakiteko duten eskubidea aipatzen du. Kapitulu horren barnean, beharkizun berri bat ageri da, alegia, programazioa telebista-ko operadoreen web orrian egotearena, horrelakorik badute, eta berdin operadoreek eskaintako telebista kanalen izaerari dagokion informaziorako.

5. VI. kapituluak, eta ekainaren 7ko 22/1999 Legeak autonomia erkidegoei ematen dien zehapen eskumena lagun, ezartzen du zer zehapen araubide izanen den eta bai zehapenak zer gradutan jarriko diren eta zer ondorio izanen dituzten ere; Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua izanen da ikuskaritza, kontrol eta zehapen arloetako organo eskuduna.

6. Azkenik, VII. kapitulan Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen da, aginte-gune independente gisa, Nafarroako ikus-entzunezkoen sektoreko edukiei erreparatzeko, irudia eta soinua transmititzeko zein ere bide erabiltzen diren gaurko teknologia berriak ikus-entzunezkoen programazioa eta informazio saioak zabaltzeko ematen dituen aukeretatik. Ikus-entzunezkoen Kontseilua Nafarroako Parlamentuak hautatzen du eta, besteak beste, zehapen arloko eskumenak ditu; soinuen eta telebista seinaleen irati-hedapeneko zerbitzuak emateko titulu gaitasun-emaileak ematearen inguruko aldeko txostena ematen du edo Gobernuari itzultzen dio, beste modu batean aurkezteko, eta ikus-entzunezko komunikabideak inskribatu beharreko erregistroa kudeatzen du.

Hortaz, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak ikus-entzunezkoen gaineko agintea izanen du Nafarroan, eta lege indardunak, bai Europakoak nola Espainiakoak, bete daitezzen begiratzeko ardura ere izanen du. Begiratuko du ere komunikabideetan, bai barnez eta bai kanpoan aniztasuna egon dadin, informazioa objetiboa eta gardena izan eta zintzotasunez eman dadin, eta informazio bideek zerbitzu publikoa emateko duten eginkizuna bete dadin.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua

Foru lege honek honako helburuak ditu:

1. Nafarroako Foru Komunitatean ezartzea soinuen eta telebista seinaleen emisioak modu librean hedatu eta jasotzea bermatuko duen araubide

juridikoa, zein ere den hedapenerako bide teknikoa eta emisio horiek kudeatzeko modua.

2. Telebistako ekoizpen batzuen sustapena.

3. Telebistako publizitatea arautzea, era eta modu guztietan.

4. Telebistako patrozinioa erregulatzea.

5. Erabiltzaileen interes bidezkoak defendatzea eta bereziki adingabekoenak, haien garapen fisiko, mental eta moral egokia babesteko.

6. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzea.

Hori dena, ezertan galarazi gabe publizitate, osasun, medikamentu eta kontsumitzaile eta erabiltzaileak babestearen gaineko legeak aplikatzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Foru Lege hau Nafarroako Foru Komunitateko lurraldeaz barneko soinuen eta telebistako seinaleen irati-hedapeneko zerbitzuei aplikatuko zaie, zein ere zabalpen bide erabiltzen duten; horren barnean zabalagoko estaldura duten komunikabideek berariaz Nafarroako lurraldera mugaturik egiten dituzten emisioak ere sartzen dira. Soinuen eta telebistako seinaleen irati-hedapeneko zerbitzuei ere aplikatuko zaie, Nafarroako Foru Komunitateak berak zuzenean edo bere autonomia esparruan titulu gaitasun-emailea eman dien operadoreek egiten dituztenei.

2. Foru lege honen II. kapituluak ez zaie aplikatuko sare nazional bateko kide ez diren toki estaldurako telebista emisioei.

3. artikulua. Programazioaren printzipioak.

Soinuen eta telebistako seinaleen irati-hedapeneko zerbitzuak ematen dituzten entitateen edo kontzesio-hartzaileen emisioak honako printzipio hauen mende egonen dira:

a) Pertsonen duintasuna, haren eskubideak eta haren nortasunaren garapen librea errespetatzea, askatasun ideologikoa, kulturala, soziala, erlijioso eta kulturakoa bermatuz, eta pentsaera, ideiak eta iritziak libreki adierazi, zabaldu, jakinarazi edo jasotzeko eskubidea, oinarrizko eskubide eta askatasun horiek arautzen dituzten lege organikoak ezarritakoak izanik muga bakarrak.

b) Espainiako Konstituzioa eta Foru Komunitateko arau indardunak mamitzen dituzten printzipio eta baloreak errespetatzea; haien artean aipatzeak dira pertsonen ohorea, intimitatea, norbere irudia, izen ona eta bizitza pribatua errespetatu beharra eta bai Konstituzioak aitortzen eta segurtatzen dituen eskubide eta libertateak.

c) Nafarroako Foru Komunitateko nortasuna, instituzioak eta sinboloak errespetatzea, eta beraz Foru Komunitateko lurraldea noiznahi errealitate independente eta berezitu gisa aurkeztea, bai grafikoki eta bai deskripzioetan, ordenamendu

d) Aniztasun politiko, juridiko, erlijiozko, sozial, kultural, ideologiko eta linguistikoa errespetatzea.

e) Informazioaren objektibotasuna, egiazkotasuna eta inpartzialtasuna begiratzea, eta bai informazioa eta iritzia ongi bereiztea, iritzia nork ematen dituen ongi identifikatzea eta iritzi horiek libre adierazten uztea, Espainiako Konstituzioaren 20. artikuluko 4. idatz-zatiko mugen barrenean.

f) Gazteak eta haurrak babestea, lege indardunek agintzen dutenaren arabera.

g) Foru Komunitateko interesak defendatzea, hartarako hemengo gizarte taldeen parte-hartzea bultzatuz, esparru horretan kultura eta bizikidetasuna sustatu, bultzatu eta defendatzea helburu.

h) Legearen aurreko berdintasunaren printzipioa errespetatzea, eta jaiotzaz, arrazaz, sexuz, erlijioz, iritzi edo inolako egoera edo ingurabar pertsonal nahiz sozialengatik diskriminaziorik ez izatea.

II. KAPITULUA

Irrati eta telebistako zenbait programaren sustapena, banaketa eta ekoizpena

4. artikulua. Nafarroako lanak.

1. Telebistako operadoreek emisio denboraren ehuneko 10 erreserbatu beharko dute Nafarroako ikus-entzunezko lanen zabalpenerako.

2. Nafarroako lanak izanen dira jatorria Nafarroako Foru Komunitatean dutenak, partaide diren egile, aktore, teknikari edo bestelako langileen ehuneko 51 Foru Komunitateko lurraldean bizi baldin badira.

Lan horiek ondoko baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

a) Foru Komunitatean ezarritako ekoizle batek edo gehiagok eginak izatea.

b) Ekoizpena Foru Komunitatean ezarritako ekoizle batek edo batzuek gainbegiratu eta kontrolatua izatea.

c) Batzuen arteko ekoizpenaren kasuan, hura ez badute Foru Komunitateatik kanpo ezarritako ekoizle batek edo batzuek kontrolatzen, ekoizpenaren kostu osoa Foru Komunitatean ezarritako ekoizleen diruaz finantzatzea, zati handiengan.

3. Aurreko idatz-zatiari jarraikiz nafarrak ez diren lanak, baina haien partaide diren aktore, egile, teknikari edo bestelako langileen ehuneko 51 Foru Komunitatean bizi baldin badira, Nafarroako lanak izanen dira Nafarroako ekoizleen kontribuzioa ekoizpenaren kostu osoan zenbatekoa den, horren arabera.

5. artikulua. Nafarroako lanak, ekoizle independenteenak.

Telebistako operadoreek, aurreko artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako denboraren barrenean, emisioa denbora osoaren ehuneko 10, gutxienez, erreserbatuko dute telebista entitateekin zerikusirik ez duten ekoizle independenteek eginiko nafar lanetarako; lan horien erdia baino gehiagok azken bost urtean eginga beharko du izan.

6. artikulua. Denboran ez sartzea.

1. Kapitulu honen aurreko artikuluen ondorioetarako ez dira emisio denboran sartuko albiste emanaldiak, kirol transmisioak, lehiaketak edo jokoak, publizitatea, telesamenta eta zerbitzu interaktiboak eta teletestukoak.

2. Ondorio horietarako ere, operadore baten telebista emisioetarako ordainketa zerbitzuak, eskaintza zehatz baten barrenean, batera eta bereizi ezinik, kontratatzen badira, artikuluko horien xedapenak emisio denbora osoari aplikatuko zaizkio.

III. KAPITULUA

Telebistako publizitatea, telesalmenta eta telebistako patrozinioa

7. artikulua. Zer publizitate eta telesalmenta ez diren zilegi.

1. Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Legeko 3. artikulua aipatzen dituen publizitate moduez gain, honakoak ere ez dira behin ere zilegi izanen: giza osasunerako edo segurtasunerako kalte diren jokaerak bultzatzen dituzten telesalmenta eta publizitatea, edo ingurumeneko kalte direnak, pertsonen duintasunari edo haien sinismen erlijioso nahiz politikoei zor zaien errespetua hondatzen dutenak edo pertsonak jaiotzaz, arrazaz, sexuz, erlijioz, nazionalitatez, iritzi edo beste edonolako inguruabar pertsonal nahiz sozialengatik diskriminatzen dituztenak.

2. Orobat, ez dira zilegi izanen indarkeria edo jokaera antisozialak bultzatzen dituzten telesalmenta eta publizitatea, beldurra edo sineskeria erabiltzen dutenak, edo abusuak, arinkeriak, utzi-keriak edo portaera agresiboak susta ditzaketan.

3. Debeku izanen dira ere pertsonak nahiz animaliak krudelki edo gaizki tratatzera bultzatzen duten telesalmenta edo publizitatea, edo ondasun kultural nahiz naturalak suntsitzera.

4. Era berean, legekoa da berariaz produktuen edo zerbitzuen publizitatea egitea espero diren emaitzetarako duten eraginkortasuna froga kontrastatuen bidez frogatzerik ez badago.

5. Halaber, legekoa da profesionalen edo haien ordeztaritzen diren aktoreen gomendioetan edo iritzietan oinarritutako publizitatea, horien jardura iragarritako produktu edo zerbitzuaren arloarekin zerikusia badu eta aginte printzipioa erabiltzen bada.

6. Azkenik, orobat ez da zilegi ibilgailuen potentzia edo haiekin erdiets daitekeen abiadura nabarmentzen duen publizitatea, ez eta bide segurtasunerako arriskutsuak diren jokabideak, azkar joatea, adibidez, bultzatzen dituen ere.

7. Publizitateak eta telesalmentak ez dute erabiliko teknika subliminalik; publizitate subliminalizat hartuko dira Publizitateari buruzko aipatu Lege Orokorrean jasotzen diren elementuak.

8. artikulua. Zer publizitate eta telesalmenta diren debeku.

1. Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorreko 8. artikulua agintzen duenaz gain, honako publizitate eta telesalmenta ere debeku dira telebistan:

a) Zigarroak eta gainerako tabako produktuak zuzen nahiz zeharbidez saltzeko publizitate eta telesalmenta mota guztiak.

b) Nahitaez mediku errezeta behar duten medimakentu eta tratamendu medikoen publizitate eta telesalmenta zuzen nahiz zeharbideko guztiak.

c) Funtsean edo gehienbat eduki politikoa duen publizitatea, edo eite horretako helburuak iritsi nahi dituen, Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak eta Nafarroako Parlamentuko Hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeak agintzen dutena ezertan galarazi gabe.

d) Medikamentu, tratamendu mediko eta sendagaien telesalmenta.

2. Publizitate eta telesalmenta disimulatuak debeku dira.

9. artikulua. Edari alkoholikoen publizitate eta telesalmenta.

1. Debeku dira alkohol etilikoaren portzentajea ehuneko 20koa baino handiagoa duten edariak zuzen nahiz zeharbidez saltzeko publizitate eta telesalmenta mota guztiak.

2. Gainerako edari alkoholikoen publizitate eta telesalmentak honako printzipio hauek begiratu behar ditu:

a) Adingabeak ezin hartuko ditu berariaz helburutzat, eta ez ditu edari alkoholikoak hartzen ari direla aurkeztuko.

b) Alkohol kontsumoa eta gorputz errendimendua edo ibilgailu gidatzearen hobekuntza ez dira loturik aurkeztuko; ez da aditzera emango alkohol kontsumoak arrakasta sozial edo sexuala ekartzen duela, ez eta sujerituko ere edari alkoholikoen efektu sendagarria edo lasaigarria dutela, edo problemak konpontzeko bide bat direla.

c) Ez dute bultzatuko alkohola neurritz gain kontsumitzera; alkoholik ez edateari ez diote irudi negatiborik erantsiko, eta ez dute aipatuko alkoholoduna izatea edari baten ontasuntzat.

10. artikulua. Publizitatea eta telesalmentako iragarkien identifikazioa eta kokaera.

1. Publizitate eta telesalmenta erraz antzemateko modukoak izanen dira eta argiro bereiziko dira programetatik, hartarako bide optiko nahiz akustikoak erabiliz.

2. Publizitate eta telesalmentako iragarkiak bateraturik emitituko dira. Salbuespenez baizik ez da emitituko publizitate eta telesalmenta iragarki bakarturik.

3. Publizitate eta telesalmentako iragarkiak programen artean tartekatuko dira.

Hala ere, hurrengo artikuluan agintzen denarekin bat, zilegi izanen da ere publizitate eta telesalmentako iragarkiak sartzea programetan tartekatuturik, betiere horrek programen batasunari kalte egiten ez badie, haien kalitate edo balioa behar ez bada eta tartekaldi horiek egiteko programen etenaldi naturalak erabiltzen badira, iraupena eta nolakotasuna kontuan hartuta, eta inoiz ere kasuko programetako titularren eskubideei eraso gabe.

4. Publireportajeak, telepromozioak eta oro har telebista iragarkiez besteko publizitate moduak emititzen badira, iragarki horiek beren ezaugarriengatik programazio direla sinistatzen badieziokete ikusleari, denbora guztian eta erraz

irakurtzeko moduan "publizitatea" hitza daraman ohar grafikoak jarriko zaio gainean.

5. Kirol saioetan zilegi izanen da publizitate eta telesalmentako iragarkiak sartzea, gainezarririko elementu grafikoak edo beste edozein irudi tratamendu erabiliz, baina emititzen den gertaeraren bilakaera geldirik dagoen uneetan bakarrik, non eta gertaeraren ikuspena tratatzen ez den eta gainezarririko elementu grafikoek pantailaren seiren bat baino gehiago hartzen ez duen.

Mezu horiek testu idatziak baizik ez dira izanen eta ez dute izanen beste inolako irudi erreale nahiz bizidunik, markaren logotipo estatikoa besterik.

11. artikulua. Arau bereziak.

1. Zati beregainak dituzten programetan, zati horien artean baizik ez da zilegi izanen publizitate eta telesalmentako iragarkiak sartzea.

2. Kirolari buruzko edo antzeko egitura duten gertaera edo ikuskizunei buruzko emisio edo programetan, beren osagaien artean denbora zerbitut badute, tarte horietan baizik ez da zilegi izanen publizitate eta telesalmentako iragarkiak sartzea.

Aurreko lerroaldean esan den ez bezalako kirol saioetan, artikuluko honetako 3. idatz-zatikoa lehenbiziko idatz-zatian finkatu den araua hartuko da aintzat; ez da zilegi izanen, ordea, saioa interes handieneko uneetan etetea publizitate eta telesalmentako iragarkiak emititzeko.

Zilegi izanen da ere publizitate eta telesalmentako iragarkiak kirol saioetan sartzea saioko gertaerak geldirik dagoen uneetan, betiere geldialdi horrek iraupen programatua badu.

3. Aurreko lerroaldean esan den ez bezalako programetan, publizitate eta telesalmentako iragarkiak sartzeko geldialdien artean gutxienez hogeitun minutuko denbora izanen da, hurrengo lerroaldeetan agintzen dena ezertan galarazi gabe.

Zilegi izanen da programa baten aurreko nahiz ondoko publizitatea eta telesalmentak emititu denetik programan bertan publizitatea sartzeko lehen nahiz azken etenaldira arteko denbora hogeitun minutu baino gutxiagokoa izatea.

Programan behin gehienez, zilegi izanen da publizitate eta telesalmentarako bi etenaldien arteko denbora hogeitun minutu baino gutxiagokoa izatea; ez, ordea, hamabost minutu baino gutxiagokoa, programako berezko etenaldiak errespetatzeko.

4. Zilegi izanen da ikus-entzunezko obrak, film luzeak adibidez, berrogeita bost minutu baino gehiagoko iraupen programatua dutenak, berrogeita bost minutuko aldi osoan behin etetea, eta beste etenaldi bat ere izanen da zilegi emisioaren iraupen programatu osoak arestian aipatu denboratarte horietako bitatik edo gehiagotatik gutxienez hogeitun minutu gora egiten badu. Etenaldi horiek obraren osotasuna eta balioa begiratzu eginen dira eta ez da zilegi obrari kreditu tituluak, hasierakoak zein akaberakoak, kentzea, ez eta jatorrizko iraupena eten edo moztea, abiadura biziagotuz.

Idatz-zati honetan agintzen denetik kanpo uzten dira telesailak, serialak eta entretenimenduko emisioak, horiei artikuluko honetako gainerako idatz-zatietan agindutakoa aplikatuko baitzaie, hala tokatzen bada.

5. Ez da zilegi izanen informazio saioak, dokumentalak, erlijiozkoak edo haurrentzakoak publizitate eta telesalmentak sartzeko etetea, non eta iraupen programatua hogeita hamar minutu baino gehiagokoa ez den, zeren horretara artikuluko honetako 1., 2. eta 3. idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuko baita.

6. Ez da zilegi izanen publizitate eta telesalmentarik sartzea erlijio zerbitzuen emisioetan.

7. "Iraupen programatua" esaten denean, artikuluko honen agintzen ditueni begira, zera ulertu behar da: programak edo obrak irauten duen denboratarte osoa, programan edo obran dauden publizitate tarteak barne direla.

8. Publizitate eta telesalmentako iragarkietarako denbora tarteetan, seinalea emititzeko baldintza teknikoek betiere errespetatuko dituzte kasuko zabalpen-bideari aplikatzeko zaion arau teknikoak ezartzen dituen parametroak. Telebista seinalea emititzeko gaitu diren operadoreek behar diren neurriak hartu beharko dituzte jatorrizko seinaleak tratatzeko prozesuek ez dezaten sortu ikuslearen belarrian soinu mailako gora salto nabarmenik aurre-aurreko emisioaren aldean.

9. Foru lege honi dagokionez, uztailaren 12ko 25/1994 legeko 3. artikuluko ezartzen dituen definizioak aplikatuko dira (lege hori ekainaren 7ko 22/1999 Legeak aldatu zuen).

12. artikulua. Publizitate eta telesalmentarako emisio denbora.

1. Edonolako publizitatea eta telesalmentak emititzeko denbora, artikuluko honetako 3. idatz-zatian araututako telesalmentak saioak kanpo direla, ez da osotara izanen eguneko emisioaren ehuneko hogeitun baino gehiagokoa.

Publizitate iragarkiak sartzeko emisio denbora ez da izanen eguneko emisioaren ehuneko hamabost baino gehiagokoa.

2. Egunaren zatiketako ordu natural bakoitzean, edonolako publizitate eta telesalmentako iragarkiak sartzeko denbora ez da izanen hamazazpi minutu baino gehiagokoa.

Muga hori begiratzuz, publizitate eta telesalmentako iragarkiak sartzeko denbora, autopromozioa kanpo dela, ez da izanen aldi bereko hamabi minutu baino gehiagokoa.

3. Telebista kanal bakoitzak zilegi izanen du gehienez egunean hiru orduko telesalmenta saioak emititzea. Saio horiek gutxienez hamabost minutuko iraupen etengabea izanen dute eta telesalmentakotzat identifikatuko dira, erabat argiro, seinale optiko nahiz akustikoak erabiliz.

Telesalmenta hutsekoa ez den telebista kanal batek egunean gehienez zortzi telesalmenta saio emititu ditzake.

4. artikulua honi begira, ez dira publizitatetzat hartuko zerbitzu publikoko iragarkiak, ez ongintza kutsukoak, dohainik emititzen direnak, eta ez telebista operadoreak bere programen gainean egiten dituenak.

13. artikulua. Publizitate eta telesalmenta kanalak.

1. 12. artikuluan telesalmentari jartzen zaizkion denbora mugak ez zaizkie aplikatuko telesalmenta hutserako diren kanalei.

Kanal horiek zilegi izanen dute publizitatea emititzea foru lege honetan ezarri bezalako muga eta baldintzetan. Ez zaie, ordea, aplikatuko 12. artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusten dena.

Idatz-zati honetan aurreikusten den araubidea aplikatu ahal izateko, aipatu kanalek ez dute zilegi izanen publizitate eta telesalmentaz bestelako programarik emititzea.

2. 12. artikuluan publizitateari jartzen zaizkion denbora mugak ez zaizkio aplikatuko kanaleko titularraren produktu edo zerbitzuak sustatzeko publizitateari, hartan soilik aritzen diren kanaletan.

Kanal horiek zilegi izanen dute besteren publizitatea ere emititzea, foru lege honetan oro har publizitaterako ezarri bezalako muga eta baldintzetan.

Idatz-zati honetan agindutakoa aplikatu ahal izateko, klase hartako kanalek ez dute zilegi izanen autopromozioa eta besterentzako publizitateaz besteko programarik emititzea.

14. artikulua. Telebista patrozinoia.

1. Patrozinoioko telebista programek honako baldintzok bete beharko dituzte:

a) Patrozinoia eta patrozinaorea argiro identifikatuko dira, haien izena, logotipoa, marka edo bestelako igargarriak agertuz emisioaren hasieran, bukaeran edo bietan.

Patrozinoia eta patrozinaorea publizitateko etenaldietan ere argiro identifikatuko dira eta bai patrozinoioko programan zehar ere, noizean behin eta programaren garapena tratabu gabe.

Identifikazio horretan ez da zilegi izanen publizitate mezurik sartzea patronizadorearen nahiz hirugarren baten produktu edo zerbitzuak erosi edo kontratatzea zuzen nahiz zeharbidez bultzatzeko asmoarekin.

b) Ez da zilegi izanen patronizadoreak patrozinoioko emisio baten edukia eta programazioa halako moduan moldatzea non telebista operadorearen beregaintasun editorialak kalte hartzen duen, eta ez du bere produktu edo zerbitzuak nahiz hirugarren batenak haien sustapen-aipu zehatzak eginaz erosi edo kontratarazteko moduko mezurik izanen, salbu eta publizitate eta telesalmentarako denboran, 10 eta 11. artikuluetan arautu bezala.

2. Foru lege honetako 7 eta 8. artikuluek aginduta publizitate debekua duten produktu-zerbitzuak egin edo ematea jarduera nagusia duten pertsona fisiko nahiz juridikoek ez dute zilegi izanen telebistako programak patronizatzea. Hala ere, zilegi izanen da medikamentuak, sendagaiak edo tratamendu medikoak egin, banatu edo saltzen aritzen diren entitateek telebistako programak patronizatzea, non eta programa horietan patrozino entitatearen izena besterik aipatzen ez den, bere produktu edo zerbitzuak ezertarako azaldu gabe.

3. Ez da zilegi izanen eguneroko berri saiorik edo gaurkotasun politikoko programarik patronizatzea. Programa horiek izan ditzaketan zatiak ere ezin izanen dira patrozinatuz, kirol eta eguraldi berriei buruzkoak izan ezik.

4. Telebistako patronizadoreak identifikatzeko denbora tarteak, artikulua honetako 1 a) idatz-zatiak aipatu dituenak, ez dira kontatuko 12. artikuluan aipatu diren publizitate denbora gehiengoa kalkulatzeko.

IV. KAPITULUA Adingabeen babesa

15. artikulua. Adingabeak publizitate eta telesalmentatik babestu beharra.

1. Telebista bidezko publizitateak ez du irudi edo mezurik edukiko adingabekoen gorputzari edo moraltasunari kalte egiteko modukorik. Hartarako, honako printzipiook begiratuko dira:

a) Ez ditu adingabeak haien eskarmentu faltaz edo sinesberatasunaz baliatuz bultzatuko produktu edo zerbitzu bat erostera, eta ez beren guraso edo tutoreei nahiz hirugarren baten guraso edo tutoreei, kasuko zerbitzu edo produktuak erosaztera.

b) Inoiz ez da baliatuko hurrek gurasoengan edo irakasleengan izaten duten konfiantza bereziaz, ez eta haurrentzako programen profesional batengan edo fikzio pertsonaje batengan izaten dutenaz ere.

c) Ez da zilegi izanen, behar adinako arrazoirik ez dela, haurrak egoera arriskutsu batean aurkeztea.

d) Jostailuen publizitate eta telesalmentaren kasuan, ez dute ideia okerrik sortuko jostailu horien ezaugarrien edo segurtasunaren gainean eta ez haurrak jostailu horiek beren buruari nahiz besteri kalte egin gabe erabiltzeko behar dituen trebetasunen gainean.

2. Telesalmentak 1. idatz-zatian aipatzen diren baldintzak beteko ditu eta gainera ez ditu adingabeak bultzatuko produktu eta ondasunak zuzenean erosi nahiz alokatzera edo zerbitzuak kontratatzen.

16. artikulua. Adingabeak programazioaren aurrean babestu beharra.

1. Telebista saioetan ez da zilegi izanen inolako agerraldi nahiz mezurik sartzea adingabekoen gorputzaren, gogoaren edo moralaren garapenari kalte larria egiteko modukorik, ez eta jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, nazionalitatea, iritzia edo inolako inguruabar pertsonal nahiz sozialengatik gorrotoa, mespretxua edo diskriminazioa sustatzeko moduko programarik.

2. Aurreko debekuan sartu gabe adingabekoen gorputzaren, gogoaren edo moralaren garapenari kalte egiteko modukoak diren programak emititzea gaueko hamarretatik bihamuneko seiak arte bai zik ez da zilegi izanen, eta igarbide optikoak eta akustikoak erabiliz emanen da aditzera.

Programa horiek kodifikatu gabe emititzen direnean, bistazko sinbolo baten bidez identifikatuko dira irauten duten guztian.

Xedapen hori programazio horren publizitate, telesalmenta eta promoziorako emisioei ere aplikatuko zaie.

3. Telebista programa bakoitzaren hasieran eta publizitate eta telesalmentako iragarkien etendaldi bakoitzaren ondotik berriz hastean ere, bide optiko nahiz akustikoak erabiliz adieraziko zaie ikusleei ondoko programa adingabekoentzat egoia den ala ez.

Filmen kasuan, kalifikazio hori zine aretoetarako nahiz etxean ikusteko bideo-grabazioaren merkaturako filmok izan duten bera izanen da, beren berariazko araudiaren arabera. Hori ez da eragozpen izanen telebista operadoreek kalifikazio hori osatzeko ohar zehatzagoekin adingabekoen guraso edo tutoreak jakineanago egon daitezten. Gainerako programetan, operadoreei dagokie, bakaraka edo elkar harturik, beren emisioak kalifikatzea.

Foru legeak indarra hartzen duenetik hiru hila-betera, telebistako operadoreek adostasunik lortu ez badute kalifikazio horiek aurkezteko sistema bateratu bat ezartzeko, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak funtzionamendua ziurtatzeko behar diren arauen gaineko proposamen loteslea egingen dio Nafarroako Gobernuari.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa Estatuko administrazioak harturiko oinarritzko neurrien osagarri edo gehigarri direnei baizik ez dagokie.

V. KAPITULUA Ikusleek informazioa hartzeko eskubidea

17. artikulua. Informazioa hartzeko eskubidea.

1. Uztailaren 19ko 26/1984 legeko 2.1.d) artikulua agintzen duenarekin bat (Kontsumitzaile eta Erabiltzaileak Defendatzeko Lege Orokorra), teleikusleek eskubidea dute, erabiltzaile diren partez, behar bezain lehenagotik jakiteko zer telebista programazio egonen den, filmak eta ikuskizunaren transmisioa ere barne direla.

2. Aurreko lerroaldean aipatu den informaziorako eskubide hori betearazteko, telebista operadoreek programazioa emititu baino gutxienez hamaika egun lehenago jarri beharko dute jendaurrean beren eguneroko programazioa. Programazio horretan argi adierazi beharko dira alderdi hauek: saio bakoitza noiz hasiko den, haren iraupena, saio mota, saioaren izena eta telesailen kasuan kapituluaren izena eta zenbakia edo luzemetraiaren izena, bai eta saioaren edukiaren deskripzioa ere. Era berean, saioa berria ez bada,

hala adierazi beharko da, eta askotan eman beharreko saioa denean, eta horrela programaturik baldin badago, noiz eta zein ordutan emanen den.

3. Internet-en "world wide web" zerbitzua duten telebista operadoreek web orrian jarri beharko dute eguneko programazioa, erabiltzaile guztiak kontsultatzeko moduan, aurreko idatz-zatian esandako moduan, orrialde nagusian kokaturiko lotura irakurteraz batekin.

4. Ez da zilegi izanen iragarritako programazioan aldaketak egitea ez bada telebista operadorearen nahiaz kanpoko gertaerengatik, programazioa jendaurrean jartzean ezin igarri zitzaizengatik.

5. Sarbide baldintzatuko telebista operadoreek edo telekomunikazio sareetakoek, telebistaren hedapen zerbitzua emateko gaitutakoek, eta oro har, foru lege honetan xedatutakoaren esparruan telebistako hedapen zerbitzua emateko titulu gaitasun-emailea duten guztiak, aginduzkoa izanen dute eskaintzen dituzten telebista kanal guzti-guztien ezaugarrien berri ematea, eta adierazi beharko dute kanal horiek beraienak edo hirugarren batek emanak diren eta, azken kasu horretan, zein den horien edizio-arduraduna. Halaber, jatorrizko emisioa beste bide batetik egiten duen kanal baten erretransmisioa den jakinarazi beharko da, eta kasu horretan, horren edizio-arduraduna foru lege honetan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitatearen jurisdikzioan dagoen ala ez adierazi beharko da.

Informazio hori uneoro eguneratu beharko da eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari igorri beharko zaio, lege honetan aurreikusirik dauden ikuskaritza eta kontrol eskumenak dituen aldetik. Artikulu honen hirugarren idatz-zatian ezartzen denarekin bat, informazio horrek ere ikusleek "world wide web" zerbitzua duten operadoreen web orrian kontsultatzeko moduan egon beharko du.

VI. KAPITULUA

Zehapenen araubideaz

18. artikulua. Subjektu pasiboak, kontrol eta zehapenerako eskumenak eta zehatzeko prozedura.

1. Kapitulu honetan ezartzen den zehapen araubidea foru lege honetako 2. artikuluan aipatu zerbitzuak ematen dituzten operadore publiko nahiz pribatuei aplikatuko zaie.

2. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari dagokio kontrola eta ikuskapena egiteko eskumena, foru lege honetan agintzen dena bete dadin

segurtatzeko. Hala tokatzen bada, berak tramitatuko ditu kasuko zehapen prozedurak eta tokatzen diren zehapenak ezarriko ditu, foru lege honetako 2. artikuluan aipatu zerbitzuei dagokienez.

3. Zehatzeko prozedura hasi baino lehen, zilegi izanen da, gertaerak argitzeko, aurretiazko informazio aldi bat ireki dadila agintzea, kasu konkrituaren zer nolakoak ikertu eta zehapen prozedura hasi behar den ala ez den erabakitzeko.

Zilegi izanen da aurretiazko informazio hori erreserbatua izatea, eta ez da hilabete batetik goiti luzatuko, non eta espresuki erabakitzen ez den beste epe jakin baterako edo batzuetarako luzatzea.

4. Prozedura, betiere, ofizioz hasiko du Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak, alderdi batek eskatuta Gobernuaren edo administrazio prozedura erkideak araututakoari jarraikiz horretarako zilegitasuna duen edozeinen ekimenez, edo salakuntzaren bidez.

Zehapen espedientea hasten duen ebazpenak egintzatarako instruktorea izendatuko du eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio eta, salatzailerik izan bada, hari ere bai.

5. Instruktoareak kargu plegu bat idatzi eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio. Hark hamabost egun balioduneko epea izanen du bere eskubideen alde bidezko iruditzen zaizkion alegazioak egiteko eta datuak, informazioak edo dokumentuak aurkezteko, bai eta kasurako iruditzen zaion froga proposatzeko.

Karguen pleguan beti honako jakingaiak ezarriko dira:

- a) Ustezko arau-hausleen identifikazioa.
- b) Gertaera egiaztatuak, arau-hausteak tipifikatzeko eta zehapenak mailakatzeko ardurako direnak azpimarraturik.
- c) Ustezko arau-haustea, hautsitako araua edo arauak zein diren zehazturik.
- d) Zehapenik tokatzen bada, zein zehapen, zenbatekoa den eta zein mailakoa den.
- e) Zein organok duen prozedura ebazteko eskumena eta zein arauk ematen dion eskumen hori.

6. Espedientatuak bere borondatez aitortzen badu erruduna dela, instruktoreak espedientea igorriko dio, ebazpena eman dezan, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari, ezertan galarazi gabe tramitatzen segitzea, iruzur zantzu arrazoizkorik badago edo beste pertsona edo entitate

errudunen bat isilpean geratu diren susmoa bada, edo prozedura hasteak sortu duen kontua ororen interesekoa bada.

7. Behar adina froga eginen dira ofizioz edo ustezko arau-hausleak eskatuta onartuko dira gertatutakoak eta erantzunbeharrak finkatzeko. Gertaerekin duten loturagatik azken ebazpena ustezko arau-hauslearen alde aldatu ezin duten frogak soilik ukatu ahalko dira.

Froga teknikoek, eta interesatuek proposatzen dituzten peritu txosten kontraesankor nahiz ebazleek eten eginen dute prozedura ebazteko epearen kontaketa, egin artean eta emaitzak espedienteari erantsi artean.

8. Alegazioak aurkezteko epea iragan, frogarik egin behar bada frogak egin, eta beharrezko irizten zaien eginbideak egin ondoren ere instruktoreak, karguen plegua jakinarazpenean zen bezala mantentzen badu, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari pasatuko dio espedientea, eta horrek emanen kasurako ebazpena edo, hala tokatzen bada, instruktoreari aginduko egin ditzala beharrezko iruditzen zaizkion eginbide osagarriak.

Egindako alegazio eta frogen ondorioz gertaera berririk edo bestelakorik azaltzen bada, edo karguen pleguan aipatzen dena baino larriagoko kalifikazioa sortzen bada, instruktoreak kargu plegu berria eginen du bide den zehapenarekin eta interesatuari jakinaraziko dio, hark hamabost egun balioduneko epean bidezko iruditzen zaion guztia alega dezan.

Aurreko lerroaldean agindu denetik kanpo uzten dira gertaera berriak edo arau-haustearen nahiz zehapenaren kalifikazio berriak alegazioen edo espedientearen interesatuak hala eskatuta egindako frogen ondoriozkoak diren kasuak, ezarri beharreko zehapena hasiera batean proposatutakoa baino larriagoa ez denean.

9. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak ebazpena emanen du, arrazoiak aipatuz, eta espedientearen sortutako kontu guztiak ebatziko.

Ez da zilegi izanen prozeduran barna egiaztatutako direnak beste gertaerarik onartzea ebazpenean, nahiz eta beste balorazio juridiko bat ematen zaien.

Zehatzeko prozedurari akabera emateko ebazpenak, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 89.3 artikuluan aipatzen diren elementuak ez ezik, egindako frogen balorazioa ere edukiko du, hala korik izan bada, bereziki erabakiaren oinarri izan diren frogana; finkatuko du gertaerak zein izan

diren, hala tokatzen bada arau-hauslea/k nor izan den/diren, zer arau-hauste egin den eta zer zehapen ezartzen zaion/zaien.

Aipatuko du ere arau-hausleari aldatutako egoera lehengoratzeko agindu behar zaion ala ez.

Ebazpena administrazio bidea bukatzen duenean betearazi ahal izanen da. Ebazpenean, hala tokatzen bada, behar diren aurreneurriak hartuko dira betearazi artean ebazpenaren eraginkortasuna segurtatzeko.

10. Zehapena luzeenez hilabeteko epean ordainduko da, administrazio bidean irmotu eta biharamunetik kontaktatzen hasita.

11. Zehatzeko ebazpena eman eta jakinarazteko luzeeneko epea hiru hilabetekoa izanen da. Espedientea hasi zuen organoak emandako ebazpen arrazoitu batez, epe hori beste hiru hilabetez, gehienez ere, luzatu ahal izanen da, espedientea hasi zuen ebazpena eman zen egunetik kontaktatuta.

Agintea aitortu zaien funtzionarioek emandako ikuskapen aktak dokumentu publikoak izanen dira eta hortaz bertan jasotzen diren gertaeren gainean berezko egia eta froga-indarra aitortuko zaie, besterik frogatzen ez den artean.

12. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak zilegi izanen du operadore publiko edo pribatuei beren eginkizunerako behar dituzten datuak eskatzea.

Hartarako, soinuuzko irrati zabalpen eta telebisatiko operadore guztiek lehen emisiotik hiru urtetan eduki beharko dituzte artxibaturik emititu diren programa guztiak, bai eta publizitate eta telesalmenta ere, eta haien gaineko datuak erregistratu.

Modu horretan eskuratutako informazioa isilpekoa izanen da, eta ez da foru lege honetan aurreikusitako helburuez bestetarako erabiltzerik izanen.

13. Honako preskripzio arauok aplikatuko dira:

a) Foru lege honetan arautzen diren arau-hausteez honela preskribituko dute: oso larriek hiru urteren buruan; larriek urtebeteren buruan, eta arinek sei hilabeteren buruan.

b) Arau-hausteen preskripzio epea haustea egin den egunetik hasiko da kontaktatzen. Interesatua jakinean dela zehapen prozedura hasteak eten eginen du preskripzio epea. Berriz hasiko da kontaktatzen zehapen espedientea hilabetetik gora geldirik egoten bada ustezko arau-hausleari ezin egozteko moduko arrazoiengatik.

c) Arau-hauste jarraitua izan bada, araua haustez bukatzen denean hasiko da kontatzen preskripzio epea.

d) Huts oso larrien zehapenek hiru urteren buruan preskribituko dute, huts larrienen bi urteren buruan eta arinenek urtebeteren buruan. Zehapenen preskripzio epea, zehapena ezartzen duen ebazpena irmotu eta biharamunetik hasiko da kontatzen. Interesatua jakinean dela betearazte prozedura hasteak preskripzioa etenen du, eta berriz hasiko da prozedura hori hilabetetik gora geldirik egoten bada arau-hausleari ezin egozteko moduko arrazoiengatik.

19. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Foru lege honetan arautzen den zehapen ahalmena erabiltzeko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko IX. tituluak ezartzen dituen printzipioak hartuko dira aintzat.

2. Honakoak dira arau-hauste arinak:

a) Foru lege honen ondoriozko edozein obligazio eta betebeharrak ez betetzea, larritzat edo oso larritzat kalifikatzen ez direnean.

b) Foru lege honen irispideko zerbitzuen kontzesioak gobernatzeko arauak kontzesioduneei ezartzen dizkieten baldintzak ez betetzea, ez betetze horrek kontzesioen funtsezko baldintzei erasaten ez badie.

3. Honakoak dira arau-hauste larriak:

a) Foru lege honetako II, III eta V. kapituluetan ezarritakoa ez betetzea.

b) 3. artikuluan jasotako printzipioak urratzea, salbu eta a) eta b) letretan ezarritakoak.

c) Identifikazio seinale faltsu edo engainagarriak emititzea.

d) Urtebeteko epean bi arau-hauste arin edo gehiago egitea, ebazpen irmoaren bidez hala direla ezarri baldin bada.

e) Foru lege honen eremuko zerbitzuen kontzesioak erregulatzen dituzten arauak kontzesiohartzaileei ezartzen dizkieten baldintzak ez betetzea, kontzesioen funtsezko baldintzei dagozkien ez-betetzeak direnean.

4. Honakoak dira arau-hauste oso larriak:

a) 3. artikuluko a) eta b) letretan jasotako printzipioak urratzea.

b) Programazioko betebeharrak eta publizitatea emititzeko mugak eta betekizunak behin eta berriz urratzea.

c) Ohorearen eta norberaren intimitate eta irudiaren eskubideari eta zuzentzeko eskubideari buruzko indarreko arauak, eta lekuak talde politiko eta sozialen artean banatzeari, hauteskunde kanpainei eta sondeoak hedatzeari buruzko arauak urratzea, ebazpen irmo batez deklaraturak.

d) Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren ikuskaritza-ahalmenak gauzatzea eragozten, zailtzen edo atzeratzen duten uko, erresistentzia edo oztupoak.

e) Foru lege honen IV. kapituluaren ezarritakoa ez betetzea.

f) Foru lege honen aplikazio eremuko jarduerak edo zerbitzuak betetzea horretarako gaitzen duen aginduzko titulua izan gabe.

g) Urtebeteko epean bi arau-hauste larri edo gehiago egitea, ebazpen irmoaren bidez hala direla ezarri baldin bada.

5. Arau-hausteak honela zehatuko dira:

a) Arinak 100.000 eta 5.000.000 pezeta bitarteko isunarekin (601,1-30.050,60 euro). Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak zilegi izanen du, halaber, gehienez astebetean emisioak edo programazioaren parte bat eteteko erabakitzea.

b) Larriak 5.000.001 eta 15.000.000 pezeta bitarteko isunarekin (30.050,61-90.151,81 euro). Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak zilegi izanen du, halaber, gehienez astebetean emisioak edo programazioaren parte bat eteteko erabakitzea.

c) Oso larriak 15.000.001 eta 50.000.000 pezeta bitarteko isunarekin (90.151,82-300.506,05 euro).

6. Arau-hauste oso larrietan, inguruabarrak zein izan diren, zilegi izanen da soinu eta telebista seinaleen irrati-hedapeneko zerbitzua emateko titulu gaitasun-ematearen balioa etetea, eta arau-haustea berriz gertatuz gero titulua baliogabetzea ere bai, inolako kalteordainik hartzeko eskubiderik gabe.

7. Betiere, ezarri behar den zehapenaren kopurua esandako muga horien artean mailakatzeko, honako faktoreak hartuko dira aintzat, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 131.3 artikuluko agintzen duenez gain:

a) Arau-hausteak gizartean zer oihartzun izan duen.

b) Arau-hausleak zer probetxu atera duen zehatzen den gertaeratik.

c) Ez betetzea zeinen larria izan den.

VII. KAPITULUA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua

20. artikulua. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzea.

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen da, Konstituzioaren balore eta printzipioak bermatu eta sustatzeaz eta bereziki aniztasuna, gazteria eta haurrak babesteaz arduratuko den organo independentea izan dadin.

2. Gizarte komunikazioaren erabiltzaileen eskubideak bermatzeaz arduratu behar den organoa denez, ikus-entzunezko komunikabideen titulartasunean gardentasuna nagusi izatea begiratuko du; horrekin batera, ikus-entzunezkoen industriaren interesen eta interes sozio-kulturalen artean organo bitartekariaren lanak beteko ditu.

3. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorean ekoizpena, programazioa eta publizitatea erregulatzen duten legeak, erregelamenduak eta beste edozein arau betetzen dela zaintzeko eskumena izanen du.

21. artikulua. Izaera eta araubide juridikoa.

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua zuzenbide publikoko entea da, nortasun juridiko propioa du, administrazio publikoekiko mendekotasunik gabe dihardu bere eginkizunetan, gaitasun osoarekin eta autonomia organiko eta funtzionalarekin.

Foru lege honetan eta aplikatzekoak diren gainerako lege xedapenetan ezarritik dagoena hartzen du araubide, bai eta haren estatutu organiko eta funtzionamendukoa ere.

2. Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoaren, Guztiendako Administrazio Prozeduraren eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetze-ari buruzko Lege Organikoaren oinarritzko arauak jarraikiz beteko ditu bere eginkizunak.

22. artikulua. Jarduteko eremua eta egoitza.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak foru lege honen aplikazio eremuan jarduten du bere eginkizunetan.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak Iruñean dauka egoitza.

23. artikulua. Osaera.

1. Kontseiluak zazpi kide izanen ditu:

a) Bost kide Nafarroako Parlamentuak bere kideen bi herenen gehiengoaren bidez hautatuak ikus-entzunezkoen, kulturaren, unibertsitatearen edo elkartearen arloan merezimendu aitortuak dituzten eta Nafarroako aniztasun ideologikoaren isla diren pertsonen artean.

b) Beste kideak Nafarroako Gobernuak hautatuko ditu, ikus-entzunezkoen, kulturaren, unibertsitatearen edo elkartearen arloan merezimendu aitortuak dituzten pertsonen artean hautatuak.

2. Parlamentuko taldeek izendaturiko izangaiak, Biltzarreko Osoko Bilkurak hautatu baino lehen, dagokion batzordean agertuko dira, erregelamenduan ezarritako moduan, parlamentariak haien merezimendu profesionalen berri izan dezaten.

3. Hautatuak izan ondoren Nafarroako Gobernuak izendatuko ditu Kontseiluko kideak.

4. Kontseiluko burua kontseilukideen artean hautatuko da, bi herenen aldeko botoarekin, Kontseilua eratzeko bilkuran; bilkura horretan kontseilukide zaharrena arituko da buru. Kontseiluko burua, horrela hautaturikoa, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak izendatuko du.

Kontseiluko buruak buruordea izendatu ahaliko du, kontseiluko kideen artean, haren esku utzitako eginkizunak beteko ditu eta Kontseiluko buruaren ordezkari arituko da hura ez badago edo gaixorik dagoenean.

5. Kontseiluko idazkaria kontseilukideen artean hautatuko da, kontseiluburuak hautatzeko erabiltzeko prozedura berarekin.

Idazkariak kargua utzi edo lekukurik nahiz eririk badago, kontseilukide gaztenak eginen ditu haren ordezkariak beste idazkari bat hautatu edo hura ordeztu behar diren arrazoia itzali arte.

6. Kontseilukideak ezin izanen dira behin baino gehiagotan hautatu.

7. Kontseiluko kideak ez dira inongo aginduzko manuren menpe egonen. Ez dute inongo agintaren jarraibiderik hartuko eta autonomiaz eta norberaren irizpideei jarraikiz beteko dituzte beraien eginkizunak.

8. Kontseiluburuaren kargualdia, betiere, sei urtekoa izanen da. Beste kideen kargualdia ere sei urtekoa izanen da baina bi urtetik kide horien hirutik bat berrituko da.

9. Kontseilukideak, izendatu eta hurrengo hogeita hamar egun naturaletan jabetuko dira karguaz, zin edo promes eginaz noiznahi Nafarroako Foru Eraentza begiratu dutela, Konstituzioari

eta legeei men eginen dietela eta karguko eginbideak zintzo beteko dituztela.

24. artikulua. Kontseiluko buruak eta kideek kidesuna uztea.

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideek ondoko arrazoiren batengatik utziko dute kargua:

- a) Kargualdia bukatzea.
- b) Kideak berak uztea.
- c) Hiltzea.
- d) Karguan aritzeko ezintasun iraunkorra.
- e) Izendatu eta gerora bateraezintasuna edo kargu publikoetan aritzeko debekua sortzea.
- f) Doluzko delitu batengatik epai irmo baten bidez kondena hartzea.

2. Kargu-uzte aurreratuek, non eta ez den kargualdia bukatu delako, sortutako hutsa Nafarroako Parlamentuak beteko du, 23. artikuluan ezarritako moduan. Era horretan izendaturikoaren kargualdia gainerako kontseilukideena bukatzen den une berean bukatuko da.

25. artikulua. Bateraezintasunak.

1. Indarra duen beste edozein arauk aginduta izan ditzaketen bateraezintasunez gain, Nafarroako Ikus-entzunezkoen honakoekin ere ezin bateratuko da kontseilukidea izatea:

- a) Nafarroako Gobernuak kidea edo goi karguduna.
- b) Europar Batasunean, Estatuan, autonomia erkidegoetan eta udal-kontzejuetan kargudun hautetsia izatea.
- c) Alderdi politikoetan, sindikatuetan edo enpresa-buruen erakundeetan zuzendaritza kargua izatea.
- d) Fiskal edo epaile karreran jardunean egotea.
- e) Zuzen nahiz zeharbidez edonolako komunikabideetan interesa duen enpresa batean edozein zuzendaritza kargu izatea eta bai publikitate enpresa batean edo ikus-entzunezko edukiak produzitzeko batean.
- f) Komunikazio edo publikitate enpresetan, komunikabideetan, irrati edo ikus-entzunezkoen ekoizpeneko enpresetan partaidetza sozialaren edo akzioen 100eko 5 baino gehiago –berez nahiz ordezkatzeko edo ahalordetze bidez– jabetzan edo titularitatean izatea.

2. Bateraezintasun horietakoren bat dutenek bi hilabete izanen dituzte beren egoerak lege honetan ezarritakora egokitzeke. Bestela, Kontseiluak bateraezintasuna dutela adieraziko du, kideen bi herenek hala erabakituta.

26. artikulua. Eskumenak.

1. Kontseiluaren eginkizunak hauexek izanen dira:

a) Ikus-entzunezkoen sistemaren lege eta arauen inguruko gaitan, bai eta sistema horren mota tekniko guztietan eta lurralde mailan dauden egoeraz eta aurreikuspenez aholkua ematea Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuari. Txostenak eta irizpenak modutzea bere borondatez nahiz hala eskatzen badute Nafarroako Gobernuak, Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Parlamentuko bi taldek edo foru parlamentarien bostena.

b) Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak zehapen ahalmena du, ikus-entzunezko komunikazioa eta publikitatea arautzen duten legeek, foru lege honetan Kontseilurako ezarritako jarduketara esparruari eta eginkizunei dagokienez, Nafarroako Gobernuari emandakoa. Hortaz, Kontseiluak foru lege honetan aurreikusitakoa betetzen dela bermatzeko, kontrol eta ikuskaritzan arituko da eta, kasua denean, foru lege honen 2. artikuluan sartutako zerbitzuei dagokienez, zehapen prozedurak tramitatu eta zehapenak ezarriko ditu.

c) Soinuzko irrati zabalpen eta telebistako zerbitzuen kontzesioa adjudikatzeko lehiaketa bakoitzean, deialdia egin baino lehen, Gobernuak presatu duen baldintza pleguari buruz nahitaezko aldeko txostena egitea edo Gobernuari itzultzea beste modu batean aurkez dezan.

d) Irrati zabalpen eta telebistako emisorak kudeatzeko eraukipenak emateko lehiaketetan, nahitaezko baiezkotxo txostena egitea, edo Gobernuari itzultzea beste modu batean aurkezteko, lizitatzailen akziodun-osaeraren gainean, sektore horretan aniztasuna eta kompetentzia librea segurtatzeko, hedabideak esku gutxitan kontzentratzea eta gailentasunezko abusuak eragozteko. Kontzesioak berritzeko eskaeren gainean ere emanen du txostena, eraukipenen enpresa titularren kapital soziala aldatzeko espediente Nafarroako Gobernuak baimendu behar dituen gainean eta kontzesioak eskualdatzeko espedienteen gainean.

e) Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak Nafarroako administrazio publikoek ikus-entzunezko komunikabideekin izenpeturiko akordio berri izanen du, komunikabide horiek, zuzenean edo zeharka, dirulaguntza publikoak jaso edo titu-

laritate edo jabetza publikoko ondasun edo zerbitzuak erabiltzen dituztenean kasuan.

f) Nafarroako Administrazio Publikoen eta komunikabideen arteko lankidetzak hitzarmenak –egungoak eta etorkizunekoak– kontrolatu eta haren jarraipena egitea.

g) Komunikabideetako publizitate instituzionalaren kopuruak kontrolatu eta haien jarraipena egitea.

h) Nafarroako Parlamentuari urtero aurkeztea txosten bat, aurreko aldiaren izandako jarduerak azaldu eta ikus-entzunezkoen sistemaren garapena, arazoak eta zailtasunak ebaluatzeko, arreta berezia eskainiz edukiei eta horien artean, aniztasuna, hezkuntza, haurrak, gazteak eta pertsonen duintasunarekin zerikusia dutenei.

i) Ikus-entzunezkoen sistemari buruzko azterlanak egitea.

j) Gutxiengoaren eskubideak, haurrak, gazteak eta pertsonen duintasuna babestea, programazioan eta publizitatearen edukietan.

k) Hutsegiteak zuzentzeko eskubideaz baliatu ahal izateko eta kontraprogramazioa saihesteko arbitraje edo bitartekaritza lanak betetzea, ahalmenen gaineko hitzarmena izenpetu ondotik, haren estatutu organiko eta funtzionamendukoak ezarritako moduan.

l) Begiratzea ikus-entzunezko sektorea gobernatzen duen araudiak agintzen duena bete dadin eta araudiaren oinarri diren printzipioak errespetatu daitezkeen: bereziki, aniztasun politika, gizarte, erlijio, kultura eta pentsamenduaren alorreko aniztasuna segurtatzea eta Nafarroan ikus-entzunezko sistema osoan hizkuntza eta kultura aniztasuna zaintzea.

m) Begiratzea, haren eskumenen esparruan, Europako Batasunaren arauak bete daitezkeen begiratzea, bereziki mugarik gabeko telebistari dagokion arloan, eta bai nazioarteko itunek ikus-entzunezko hedabideen gainean agintzen dutena ere.

n) Ikus-entzunezko hedabide publiko nahiz pribatuak esleitu zaizkien zerbitzu publiko eginkizunak bete daitezkeen begiratzea.

ñ) Eskumena duen irrati eta telebistako emisioetan sustatzea Konstituziotik heldu diren eskubideak betetzen direla gaituen inguruan: aniztasuna, jaiotze, arraza, sexu, erlijio edo ideologia dela-eta pertsonen kontrako diskriminaziorik ez izatea, bai eta haur edo gazteentzat kaltegarriak izan daitezkeen saioren kokaerari dagokionez ere, legez ezarritako babes-ordutegietatik kanpo.

o) Ikus-entzunezkoen sektorean autoerregulazio arauak har daitezkeen sustatzea.

p) Kontseiluaren estatutu organiko eta funtzionamendukoak onetsi eta hala tokatzen bada, aldatzea.

q) Operadoreei aholkua eta informazioa ematea beren eskumenen eremuan legeak bete daitezela segurtatzeko, eta ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuen erabiltzaileen egiten dituzten kexen berri ematea.

r) Iragarki-egileei eta ikus-entzunezko enpresei eskatzea, bere borondatez nahiz interesatuek eskatuta, bidegabeko publizitatea kentzeko edo aldatzeko.

s) Foru lege honek aitortzen dituen eskuratzeko barrenean, behar diren neurriak hartzea publizitatean edo programazioan giza duintasunaren eta berdintasunaren kontrako mezu edo edukiak sartu eta zabaltzearen ondorioak berdintzeko; bereziki mezu edo eduki horiek haur edo gazte jendearen entzun orduetan emititu badira.

t) Herritar elkarten eta teleikusle zein erabiltzaileen kexak eta eskaerak jasotzea eta sektore horiekin harreman etengabea eta erraza izatea.

u) Legeak esleitzen dizkion beste guztiak.

2. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak, haren eginkizunak betetzeko, txostenak eskatu ahal dizkio maiatzaren 17ko 168/1999 Foru Dekretuaren bitartez sortutako Telekomunikazioen Kontseilu Aholku-emaileari eta martxoaren 4ko 2/1985 Foru legearen bitartez sortutako Espainiako Irrati-telebistaren Kontseilu Aholku-emaileari. Halaber, Kontseiluak kontsultatu nahi dituen aferetan jakintza tekniko nabarmena duten beste erakunde, entitate edo pertsona batzuen laguntza eskatu ahal izanen du.

3. Haren eskumenak betetzeko, Kontseiluak proposamen edo gomendio, errekerimendu, txosten, ikuskaritza eta kontrol eta zehapen ahalmenak ditu bere gain. Kontseiluaren erabakiek amaiera ematen diote administrazio bideari.

4. Kontseiluak zilegitasuna du jurisdikzio arruntan mota guztietako ekintza prozesalak betetzeko, eta berariaz, Publizitateari buruzko lege orokorrean araututako eten eta zuzenketa ekintza betetzeko.

5. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren eskumenen artean dago begiratzea ikus-entzunezkoen komunikabideen jabetzan garrantzitsua izatea, foru lege honetan erregulatzen den moduan.

27. artikulua. Kontseiluaren funtzionamendua.

1. Kontseiluaren gobernu eta erabaki organoa osoko bilkura da, Kontseiluko buruak, kideek eta idazkariak osaturik.

2. Kontseiluko burua Kontseiluaren legezko ordezkaria da, eta Kontseiluaren osoko bilkuraren bileren deialdiak egin eta horietan buru aritzeko ahalmenak ditu. Buruaren ahalmenak horiek izanik ere, Kontseiluaren osoko bilkurarako deia eginen da kideetako lauek gutxienez hala eskatzen badute.

3. Kontseiluaren osoko bilkura balioaz eratzeko, kideetatik erdia gehi bat, gutxienez, bertaratu beharko dira. Kontseiluaren erabaki guztiak osoko bilkuran hartu behar dira, eta beharrezkoak dira kideen erabateko gehiengoaren aldeko botoak Kontseiluaren estatutu organiko eta funtzionamendukoa onartu eta aldatzeko, telebista edo irratiko emisioen lizentziak esleitzeari dagokion edozein erabaki hartzeko, zehapen oso larriak ezartzeko eta urteko txostena onartzeko.

4. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua foru lege honek indarra hartu eta lau hilabeteko epean eratuko da.

28. artikulua. Gardentasuna ikus-entzunezko komunikabideen titulartasunean.

1. Ikus-entzunezko komunikazioa xede duten sozietateen akzioak, partaidetzak edo titulu balio-kideak izendunak izan beharko dira eta sozietate bakoitzaren akziodunen liburuan inskribatu beharko dira, eta halaber foru lege honetan horretarako sortzen den Erregistroan.

2. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren aurretiazko baimena beharko dute aurreko idatz-zatian aipatzen diren akzioak eskualdatu, erabili edo zergapetzea eragiten duten ekintza eta negozio judiriko guztiek, bai eta akzioen, partaidetzen edo titulu balio-kideen lagapenak edo lagapenaren hitz emateak ere, baldin eta haien ondorioa ikus-entzunezko komunikazioa xede duen enpresa baten akzioak zuzenean edo zeharka erostea bada.

29. artikulua. Ikus-entzunezko komunikabideen titulartasunaren erregistroa sortzea.

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak ikus-entzunezko komunikabideen titulartasunaren erregistro bat sortuko du.

Erregistro horretan kontzesioa edo baimena inskribatu beharko da, horien titular diren sozietateekin batera, eskritura eta estatutuak ere erantsirik.

2. Sozietate titularren eskrituraren edo estatutuen edozein aldaketaren berri eman beharko zaio erregistroari, eta halaber administrazio organoen osaketa ere. Inguruabar horiek Merkataritzako Erregistroan inskribatu ahal izateko beharrezkoa izanen da aldez aurretik Ikus-entzunezko komunikabideen titulartasunaren erregistroari haien berri eman izana.

3. Aurreko artikuluan araututako egintza edo negozio juridikoak ere erregistro horretan inskribatu beharko dira.

4. Erregistro horren funtzionamendua Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren estatutu organiko eta funtzionamendukoan arautuko da.

30. artikulua. Diru ordainak.

1. Kontseilukideek eskubidea izanen dute erregelamenduz ezartzen diren dietak eta ordainak jasotzeko kontseiluaren lan bileretan parte hartzeagatik. Horrez gain, kontseilukide guztiek eskubidea izanen dute irizpenetarako txostenak egiteagatik ezartzen diren diru ordainak jasotzeko.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako diru ordainak Kontseiluak agindutako lanetan parte hartzen duten adituek ere jasoko dituzte.

31. artikulua. Araubide ekonomiko finantzarioa.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aplikatzeko zaion araubide ekonomiko finantzario beraren menpe egonen da.

Kontseiluak bere urteko aurrekontuaren aurre-proiektua itxuratuko du, programa beregain gisa sar dadin Nafarroako aurrekontu orokorren foru legearen proiektuan.

32. artikulua. Kontseiluko langileak.

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak bere plantilla organikoa prestatuko du. Langileak deialdi publikoaren bidez hautatu eta kontratatuko dira Gobernuak, publizitate, merezimendu eta gaitasunaren printzipioei jarraikiz.

2. Kontseiluan zehapen espedienteak irekitzen aritzen diren langileek funtzionarioak izan beharko dute eta eginkizun horietan ari dela, aginte publikoaren izaera izanen du.

3. Kontseiluaren zerbitzuko langileek lan-kontratuko harremana dute Kontseiluarekin, aurreko idatz-zatian ezarritako berezitasuna izan ezik.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak jardun ahal izateko behar diren kredituak sortuko ditu, Kontseiluak Nafarroako aurrekontu orokorren gastu egoeran bere programa ez duen artean.

Bigarrena. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak langileak eta baliabide materialak beretzen dituen arte, Nafarroako Gobernuak Kontseiluak egoki jarduteko behar diren baliabideak esleितuko dizkio.

Hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari ematen dizkion kontrol eginkizunak ez zaizkie aplikatuko udal titulartateko irratien bitartez egiten diren frekuentzia modulaturadun uhin metrikoetako soinu bidezko irradi zabalkunde zerbitzuei, horien gaineko kontrola udalaren osoko bilkuraren esku baitago, soinu bidezko irradi zabalkunderako udal irratien antolaketa eta kontrolari buruzko 11/1991 Legearen 4. artikulua ezarritakorekin bat.

Laugarrena. Foru lege honen II. kapituluaren jasotako betebeharrak uztailaren 12ko 25/1994 Legearen II. kapituluaren ezarritakoen osagarriak dira, foru lege honen menpeko telebista operadoreek azken hauek ere bete beharko baitituzte.

Xedapen iragankorra

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua hurrengo idatz-zatian xedatu bezala egingen ditu lehenbiziko bi berritze partzialak.

2. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideak lehenbizikoz izendatu eta bi urtera, Kontseiluan bertan zozketa egin eta haren arabera izendatuko dira kargua utzi eta ordeztu behar diren kideak. Beste bi urte iraganik orobat egingen da lehenbizikoan ordeztu ez diren kideekin. Geroztik, foru lege honetako 23. artikulua agintzen duena hartuko da aintzat.

3. Xedapen iragankor honetan aipatu diren berritze partzialak ez zaizkio kontseiluburuari aplikatuko.

Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe geldituko dira foru lege honi kontra egiten dioten maila bereko nahiz apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu, bete eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko uztailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 51. artikuluan ezarritakoaz baliatuz, Nafarroari dagokio Foruzaingoaren araubidea erregulatzea, bai eta Nafarroako udaltzaingoak koordinatzea ere.

Eskumen hori betetzeko, Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldarrikatu zen. Arau horren zioen azalpenean arazoitzen zenez, komeni da, behin Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoa onetsirik, Foruzaingoari buruzko ordura arteko arauen eskasiek eta gaurkotasun ezak eragindako hutsune normatiboa zuzentzea; Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutua arautzen duen martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legeak bere esparrutik kanpo uzten ditu, gainera, Foruzaingo kideak. Bestalde, Foruzaingo kideak eta udaltzaingoetakoak parekatzen ziren haien estatutuaren arautzean, horren bitartez azken hauen arteko koordinazioa bermatzeko eta arautzeko Nafarroako Administrazio Publikoen gainerako funtzionarioengandik bereizten zituzten alderdiak, azken hauek ezinbestekoak eginkizun polizialen bereiztasuna dela-eta.

Foru lege hura onetsi zenetik hamalau urte iraganik, agerian gelditu da egoki eta komeni dela haren eduki batzuk aldatzea. Aipatutako arauaren indarraldian, Foruzaingoa eta Nafarroako udaltzaingoak nabarmen handitu dira, kide kopurutan nola jarduketa esparrutan. Hazkunde hori eta foru legearen aplikaziotik heldu den esperientzia bera nahiko arrazoi badira zenbait aldaketa egiteko.

Are gehiago, Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak, 1994an Foruzaingoaren Antolaketaren eta eginkizunen plan zuzendaria onartu zutenean, adierazi zuten beharrezkoa zela langileen estatutuaren alderdi batzuk planean ageri ziren helburuetara moldatzea. Beste alde batetik, Nafarroako polizia kidegoetan ere eragina duten aldaketak gertatu dira Foru Komunitateko administrazioaren antolaketan eta langileen estatutuan; hori dela-eta, komeni da zenbait xedapen egokitzea.

Artikulu bakarra. Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legearen idatz-zatiak eta aginduak, ondotik aipatzen direnak, aldatu egin dira. Hauxe da testu berria:

4. artikulua.

4. artikuluari erredakzio berria ematen zaio:

“4. artikulua. Nafarroako Foruzaingoaren egiturari buruzko arauak adieraziko dute Foru Komunitateko administrazioaren zein departamentutan dagoen kokaturik, organigramaren aldetik.”

6. artikulua.

6. artikuluko 2. idatz-zatiari erredakzio berria ematen zaio:

“6. artikulua. 2. Foruzaingo kideak lanpostu hauetan banatuko dira:

- Ofiziala
- Inspektorea
- Inspektoreordea
- Sarjentua
- Kaboa
- Foruzaina

Erregelamenduz ezarriko dira idatz-zati honetan aipatzen diren lanpostuetako bakoitzari dagozkion eginkizunak.”

7. artikulua.

7. artikuluko 1. idatz-zatiari erredakzio berria ematen zaio:

“7. artikulua. 1. Foruzaingo kideak uniforme jantzirik arituko dira beti zerbitzuan daudenean. Kontseilari eskudunak emanen du baimena, zerbitzuak hala eskatzen duenean, uniforme jantzi gabe jardun dezaten zenbait kidek.”

9. artikulua.

9. bis artikulua berri bat gehitzen da.

“9 bis artikulua. 1. Nafarroako Gobernuak, Foruzaingoaren egitura organikoaren barruan, polizia judizialeko unitateak antolatu ahal izanen ditu, eta epaitegi edo auzitegiei eta Ministerio Fisikalari esleitu ahal izanen dizkie.

2. Polizia judizialeko unitate horiek Nafarroako Foruzaingoko Kidegoko kideek osatuko dituzte, behar den prestakuntza espezializatua jaso ondoren.

3. Artikulu honetan aipatutako unitateei aplikatuko zaizkie Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 31, 33, 34 eta 35. artikuluetan dauden xedapenak.”

12. artikulua.

12. artikuluari erredakzio berria ematen zaio:

“12. artikulua. Udaltzaingorik ez duten toki entitateek albentearen lanpostu bat edo batzuk sartu ahal izanen dituzte plantilla organikoan, udaltzaingoaren kidegoek dituzten eginkizun berberak bakarrik beteko dituen agente armaduna izateko, foru lege honen xedapenen menpean.”

14. artikulua.

14. artikuluko 1. idatz-zatiari erredakzio berria ematen zaio:

“14. artikulua. 1. Nafarroako toki entitateetako udaltzaingoek antolaketa hierarkikoa izanen dute, eta haien kideek lanpostu hauetakoren bat:

- Ofiziala
- Inspektorea
- Inspektoreordea
- Sarjentua
- Kaboa
- Udaltzaina edo agentea.”

15. artikulua.

15. artikuluko 2. idatz-zatiari erredakzio berria ematen zaio:

“15. artikulua. 2. Udaltzaingoaren Kidegoko buruaren izendapena alkateak edo Mankomunitateko buruak eginen du.”

16. artikulua.

16. artikuluari erredakzio berria ematen zaio:

“16. artikulua. 1. Ofizialaren lanpostua izanen da laurogei kide, gutxienez, dituzten udaltzaingo kidegoetan soilik.

2. Inspektorearen lanpostua izanen da berrogei kide edo gehiago dituzten udaltzaingo kidegoetan soilik.

3. Inspektoreordearen lanpostua izanen da hogeiki kide edo gehiago dituzten udaltzaingo kidegoetan soilik.

4. Sarjentuaren lanpostua izanen da hamabi kide edo gehiago dituzten udaltzaingo kidegoetan soilik.

5. Kaboaren lanpostua kasu guztietan izanen da udaltzaingo kidegoetan.”

27. artikulua.

27. artikuluko 3. idatz-zatiari erredakzio berria ematen zaio:

“27. artikulua. 3. Foruzaingoaren buruaren izendapena Nafarroako Gobernuak eginen du, kontseilari eskudunak proposaturik.”

30. artikulua.

30. artikuluko 2. idatz-zatiari erredakzio berria ematen zaio:

“30. artikulua. 2. Hautaketa proben artean, betiere, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak emanen duen prestakuntza ikastaro bat egonen da. Ikastaro hori gainditzea ezinbestekoa izanen da Nafarroako Polizia Kidegoetako funtzionario egiteko.”

32. artikulua.

32. artikuluari erredakzio berria ematen zaio:

“32. artikulua. Nafarroako Polizia Kidegoetako lanpostuak eskuratzeko eskatuko den titulazioa 37. artikulua ezarritako maileri dagokiena da.

2. Nafarroako polizia kidegoetako plantillako langileek aurreko enpleguan emandako urteak baliatu ahalko dituzte eskatzen den titulazioaren orde barne sustapenean.”

34. artikulua.

34. artikuluari erredakzio berria ematen zaio:

“34. artikulua. 1. Polizia kidegoetako lanpostu hutsak Polizia Kidegoetan sartzeko hautaketa probak eginez beteko dira.

Sartzeko prozeduran honako proba baztertzailer hauek eginen dira:

- a) Egoera fisikoaren probak
- b) Kultura orokorreko probak, eskatutako ikasketak mailarekin bat heldu direnak.
- c) Proba psiko-teknikoak izangaiak lanpostuaren ezaugarri profesiografikoari egokitzen zaizkion neurtzeko.
- d) Proba medikoak
- e) Prestakuntza ikastaroa.

Nafarroako Gobernuak udaltzaingoen kidegoetan sartzeko deialdia onartu eta hautapen prozedura eginen du, haien borondatez hala eskatzen dioten toki entitateen kasuan.

2. Kabo eta inspektoreordearen lanpostu hutsak barne igoeraren bidez beteko dira, beheargoko lanpostutik eta lehiaketa baten bidez. Lehiaketa horretan merezimenduen balorazioa, izangaiak lanpostuaren ezaugarri profesionaletarako egokiak diren neurtzeko proba psikoteknikoak eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak lanpostura gaitzeko emanen duen ikastaro bat gainditu beharko dira.

3. Sarjentu eta inspektorearen lanpostu hutsak barne igoeraren bidez beteko dira, beheargoko lanpostutik eta oposizio-lehiaketa baten bidez. Lehiaketa horretan merezimenduen balorazioa, jakintza probak, izangaiak lanpostuaren ezaugarri profesionaletarako egokiak diren neurtzeko proba psikoteknikoak eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak lanpostura gaitzeko emanen duen ikastaro bat gainditu beharko dira. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, lanpostu zuzenki beheargokoan bi urteko antzinatasuna, gutxienez, eta lanpostuari dagokion titulu akademikoa izatea eskatuko da.

4. Aurreko bi idatz-zatietan aipatutako lanpostu hutsak betetzeko deialdietan barne igoerako txanda bat ezarriko da polizia kidego bereko kideentzat eta beste txanda bat, deitutako gainerako lanpostuekin, Nafarroako polizia kidego guztietako kideek parte har dezaten, ezarritako beharkizunak betetzen badituzte. Txanda irekian betetzen ez diren lanpostuak barne igoerako txandari gehituko zaizkie. Idatz-zati honetan ezarritako portzentajea aplikatzeko, hiru lanpostu hutsetatik lehendabizikoa eta hirugarrena barne igoera txandakoak izanen dira eta bigarrena txanda irekikoa.”

35. artikulua.

35. artikuluari erredakzio berria ematen zaio:

“35. artikulua. 1. Udaltzaingoen kidegoetako ofizialaren lanpostu hutsak oposizio-lehiaketaren bidez beteko dira, bi txandatan, bata barne igoerako

rakoa eta bestea irekia. Barne igoerako txandan Nafarroako edozein polizia kidegotako kideak lehiatu ahalko dira, inspektore lanpostuan, egiaz emandako zerbitzuetan, hiru urteko antzinatasuna badute. Txandetako batean betetzen ez diren lanpostuak beste txandakoei gehituko zaizkie. idatz-zati hau aplikatzeko gertatzen diren bi lanpostu hutsetatik lehendabizikoa barne igoerako txandari atxikiko zaio eta bigarrena txanda irekiari.

2. Foruzaingoko ofizialaren lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira, hiru txandatan:

a) Lanpostu hutsen ehuneko berrogei barne igoera txandan, Nafarroako polizia kidegoetako kideentzat, inspektorearen lanpostuan, egiaz emandako zerbitzuetan, hiru urteko antzinatasuna badute.

b) Lanpostu hutsen ehuneko hogeita hamar txanda irekian, Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoen buru, ofizial eta agintarientzat, A edo B taldeko lanpostu batean, egiaz emandako zerbitzuetan, bost urteko antzinatasuna badute.

c) Lanpostu hutsen ehuneko hogeita hamar txanda irekian, A mailari dagokion ikasketak titulazioa badute.

3. Aurreko idatz-zatian ezarritako portzentajek aplikatzeko, gertatzen diren hamar lanpostu hutsetatik lehendabizikoa, bigarrena, bosgarrena eta zortzigarrena barne igoera txandakoak izanen dira; hirugarrena, seigarrena eta bederatzigarrena Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoen buru, ofizial eta agintarientzako txanda irekikoak eta laugarrena, zazpigarrena eta hamargarrena txanda irekikoak.

4. 2. idatz-zatiko a) eta b) letretan aurreikusten diren txandetan betetzen ez diren lanpostu hutsak txanda irekikoei gehituko zaizkie.”

36. artikulua.

36. artikuluari erredakzio berria ematen zaio:

“36. artikulua. 1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionario izaera eskuratu eta galtzeko baldintzak Nafarroako Administrazio Publikoetako gainerako funtzionarioei aplikatzekoak zaizkien xedapen orokorretan ezarritakoak arautuko ditu, ondoko idatz-zatiak xedatutakoa baztertu gabe.

2. Nafarroako polizia kidegoetan sartzeko izangaiak prestakuntzako ikastaroa egiteko onartuak izan badira, praktikaldiko funtzionarioak izanen dira hura egin bitartean. Egoera horretan dituzten eskubideak eta betebeharrak erregelamenduz arautuko dira.”

37. artikulua.

37. artikuluari erredakzio berria ematen zaio:

“37. artikulua. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioak maila hauetan banatuko dira:

- a) Ofiziala eta inspektorea: A maila.
- b) Inspektoreordea eta sarjentua: B maila.
- c) Kaboa eta polizia edo agentea: C maila.”

39. artikulua.

39. artikuluari erredakzio berria ematen zaio:

“39. artikulua. 1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioek gora eginen dute lanpostuko mailan igoz, 34 eta 35. artikuluetan ezarritako prozeduraren bidez, bai eta gradua igoz ere, 41. artikuluan ezarri bezala.

2. Nafarroako polizia kidegoetako kideek barneigoerako prozesuetan Nafarroako Administrazio Publikoen langileendako txanda murriztuan parte hartu ahal izanen dute, egiazko zerbitzuan 8 urte betetzen dituztenetik aitzina.”

40. artikulua.

40. artikuluari erredakzio berria ematen zaio:

“40. artikulua. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioak izendatu ahal izanen dira, bitarteko izaeraz, goragoko lanpostu baterako, betiere lanpostu hutsik badago eta kasuan kasuko igoera-prozeduran onartuak izateko baldintzak betetzen badituzte. Bitarteko izendapena urte baterako, gehienez, izanen da, baina luzatu ahal izanen da, betiere goragoko lanpostura igotzeko deialdia onaturik badago eta lanpostu hutsa behin betikoz bete arte.”

42. artikulua.

2. idatz-zati berri bat gehitzen da eta oraingo 42 artikulua 1. idatz-zatia izatera pasatzen da:

“42. artikulua. 2. Polizia kidegoko funtzionario bakoitzaren lanpostuaren errendimenduaren balorazio objektiboa eginen da urtero, eta espediente pertsonalari erantsiko zaio. Balorazio horrek emanen du igoera prozedura guztietan ezarriko diren lehiaketa baremoen puntuazioaren 100eko 50.”

44. artikulua.

44. artikuluko 1. idatz-zatiari d) letra berri bat gehitzen zaio:

“44. artikulua. 1. d) Beren zereginetan jardutean egindakoengatik erantzukizunak eskatzen zaizkien jarduketa judizial orotan, Nafarroako polizia kidegoetako kideek eskubidea izanen dute kide diren administrazio publikoaren kargura eta

hark izendatutako profesionalek defendi eta ordezkia ditzaten.”

45. artikulua.

45. artikuluari erredakzio berria ematen zaio:

“45. artikulua. Nafarroako polizia kidegoen funtzionarioek kontzeptu hauengatik baizik ez dituzte lansariak jasoko:

1. Oinarrizko lansari pertsonalak, Nafarroako Administrazio Publikoen gainerako funtzionarioei oro har aplikatzekoak zaizkien arauen arabera.

2. Lansari osagarriak.

- a) Osagarri berariazkoa.
- b) Lanpostuko osagarria.
- c) Burutzako osagarria.

3. Bestelako lansariak, Nafarroako Administrazio Publikoen gainerako funtzionarioei oro har aplikatzekoak zaizkien arauen arabera.”

46. artikulua.

46. artikuluari erredakzio berria ematen zaio:

“46. artikulua. 1. Osagarri berariazkoa Nafarroako polizia kidegoetako kide guztiei ordainduko zaie. Gehieneko zenbatekoa dagokion mailako hasierako soldataren ehuneko 55 izanen da.

2. Lanpostuko osagarria eginkizun espezializatuak betetzen dituzten unitateak dauzkaten polizia kidegotan aplikatuko da, unitate bakoitzari atxikitako eginkizunek eskatzen duten zailtasun, dedikazio, erantzukizun edo prestakuntza tekniko bereziaren mailaren arabera. Gehieneko zenbatekoa dagokion mailako hasierako soldataren ehuneko 75 izanen da.

3. Burutzako osagarria unitate organiko baten burutza atxikia duten lanpostuei aplikatuko zaie. Gehieneko zenbatekoa dagokion mailako hasierako soldataren ehuneko 30 izanen da.

4. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako udaltzaingoak koordinatzeko batzordeak aldeko txostena eman ondoren, erregelamenduz zehaztu ahalko du zein diren Nafarroako udaltzaingoan kidegoetako kideei ordaindu beharreko lansari osagarriak, foru lege honen xedapenekin bat.”

47. artikulua.

47. artikuluko 2. idatz-zatiari erredakzio berria ematen zaio:

“47. artikulua. 2. Baimena kontseilari eskudunak emanen du Foruzaingoaren kasuan, eta alka-teak edo Mankomunitateko buruak udaltzaingoan kasuan.”

56. artikulua.

56. artikuluari erredakzio berria ematen zaio:

“56. artikulua. 1. Zehapenak ezartzeko eskumena arau hauei lotuko zaie:

a) Foruzaingoan, Nafarroako Gobernuaren esku dago zerbitzutik bereiztea dakarren zehapena ezartzeko eskumena, eta kontseilari eskudunari hutsegite larri edo oso larrien kasuan gainerako zehapenak ezartzeko eskumena.

Foruzaingoko buruak du hutsegite arinengatiko zehapenak ezartzeko eskumena.

b) Udaltzaingoetan alkatearena da hutsegite oso larri edo larriengatiko zehapenak ezartzeko eskumena, eta Kidegoko buruarena hutsegite arinengatikoak ezartzekoa.

2. Diziplina edo zigor prozedurari hasiera eman ondoren, organo eskudunak erabaki ahal izanen du eginkizunak kentzea behin-behinekoz, kautelazko neurri gisa. Egoera dela-eta komeni denean, behin-behineko gabetze hori polizia kidegoko buruak erabaki ahal izanen du prozedura hasi aurretik.”

Xedapen gehigarria

45 eta 46. artikuluetan jasotzen diren ordainsari osagarrien aldaketek ez dute inolaz ere ekarriko Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen egungo ordainsariak jaitea.

Xedapen indargabetzailea

Foru lege honetan ezarritakoaren kontra doazen arau guztiak indarrrik gabe gelditu dira.

Azken xedapenak

Lehendabizikoa. Hiru hilabeteko epean Nafarroako Gobernuak Nafarroako polizia kidegoei buruzko testu bategina prestatu eta onetsiko du legegintzako foru dekretu baten bitartez.

Bigarrena. Sei hilabeteko epean Nafarroako Gobernuak foru lege honen xedapenak garatu eta aplikatzeko behar diren erregelamenduzko arauak emanen ditu, eta gai hauei buruzko berariazkoak:

– Sartu eta mailaz igotzeko prozedurak.

– Lanpostuak betetzea eta destinoak.

– Prestakuntza etengabea eta espezializazioa, eta prestakuntza jardueretan parte hartzeko baldintzak.

– Nafarroako polizia kidegoetako lan arrisku berariazkoen prebentzioa, haien ezaugarri berezien legedi indarduna egokituz.

Hirugarrena. Erregelamenduz ezarriko da zein kasutan igaroko diren langileak bigarren jarduerarako gorderiko lanpostuak betetzera, lan mota bakoitzaren gehieneko adinera ailegatzeagatik edo ezgaitasun partziala dela-eta. Plantilla organikoetan adierazi beharko dira bigarren jarduerarako multzoan sartu ahal izanen diren lanpostuak, eskatzen duten ahalegin fisiko, arrisku edo zailtasun txikiagoan oinarriturik.

Laugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean indarra hartu eta biharamunean hartuko du indarra.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--